



BIZKAIAN ZEHAR KONTETAN GIDA LIBURUA



61'282

BIZKAIAN ZEHAR KONTETAN

GIDA LIBURUA

Iñaki Gaminde
Juan Luis Goikoetxea
Esther Elgoibar



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2005

GAMINDE, Iñaki

Bizkaian zehar kontetan. Gida liburua / Iñaki Gaminde, Juan Luis Goikoetxea, Esther Elgoibar. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2005

p. ; cm. + 1 CD-ROM. – (Glotodidaktika-lanak ; 68)

ISBN 84-457-2350-2

1. Cuentos populares-Bizkaia. 2. Lengua vasca-Ejercicios prácticos. I. Goikoetxea, Juan Luis. II. Elgoibar, Esther. III. Euskadi. Departamento de Educación, Universidades e Investigación. IV. Título. V. Serie

398.2(460.152)

809.169(076.5)

Argitaraldia:	1.a 2005eko ekaina
Ale-kopurura:	700 ale
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Internet:	www.euskadi.net
Egileak:	Iñaki Gaminde Juan Luis Goikoetxea Esther Elgoibar
Fotokonposaketa:	E.P.S., S.L.
Inprimaketa:	Gráficas Santamaría, S.A.
I.S.B.N.:	84-457-2350-2
Lege-gordailua:	VI-308/05

AURKIBIDEA

1. SARRERA	9
1.1. LAN HONETAKO HELBURUAK	11
1.2. IPUINAK GIZARTERATZEKO METODOLOGIA	11
1.3. EUSKAL IPUINAK	13
1.4. GURE LEKUKOAK	14
1.5. IPUINETAKO EGITURA ETA DENBORA	14
1.6. SORGINEN ORDUAK ETA LEKUAK	15
1.7. KRISTAUTASUNA ETA PAGANOTASUNA	16
1.8. ANBOTOKO ANDEREA ETA BASAJAUNA	17
1.9. GAUA GAUEZKOENTZAT	18
1.10. SORGINEN AURKAKO KRUELKERIA	19
1.11. SORGINEN ESALDIAK ETA LAMIENAK	20
1.12. AHOZKO TESTU IDATZIAK	21
1.13. IPUIN HAUEK CURRICULUMEAN: EUROPAR DIMENTSIOA	22
1.14. EUSKAL IDENTITATEA ETA SORGINEN GAURKOTASUNA	23
1.15. EDUKIAREN SAILKAPENA	23
2. EDUKIAK	25
2.1. URIBE KOSTA	27
2.1.1. Berango	27
2.1.2. Jatabe	28
2.1.3. Sopela	36

2.2. MUNGIALDEA	36
2.2.1. Mungia	37
2.2.2. Meñaka	39
2.2.3. Bakio	41
2.2.4. Fika	44
2.2.5. Fruiz	45
2.2.6. Arrieta	47
2.3. BUSTURIALDEA	49
2.3.1. Errigoitia	49
2.3.2. Bermeo	50
2.3.3. Muxika	50
2.3.4. Axangiz	51
2.3.5. Arteaga	53
2.3.6. Elantxobe	56
2.3.7. Nabarniz	61
2.4. LEA-ARTIBAI	63
2.4.1. Lekeitio	63
2.4.2. Amoroto	76
2.4.3. Aulestia	77
2.4.4. Markina	79
2.4.5. Etxebarria	80
2.4.6. Ondarroa	81
2.5. DURANGALDEA	83
2.5.1. Zornotza	83
2.5.2. Abadiño	84
2.5.3. Atxondo	85
2.5.4. Elorrio	86
2.5.5. Zaldibar	87
2.6. ARRATIA	87
2.6.1. Galdakao	87
2.6.2. Dima	88
2.6.3. Zeberio	90
2.6.4. Zeanuri	91
2.6.5. Ubide	92

2.7. HEGO URIBE.....	93
2.7.1. Zollo	93
2.7.2. Bilbo	95
2.7.3. Etxebarri	95
2.7.4. Orozko.....	96
2.8. TXORIERRI.....	98
2.8.1. Leioa	98
2.8.2. Loiu.....	100
2.8.3. Zamudio	100
2.8.4. Larrabetzu.....	102
3. JARDUERAK ETA ARIKETAK.....	107
3.1. ITAUN-ERANTZUNAK	110
3.2. ENTZUN ETA KONTATU.....	136
3.3. ENTZUN ETA IDATZI.....	139
3.4. IKUSI ETA KONTATU	144
3.5. IRAKURRI ETA KONTATU	149
3.6. AMAIERA EMAN	153
3.7. EUSKARA BATUAN IDATZI.....	161
3.8. BETE HUTSUNEAK	167
3.9. SINONIMOA EMAN	173
3.10. BERBA AUKERATU	180
4. ERANSKINA	189
BIBLIOGRAFIA	205

1.
SARRERA

BIZKAIAN ZEHAR KONTETAN honetako ipuinok eskola bidez gizarteratzera gatoz aurten ere. Orain kurtso bi argitaratu genuen *BIZKAIKO EUSKERAREN ESALDI ETA TESTU EREDUAK* ikasmateriala; iazko ikasturtean *BIZKAIAN ZEHAR KANTETAN* deritzana, eta aurtengoan *BIZKAIAN ZEHAR KONTETAN* curriculum-material hau.

Horrela, lehen argitalpeneko esaldi eta testuekin, bigarreneko kantekin eta hirugarren honetako ipuinekin ziklo bat ixten dugu.

1.1. LAN HONETAKO HELBURUAK

Euskal Herri euskaldunaren ondare kultural galkorra teknologiari esker iraunkor bihurtzea, amama-aitaiten ahotiko jakituria formatuz aldatuta herritarrei itzultzeko.

Lehen garaietako kultura espirituala berregitea. “Hala nola giza hondakinak eta objektuak lurraren erraietan aurkituak garamatzaten tipo fisikoa ezagutzera eta gizaki prehistorikoaren zibilizazio materiala ezagutzera, modu berean, herri jakituriak zeinek kontserbatzen dituen sinesteen hondakinak, emango digu ezagutzera mitologia eta antzinako kultuak eta lagunduko digu berregiten lehen garaietako kultura espirituala”. (Itzulpena. Barandiaran, 1918).

1.2. IPUINAK GIZARTERATZEKO METODOLOGIA

Guk betiko euskaldunengana jo dugu jende harrigarriaren –Lafittek hala deitzen ditu sorginak-eta, lamiak-eta- bila. Zuzen zuzeneko dokumentuak dira hauek. Euren berbak entzun egiten dira, irudiak ikusi egiten dira. Pentsaera magikoan bizi direnek

kontatzen digute, seguru asko pentsaera zientifikoan bizi garenoi. Horrela, erlijioko testu hura plagiatur ez dezagun erantzun:

Sinesten duzu sorginengan?

Of course not. I am a scientist

Beste bidea izango litzateke Barandiaran handiak dioela dioen testua berrargitaratzea edo Azkue ziklopeak batutakoa berriz eskaintzea. Horrela jokaturik, mitoen ezagupena ederto baten jasoko genuke, ez ordea, bizipena; eta gizakiaren bizitzan Descartes-en Cogito ergo sum ideia argiaz gainera, jakitearekin batera gura izatea eta sentitzea daude, fantasia eta umorea, emozioak eta grinak, ikaste hutsera ezin batu direnak. Oteizak Unamunogandik jasota dakarkigunez, “Uste dut Unamunok esaten zuela ezen arrazionalaren izenean irrazionala ezabatzen bada, mutilatu egiten dela bizitza”. (Oteiza 1963: 108).

Horrenbestez, ipuinon erabiltzaileak “Pasadizoak” deritzan atalean “Alper handia” entzun dezake bizian, zuzenean. Ipuin bera, Azkueren maisu eskuak idatzirikoa, irakurri besterik ezin dezake Euskalerrriaren Jakintza II-ko 36. orrialdean. Egoera bera gertatuko zaio Peru eta Maria ipuinagaz, Azkuek Euskalerrriaren Jakintza II. tomoko 93. orrialdean dakarrenaz, eta guk Aulestiko “Peru eta Maria” deritzanean dakargunagaz.

Euskaldun zuhurra erraz ohartuko da egin dugun hautaketaz. Ikas material honetarako ipuin batzuk aukeratzeaz batera, beste batzuk bazter laga dira. Jaso direnak lehen mailako testuak dira, alegia, baserritarrek, arrantzaleek zuzenean kontatuak, euren identitate kulturalari lotuak.

Baztertu direnak, oster, bigarren graduak dira, hau da, eliztar batzuk edo epai-leek fikzioa errealitatetzat hartu ondoren sorturiko sineskeriak: akelarreak hau eta bestea zirela eta abar kontatzen digutenak.

Zoritxarrez, gainera, sorginkerriaren sinkretismoa da gureganaino heldu dena, ez baitakigu bereizten askotan zein istorio den epai-leek sortarazia eta zein euskal mitologia naturalari dagokiona.

1.3. EUSKAL IPUINAK

Zaharren kontuak baino kontu zaharrak dira *BIZKAIAN ZEHAR KONTETAN* ikas materialean bilduak. Ipuinen balioa ez dago zahar gaztean, adin orotan dugu ipuina bizi eta.

Hemengo istorioetarik batzuk historiaren gauean galtzen dira, beste batzuk atzo goizekoak dira, oraindik anekdotatasuna soinean daramatenak, baina denak ere gauaren altzoan lotaratzeko behin eta berriro kontatuak.

Dena dela, gehien gehienak aspaldiko kontakizunak dira, aho belarri pasatu ahala josiz joan direnak, kontalaririk kontalari jantziz etorri direnak, mitotasuna dutenak.

“Mitoak errealitatearen adierazpide edo interpretazio “infidelak” dira; baina adierazpide direnez gero, gertaerak dira, baieztapenak. Baieztapen sinestuak izan direnak edo kontatuak egiazkotzat zein narratzaile eta entzuleen entretenigarritzat”. (Barandiaran 1984: 7).

Mitologia “Izarren ortzi zabalak eta bizidunen misterio ezkutuak, gauak eta egunak, oraingo munduak eta geroko biziak sortzen zizkion galdera sakonei emandako erantzuna”. (Satrustegi 2000: bideo-gida).

Don Jose Migelek dioskunez, Euskal Herriko sineste eta legenda mitikoen oinean jeinuak eta dibinitateak daude, animalia mota desberdinetako itxurak hartzen dituztenak, suge, ahuntz edo zaldi itxurak, eta uste denez zenbait haitzulotan bizi direnak.

Bada, gainera, zenbait kobaren barruan numen antropomorfo bat, emakumezkoa, batzuetan animalia forma hartzen duena edo gorputz atalen bat animaliek bezalakoa daukana, ahuntz hanka, sai erpak...: gure egunotan Mari deitzen dugu. Bestalde, ez da bizi bakardadean lurpeko egoitzan, lagun ditu akerren bat, jeinu multzo bat eta bahituren bat.

Euskal olinpoko beste zati bat uretako numenek, gauezkoek, landetakoek, airezkoek eta jeinu gaizkileek eta zerutiarrek betetzen dute.

Euskal mitologiak badu kultura indoeuromerikoko eragina, baita erromatarrarena ere. Gero, kristautasuna izan da aldagarrikerik indartsuena, aspaldiko mitoak aldeztu eta moldez aldatu dituena.

Gai batzuek, bestalde, eskualde jakinetara mugatzen dira, beste batzuk Euskal Herri osoan dira ezagun. “Lamien narrazioak Euskal Herri osoan agertzen diren neurrian mairuenak, osterak, leku gutxitan agertzen dira”. (Kaltzakorta, 1997: 43); Badira lehenagoko Akitania guztira zabalduak ere eta ez dira falta gurean oihartzun zolia duten mito iberiko, latino, germaniko edo nordikoak ere.

1.4. GURE LEKUKOAK

Minidiska –Iñaki Gaminde- eta bideokamara –Esther Elgoibar- eskuetan hurreratu garenean, batzuetan “Ele egokiak erabiltzen ditu supazterreko kontalariak entzuleen biltzeko, eta ulertzera ematen du bera izan zela abenturaren heroia. Nahiz eta aitari aditu dion, eta hark bere aitaitari”. (Euskaratua: Xaho 1979: 260 in Anuntxi Arana 2004:10)

Beste batzuetan ikusi egin du lekukoak: “Mari Urrika. Hori ikusita gagoz, e? (...) Eta harek be ikusi eban eta Euban, erreka parean baju, baju, bajuan eta barrero Zarratxutik, baina honantza ja jakina gero mendiak be zertu euskun baina, neuk be ikusia dago, badago, e!”. (“Mari Urrika”, Zornotza.)

Zenbat eta aitaita amamengana hurreratuago, herri ipuinen aberastasun handiagoa aurkitu dugu. Halanda guzti, sorgin, lamia nahiz jentilen artean dihardugunean, zertan gabiltzan ulertu nahi badugu, aintzat hartu beharko dugu Xabier Kaltzakortak dioskuna: “Ipuinak egotea da bat, eta pentsaera majikoa beste bat”. (Xabier Kaltzakorta 1997:14).

Gure lekukoak pentsaera magikoan bizi dira, itsaso magikoaren uretan arnasa hartzeko zakatzak dituzte, eurentzat ipuinak izaki biziak dira, ipuinetako pertsonaiak ere biziak direlako: lamiak, sorginak, iritxoak, jentilak eta beste, ipuinetan bizi dira, edo, ipuinetarako isuria edo arreta duen edonorengan.

1.5. IPUINETAKO EGITURA ETA DENBORA

Bilduma honetako ipuinak irakurtzean, berehala konturatzen gara istorio berak bertsio bat baino gehiago duela, gertaera bera azaltzeko kontalari bakoitzak bere era daukala. Hala Bakioko “Gizona goruetan” eta Markinako “Katua berbetan”. Edoze-

lan ere, kasu batzuetan ez da erraza muga ezartzea, jakitea noiz garen ipuin beraren aldakiaren aurrean eta noiz hasten garen beste batera sartzen.

Berriemaileen jokaera ere desberdina izaten da. Batzuek zehatz mehatz kontatzen dute arterik heldu zaiena; beste batzuk askatasun handiz erabiltzen dute eurei iritsi zaiena, aldakuntza nahiko handiak gehituz.

Hemengo berriemaileek kontatzen dituzten ipuinetarik batzuk ez dira hain aspaldi kokatzen, ezen zenbait, narratzaileei eurei gertatu zaizkie, Mungiako “Arimak” testuan ikus dezakegunez. Gurasoei edo aitaita-amamei entzun dietela ere azaltzen digute: “Nik sorginak jantzan egiten dabenik ez, baina horreek mantodunak amari entzuten neutsan”, esaten da Fruizeko “Ermitan jantzan” deritzanean. Halatsu Bermeoko Jentilak izenekoan: “... ze nik aitita bat eduki dot, larogeita laugaz hil zana, eta esaten eban harek, Bermeon egon zirala jentilak”.

Beste testu batzuk arteragoko sasoietan kokatzen dira: “Ze esaten eben antxina bat joan zala ba hor goian, eta esaten ebala ba...”. (Jatabe, “Sasi guztien azpitik”). Antzera, Dimako “Laminen itxurea” testuan: “Galantak izaten ei ziran sorginak”.

1.6. SORGINEN ORDUAK ETA LEKUAK

Gaueko orduetan ekiten eutsien sorginek, Abemarietatik Albakora bitartean, iluntzetik oilarraren kukurrukuak uxatu arte. “Akerlanda eduki eban harek landatxu harek izena. Gauez gauez egiten ei eben han batzarra sorginek”. (Arteaga, “Sorginen bidaiak”). “Albakoak jotakoan, hareek kanpoan ibiltzerik ez dagoala”. (Nabarniz, “Gauekoen erretiratzea”).

Halako testuak entzunda, ”Eguzkiak uxatu ohi dituen izaki mitikoek itzala eta ilunpea maite dituztela pentsa daiteke. Hots, eguzkitan laketzen dira askotan, paradoxa bada ere. Orozkon, zuloetan bizi baina egun argian ibiltzen ziran laminak beren oihaleria zabaltzen edo eguzkitan orrazten”. (Arana 2004: 22).

Honetan gertatzen dena da, mitoek bikoiztasuneko joera dutela eta haietan ugarriak direla argia eta iluna batzen dituzten pertsonaiak.

Ipuinetako pertsonaia batzuk pertsonengandik hur bizi dira, lamiak, esate baterako, herri inguruetako eremuetan ibiltzen dira; Marik, aldiz, zerua zeharkatzen du;

Basajauna artzain txabola inguruetako eremuetan ibiltzen da janari bila. “Beste bat kontetan eban, laminak egon zirala hamen Ogoñon”. (Elantxobe, “Ogoñoko laminak”).

1.7. KRISTAUTASUNA ETA PAGANOTASUNA

“Europa guztira bezala Euskal Herrira ekarria izan den kristianismoak antzinako erlijioari eremua irabazi dio. Usu entzuten da prozesu horretan mitologia zaharreko pertsonaiak beren eite baikorra galduz joan eta onak izatetik gaiztoak izatera pasatu direla, Elizak deabruarekin identifikatu eta funtzio ezkorrek betearazi dizkielako, onen errolak dibinitate kristaudentzat atxikiz”. (Hartsuaga 1987a: 149).

Formulazio horiek faltsuak izan gabe, ez dute dena adierazten. Kristautasunak lamia-jentilak deabrutu dituela egia baldin bada, ez da gezurra Ama Birjina eta deabrua “lamia-jentildu” dituela paganismoak.

Erljio biak elkarren ondoan bizi izan dira mende luzeetan eta jendearen gogoan, aldi eta modu berean sinesten izan da zubiak egiten dituen deabruarengan zein Salbatoreko Saindiarengan, adibidez, bata jatorri kristaukoa delarik, bestea paganokoa”. (Arana 2003: 227). Parte txarrekoen aurkako borrokan erremedio zaharrekin batera –egunsentia eta oilarra- apaizak dira aholku emaile, edo San Martin bere hamabi misterioekin.

Dena dela, sinkretismoa izan bada ere, erlijio ordezkapena gertatu da azkenean, eta kristautasuna gailendu zaio mitologia autoktonoari.

“Eta gero, hemen, San Antonio dago hemen, Erandion edo, hor dago ermita bat San Antoniorena, hor bere pasetan zan, igeltseroak altzetan eben egunez, eta hurrengo egunean etorten ziranean ez eben topetan ezer, behera botata beti, eta gero esan eutsen, abaderen batek edo esan eutsen, oilarra eroateko hara, herri oilarra, herri oilarra da martian jaiokoa, martikoak izan behar dau herri oilarrak antza, eta ha eroateko, hara, joateko haregaz, eta gauean hamabiak jotzen dauanean, horrek kukurruku egingo deutsu, eta orduan joan ei ziran sorginak danak eta altxau ei eben eleizea, ezin altxau eleizarik, haori bere entzunda nago ni!”. (“Herri oilarra”, Jatabe)

1.8. ANBOTOKO ANDEREA ETA BASAJAUNA

Gure mitologiako pertsonaiarik gehienak kolektiboki eta pluralean azaltzen dira: lamiak, mairuak, jentilak...

Basajauna nortasun handiko pertsonaia da, singularrean izendatua, gehienetan, ezen Barandiaranek basajaunak terminoa baitarabil. Edonola ere, “Ezin da zalantzatan ezar, euskaldunen sineste zaharrean Basajauna gurtua izan dela” (Cerquand 1875: 251 in Arana 204:23).

Anbotoko Señorea da beti singularrean azaltzen den bakarra.

Anbotoko Señorea eta lamiak ez dira nahasten euskal mitologian, lehenari ez zaio lamina deitzen. Airean ibiltzen da goianderea, jendearengana hurbildu gabe, zeruko dibinitateek ohi duten urruntzeko joeragatik, beharbada. (Eliade 1975: 52). Goiko urari lotua da, euriari eta ekaitzari. Hortaz lurraren emankortasuna baldintzatzen du. Laminak, berriz, beheko uretan kokatzen dira, iturri eta erreketan. Eta gorago aipatu dugunez, desberdintasun funtsezkoa da lamiak pluralean agertzea eta Anbotoko Anderea beti singularrean.

Berez, Caro Barojak ohartarazi duen moduan, “Anbotoko Andereak sorginen anderea izateko ezaugarriak dauzka”. (Baroja 1966: 188).

Sorginak eta lamiak, bestalde, sarri nahasten dira euskal mitologian. Beraz, badute antzekotasuna ere, desberdinak izan arren. “Sorginak mundu honetako jendeak dira, jendeengandik sortu eta jendeen artean bizi direnak – “gu bezalakoak” esan genezake -, nahiz eta beste mundukoekiko harremanetatik heldu zaizkien ahal bereziak. Orokorki esan daiteke sorginak ez direla sortzen, bilakatzen baizik, nahiz eta sorgingoa herentzia gisa eskura dezaketen batzuek. Alderantziz, laminak beste mundukoak dira, jitez naturaz gainekoak”. (Arana 2004: 93). Beti ere, ukaezinak dira lamiek hilekin dituzten loturak, izaki mitiko gehienak bezala.

Sorginen artean bertan Barandiaranek bereizketa egiten du: batetik dira “brujas-genio”, beste mundukoak, gauez irrintzika ibiltzen direnak eta jendea eramaten dutenak; bestetik, “De carne y hueso” herrian ezagun diren pertsonak. (Barandiaran 1960: 87-88).

Lamietan, ordea, klase asko dira, eraikitzaileak eta bestetarikoak, handiak eta txikiak eta enparauak. “Ba, beherainoko ulea edukiten eban eta txikiak ei ziran, botilaren beste ingurukoak edo ez dakit ba zelakoak izan ziran”. (Fruizeko “Laminaren orrazia”).

1.9. GAUA GAUEZKOENTZAT

Badirudi -gogoan darabiltzagun jendeok- gauez debekatuak dituztela kanpoko jarduerak, beste mundukoen monopolioa bailiran, eta kondaira batzuetako laminek kanpoan dabilenari lelo ezaguna esaten diote: “Gaua gauezkoentzat eta eguna egunezkoentzako”. Hara Nabarnizen “Gauekoen erretiratzea” testuan: “Zera, albakoak jotakoan, hareek kanpoan ibiltzerik ez dagoala”. Ondarroan, “Laminak” ipuinean: “Bai, hori izan zan, ba, gizon bat, berandu ibiltzen zan eta errekea pasau behar izaten eban bere etxera joateko, eta jakina, etxeakoak-eta bildurretan-eta, andreak, gizonak, zer, erretiro txarrak-eta eukazala eta, beti bere bildurragaz. (...). Ba, erretiro txarrak-eta edukiten dituzu gauez, eta ezer pasau barik eta”. Larrabetzuko “Gaua gauezkoentzat” izenekoan: “Eta gizon bat, tza! guardasolpera sartu eta: “Gaua gauezkoentzako” esan eutsala eta bera arnasa barik lotu zala”.

Zubiak eta eraikinak ere gauezkoen eta egunezkoen artean banatzen dira. “Hau eleizea egin gura eben han behean. (...) Eta hareek egiten zituen beharrak, egunez egiten zituen beharrak, gauez agertuten zirala eta hurrengo egunean agertuten zirala orain eleizea dagoan lekuan. Hori sarri entzunda daukat”. (Leioa, “Eleizearen lekua”).

Argia da ardatza. “Goizargiarekin uztartuak diren elementuak, kanpaiak eta oilarra, adibidez, biziki baliosak dira txarrak menderatzeko”. (Arana 2004: 232).

Goizaldeko kanpai joak – albakoak - gauez herratzen diren guztien aurkako bertutea du, seguru asko egunak emana; oster, arratseko abemarien hotsek gauaren hasiera markatzen dute eta parte txarrekoiei aske ibiltzeko baimena ematen die. Ikusten denez, kanpaien eginkizun bera du oilarrak.

Ezkilak bertute bertsua bide du: “Sorgina ezin higitu izaten ei da matutea –albakoa- jo ezker”. (Azkue 1959: 379).

Eguneko argiaren ordea kandela edo ezkoa da eta oilarrari kantarazten dio parte txarrekoak garaitzeko.

1.10. SORGINEN AURKAKO KRUDELKERIA

Akelarreak errito irudikatuak dirateke, ez praktikatuak. Haien deskripzioak kondaira mitikoak dira, ez historikoak, eta ez dugu arrazoirik pentsatzeko benetako gertakarietan oinarrituak direnik. Eta gertatuak bezala kontatzen baitira mitoak, haien sinestetik datorke akelarreak egiazki egin izan direlako ustea.

Ahozko transmisioan laster pasatzen da “urliak kontatzen zuen” esatetik “urliari gertatu zitzaion” esatera. Batzuk “niri gertatu zitzaidan” esateraino joaten dira. Oso litekeena da torturatuak, aitortzera behartua denean, bere bizkar ezartzea beste norbaitek ustez egin duena, hau da, bere burua mito baten protagonista egitea”.

“Ilusioaren teoria San Agustinen testu batetik dator. Horixe izan zen Goi Erdi Aroko teologoen artean zabalduena. Gero, XVI. gizaldian, bai elizakoek nahiz epaile laikoek errealitatetzat hartu zuten. Dramatikoa da bira horrek suposatu zuen atzerakada. Areago kontuan hartzen bada, IX. mendean, Focio Patriarkak, Patrás-eko Lucio-ren liburuko (...) irakurketan egineko oharrean dioena: “Luciok benetan sinesten zuen metamorfosietan, gizon batzuk beste gizon batzuk bihurtzean edo animaliak gizaki edo alderantziz, edo holako txotxolokerietan edo antzinakoen esamesetan. IX. mendean atsokeria substantziabakotzat hartzen zenak, pertsona asko hilarazi zituen 1609an”. (Itzulpena, Caro Baroja 1982:17,18). Atzenean, zenbat mito aberatseko atsotsu hil zituzten magistratu jakintsuek!

Zorigaitzak naturalak edo txiripazkoak izan daitezkeela onartzen ez duen jendarte batean, galera larri, errekorrente eta kolektiboan gertatzen direnean, izu bilakatzen da sorginen ohiko beldurra, eta sorginik ez bada, edozein talde baztertutan bilatzen da aker pekatzailea, judu, legendun edo beste”. (Delumeau 1978:131-134 in Arana:112). Jauntxoak eta eliza, beren aldetik, ez ziren besoak uztarturik egon, alderantziz, herri-tarrak xaxatu zituzten herritarren ezbeharren erantzuleak sorginak zirela aldarrikatuz. Gero, auzitegietan sorginek egiten zituzten aitortenak torturaren ondorio izan direla ez da zalantza handirik, batez ere, Pierre Lancre-k idatzi zuenean: “Catherine de Barrendeguyk zeinek torturan eta suplizioan aitortu zuen 1610eko irailaren 3an, ezen...”. (Itzulpena. Lancre 2004: 354).

Bestalde, “Gaur egunean, arlo honetako ikertzaileen artean iritzirik zabalduena da, Europan gertatu ziren sorginkeria prozesuak XVII. gizaldian, erabili zirela aparatu judiziala sendotzeko, estatu mugak finkatzeko eta, oro har, estatuaren aparatu zentralizatuagoa lortzeko”. (Azurmendi 1993: 178). Caro Barojak ere gai erlijiosotzat hartzen den sorginkerian alde politikoari begiratu beharra ikusten du.

1.11. SORGINEN ESALDIAK ETA LAMIENAK

Hitzaren indarra unibertsala da eta guk badugu hori azaltzen digun esaldia: “Izena duenak izana du”. Euskararen izaeran sorginek eta lamiek-eta indar handiko esamoldeak ekarri dizkigute.

“Badago, gure uste apalean, gora handia duen lamien hizkeran berezitasun bat: kutsu zaharrekoa izatea. Adierazi nahi duguna da lamiek erabiltzen duten zenbait “esaldi egin” hizkuntzaren estadio zaharrago bati dagozkionak direla.

Estadio zahar honetan adizki zahar kutsukoak erabiliko lirateke, edo, nahiago bada, zaharragoak bai behintzat eta hitzak ere “esaldi egin” horietarik aparte nekez edo inoiz erabiltzen ez direnak. Jakina, direlako “esaldi egin horiek” formula rimatuak dira “Andre Garazi, ekatzu nire orrazi...” edo esaldi eginak”. (Kaltzakorta 1997: 41).

Guk esaldi ederren lorategi antologikotik zenbait adibide dakartzagu hona:

1.- “Sasi guztien gainetik eta hedoi guztien azpitik”, Jatabeko “Sasi guztien azpitik testuan aurkitzen duguna nahiz Webster-ek bilduko kondairetan ere topa dezakeguna. (1993 II:41 in Arana 2004: 103)

2.- Bakioko “Gizona goruetan” testuan daukaguna:

“Bizarra mosuan eta gorutan”?

“Katua izanda berbetan”?

3.- Markinako “Katua berbetan”:

“Bizarra eta guruetan?”

“Katua izanda berbetan?”

Ohartuko ginenez, ahozko berbetaren bizitzan, lekurik lekura ezinbesteko aldaerak dituzte.

4.- Elantxobeko “Sorginak ezagutu” ipuinean:

“Zuk koipetsu eta nik akatsu”.

Edo herri berbereko “Sorgin herria” deritzanean:

“Mila pobre haren beste sorgin sare”.

5.- Lamienetan ere hizkuntzaren jenioa oparo eskaintzen zaigu:

“Hor atzetik datorrenari lakio!”.

“Bai, bere emazte onak ipinita ez baleukaz boskotxa eta apio!”.

6.- Abadiñoko “Laminearen madarikazinoan”:

“Mañasi, Mañasi, emoidazu buruko orrazi, emoten ez badeustazu, laster dozu egin garrasi”.

Eta horren aldaera dena Zeanurin:

“Lanbreabeko etxeanderea! Non daukazu nire orrazia?”

Edo Orozkoko bertsioa:

“Juan de Arandi, ekarri eizu nire orrazi, ezpabere laster izango da zure askazi”.

7.- Diman “Laminen itxurea” testuan honelaxe diote:

“Txuri gora! Txuri gora!”

Eta horren aldaera Zolloko “Lamina esnezaleak” ipuinekoa:

“Txuria gora! Txuria gora! Txuria gora!”.

Azkenik, Larrabetzuko ipuinean aurkituko dugu:

“Gaua gauezkoentzako”.

Perpaus hauek aldean duten karga semantikoak baliabide anizkoitzak eskaintzen dizkio hiztunari nahiz idazleari.

1.12. AHOZKO TESTU IDATZIAK

“Bizkaian zehar kontetan” ikas materialeko ipuinok entzun egiten dira – eta ikusi - eta irakurri. Beraz, oina, funtsa hiztunaren hitzetik datorkigu, kontraeratik, jakituriatik.

Hori horrela, irakasleek nahiz ikasleek aintzat hartu beharko lukete ahozkoaren eta idatziaren arteko desberdintasuna. Ahozko berbetan, esate baterako, denborak eta memoriaren mugak diskurtso guztia baldintzatzen du. Testuotan ideia bera

behin baino gehiagotan errepikatzen da, esandakoa ahaztu delako edo pentsatzeko beta hartu delako. “Genobeba bialtzen dabe basamortura, basamortura...”. (Lekeitio, “Genobeba de Brabante”); “Ba, Jentila, Peru ibili ei zan, kriadu egon ei zan Peru...”. (Jatabe, “Peru Jentila”) “Eta han zera, han zera egoten zan...(Axangiz, “Bide lapurrak”). Guk halakoetan hiztunak esan duena bere horretan laga dugu ahozkoan du jatorria eta, eta idatzirako bizkaiera literarioa hartu dugu.

Azken baten, gaur eguneko baliabide teknikoei esker –bideokamara, minidiska, ordenagailua- lekukoak esana berbaz berba jaso dugu. Azkuek, aldiz, hauxe diosku: “Lenengo ipuinaren azkenera-orduko ezagutu nuen aren buruko agittoia ta nik orduan esakera bat burutu-arte itxaron ta gero euskeraz josita banan banan papereratzen nituen”. (Azkue 1966: 19)

1.13. IPUIN HAUEK CURRICULUMEAN: EUROPAR DIMENTSIOA

Europa berri honetan, ikasleak geure nortasun eta identitatetik abiatuta hezi behar ditugu, munduko hiritar euskaldun izan daitezen eta izan ere Europar Batasunaren proiektu barruan.

Horretarako, hemengo ipuingintza europagintzako parametroetan landu dugu, ezen ohartzen baikara europar dimentsioa beste edozertan baino errazago koka genezakeela mitologian.

Ugariak dira, esaterako Frantzian, lamiek egineko dolmenak eta eraikuntzak eta gure ipuinetan ere maiz aurkitzen dugu zelan herritarrek leku baten egin gura duten eta lamiek beste leku baten. Euskal Herrian, ordea, jentilek egin dituzte cromlechak, jentil baratzak ere deitzen direnak edo elizak. (Satrustegi 1980: 141-147)

Bestalde, azeriaren hiru egiak – gure ipuinetan Jatabeko “Lukiaren egiak”-sarritan agertzen dira bilduma klasikoetan (Webster 1887: 42-45; Azkue 1966: 414; Barandiaran 1961: 132). Ba, Eskandinabiatik Greziara zabaldua da Europan, baita Turkian, Arabian, Indian, Indonesian... Esopok ere kontatu zuen eta Frantziako bertsioak oso ugariak dira. (Arana 2004:15)

Seinalatuagoak dira urteko data batzuk, Europa osoan garrantzitsuak, batez ere, Jondone Joaneko gaua (Caro Baroja 1975: 270). Gure “Bizkaian zehar kontetan” honetan, Axangizeko “Sorginak uxatzekoa” testuan dakar: “Ba, sorginentzat, ba,

sorginak botateko, ba, horixe egiten zan, San Juaneko suak izaten ziran, sorginentzako zera, eta nik beti esaten neutsan amomari hamengo etxean:

“Amoma, baina zergaitik halako suak eta zerak eta?”

“Sorginentzako, sorginak eskapau dagien”.

1.14. EUSKAL IDENTITATEA ETA SORGINEN GAURKOTASUNA

“Halloween”eko mamuengatik esaten da Europatik Amerikara joan zirela eta gero handik hona itzuli zaizkigula. Baina hori ez da hola. Kuia bat hustuz egiten diren maskarak bertokoak dira, horiekin irteten dute gazteek edo umeeek Domusainduko gauean hilen itxurak hartzen eta Europa osoan ere hilen irudia da kuia hustua.

Bestalde, lamiek egiten dituzten eraikin miresgarriak, Aladinoren ipuinean azaltzen direla gogorarazten du Cerquand-ek (1986: 108 in Arana 2004: 75)

Azkue jakitunak diosku, “Ipuin bat irakurgai –legenda- izaten noiz eta nola eta zertatik hasten den igartea gauza oso gaitza delako...” (Azkue 1966: 8), bera ez doala klasifikaziorik egiten. Guk adibide eredugarria dugu Lekeitioko “Motxuneneko kabrea”. Batetik, kontalariaren garaikidea da, gertaera, anekdota; bestetik, ipuin izatetik legenda izatera irits daiteke.

Edozelan ere, pasadizo bikaina da, gaurkotasun osokoa, haserrea sortzen denean, ezin konpondua denean erabiltzeko: “Ea bertan pasatzen den Motxuneneko kabrearena!”.

1.15. EDUKIAREN SAILKAPENA

CDaren “index” izeneko fitxeroan sakatuta abiatuko da erabiltzailea hartan zehar. Lehenbiziko orria “Eskualdeak” deritzona da. Bertan egonez gero, aukera desberdinak daude aurrera egiteko. Mapan aukeratu ditugun eskualdeak kolore desberdinez agertzen dira; eskualdeok Uribe Kosta, Mungialdea, Busturialdea, Lea-Artibai, Txorierri, Durangaldea, Hego Uribe eta Arratia dira. Mapan bertan saka daiteke gura den eskualdera joateko edo, osterantzean, maparen azpiko botoietan eskualde bakoitzaren izenaren bidez leku batera joango litzateke.

Eskualdeen bidea aukeratzen bada, eskualde bakoitzeko maparen ondoan bertan aukeratu diren herriak agertzen dira botoi banarekin. Botoi horien bitartez herri bakoitzaren orrira heltzen da. Bertan herri horretan jaso diren ipuin guztiak aurkituko ditu erabiltzaileak. Denetara berrogei herri dira hemen agertzen direnak; eskualdeen arabera, ondoko hauek dira:

Uribe Kosta: Berango, Jatabe, Sopela.

Mungialdea: Mungia, Meñaka, Bakio, Fika, Fruiz, Arrieta.

Busturialdea: Errigoiti, Muxika, Axangiz, Arteaga, Elantxobe, Nabarniz, Bermeo.

Lea-Artibai: Lekeitio, Amoroto, Aulestia, Markina, Etxebarria, Ondarroa.

Durangaldea: Zornotza, Abadiño, Atxondo, Elorrio, Zaldibar.

Arratia: Galdakao, Dima, Zeberio, Zeanuri, Ubide.

Hego Uribe: Zollo, Etxebarri, Orozko, Bilbo.

Txorierrri: Leioa, Loiu, Zamudio, Larrabetzu.

Materialen artean zaluago mugitu ahal izateko aurkibide bi erabil daitezke: Ipuinak gaika eta Ipuinak herrika. Ipuinetako gaiak honakook dira:

Sorginak, Anbotoko Mari, Laminak –Diosku Xabier Kaltzakortak: “Harrigarriena dateke, gure ustez, gaur eguneko euskara standard-ean lamia hitza gehiagotan erabiltzea lamina baino. Zeren euskalki guztiak kontutan hartzen baditugu hedatuago baitago lamina hitza lamia delakoa baino (Kaltzakorta 1997: 35). Jentilak, Iritxoak, Arimak, erlijiozkoak, Begizkoa, Peru eta Mari, Pertsonaiak, Lapurrak, Animaliak, Iretargia, Pasadizoak.

Ugarienak sorginen ipuinak dira: 49; urrienak iritxoena: bat; Anbotoko Mari-rena: 11; Laminenak: 15; Jentilenak: 6; Arimean: 12; Erlijiozkoak: 5; Begizkoak: 3; Peru eta Mari: 15; Pertsonaiak: 3; Lapurren: 8; Animalienak: 8; Iretargiaz: 2; Pasadizoak: 12. Guztira: 150era heltzen dira.

Testuez gain, Jarduerak eta Hiztegia ere agertzen dira. Hamar jarduera mota aukeratu ditugu egin litezkeen guztien artean: Itaun-erantzunak; Entzun eta kontatu; Entzun eta idatzi; Ikusi eta kontatu; Irakurri eta kontatu; Amaiera eman; Euskara baituan idatzi; Bete hutsuneak; Sinonimoa eman; Berba aukeratu.

Azkenik, hiztegiaren laguntza behar izanez gero, gure ipuinetan ilunxka izan daitezkeen berba guztiak paratu ditugu. Bertan sarrerako hitzaren ondoan ezaugarri gramatikalak, landareen eta animalien izen zientifikoak, hitzen jatorria batzuetan, adibidea, sinonimoa eta antonimoa ematen dira. Berben adierak euskaraz definiturik agertzen dira.

2.

EDUKIAK

Atal honetara CDan ematen ditugun ipuin guztien testuak ekarri ditugu. Testuok Herrika agertuko dira eskualdearen barruan. Horretarako Bizkaia zortzi eskualdetan banatu dugu: Uribe Kosta, Mungialdea, Busturialdea, Lea-Artibai, Durangaldea, Arratia, Hego Uribe eta Txorierri.

2.1. URIBE KOSTA

Eskualde honetako hiru herritan batu ditugun testuak dakartzagu: Berango, Sope-la eta Jatabe. Denetara 20 testu ematen ditugu.

2.1.1. Berango

Sorginak urten

Sorginena, bai Txarminen hor goian urteten ebela eta holako jeneroak bai.

- Non esan dozu?

- Txarminen, Txarmine esaten eutsen horko mendi bateri, eta hor esaten eustan ja umetxu nazala, akordau naz horko zahar batek esaten eustan ze:

- Zu okerra bazara, ba Txarmineko sorginak urtengo deutsue.

Sorginak jantzan

- Bai, entzun dodaz horreek bere, sorginen gauzak baina, nik ez dodaz sekula, horreeri emon, mentu handirik.
- Baina zer entzuten zan?
- Ba urten egiten ebela eta han Torreko landan han goian bere egoten zirala sorginak, eta han egiten ebela jantzan, gauean, eta horreek, baina ez dodaz sekula ikusi.

2.1.2. Jatabe

Beste mundukoak erabili

Lehen kontau genduana, lehen kontau genduana guk, eta ilunde baten, ba antza gero etxerantza, abiau zan Urondotik, eta etxera ezin ailegau, eta falta etxean eta hurrengo goizean, Bilabason topau ei eban burua, baina horreek izaten dira, gero esaten eban ba beste mundukoak erabili dabela.

Sasi guztien azpitik (I)

Antxina, antxinako denporan, honeek gure moduko zaharrak, orain bere egoten dira eta ibili ezinik eta, lotzen dira ba erreumakaz eta, zaharren bat etxean egon zala zaharra, eta kriadu bat eduki dabe, etxean, kriadu, eta kriaduak, beti egoten zan zaharra, han inok ibili behar izaten eban, eta gauean, zure zahar hori, holako orio bategaz igusi, gorputzean, eta tximiniatik gora urten, ta landara joan zan, han berak enbreak ondo esan eban:

- Sasi guztien ganetik eta hedoi guztien azpitik. - Eta kriaduak bardin egin, baina sasi guztien azpitik, eta urratu urratu eginda gero honen etxean ikusi.

Sasi guztien azpitik (II)

Ze esaten eben antxina bat joan zala ba hor goian, eta esan ebala ba:

- Ene! hori haor doa, sorginakana, honen lantzarrera, han alkartuten dira eta, eta neuk bere atzean segidu behar deusat hurrengo egun baten - Ba, eta esan ei eban ze:
- Hedoi guztien azpitik eta sasi guztien ganetik. - Eta besteak esan ei eban atzera:
- Sasi guztien azpitik eta hedoi guztien ganetik. - Apurtuta:
- Nondik ibili zara? Zer egin dozu? - Etxean esaten ei eutsien, apurtuta etorri zan dana eta.

Peru eta Jentila

Ba, Jentila, Peru ibili ei zan, kriadu egon ei zan Peru, eta lekuren baten, eta beti kontrara egiten ei eutsan zerak, beharrak ugazabari, eta ezin ei eban, beragazkorik egin, ugazabak, eta batean, joan, batera, eta ardi guztiak ekarri, eta holako beharrak egiten ei eutsan, ardiak jagoten joan eta etxera ekarri egiten ei eutsazan beharbada, joan, mahastira, eta mahastian jagoteko esan, eta mahatsak guztiak atara, eta batzen ei eutsazan, eta:

- Enei! Peru zer egin deustazu ba? - Eta:
- Zeuk ez deustazu agindu ba? - Ugazabari eta:
- Honegaz ezin dot, nik gauza onik egin ba - Gero, jentila egon ei zan abade zaharren bat, lehenago jentila deituten ei eutsien, eta harek menperatuta ei ebazan danak, eta:
- Karta bat eroan behar deustazu ba, jentilari - Jentila egon ei zan hatara eta:
- Baina ni hara joaten banaz...

- Ez, ez kartearen erroaten.
- Tira ba! - Joan ei zara Peru hori ba, bildurrez baina, joan ei zara ba, eta atea jo
eutsanean:
- Nor da? - Eta:
- Peru - Eta:
- Zer dakarzu ba? - Eta:
- Zeure ugazabak emon deuste hau karta hau - Eta, karta hori irakurri ebanean, ba
han egon ei ziran han kopletan ba, bata bestea, eta esan ei eutsan:
- Hemen lotu behar dozu.
- Baina ugazabak.
- Ez, ez, ugazaba trankil edukiko dozu, egon behar dozu hemen, biok egingo gara.
- Eta jentil horrek, menperatu gura ei eban zeozelan ba, Peru hori, baina ezin
sartu ei eban, eta batera joan eta kontrako beharra egiten ei eutsan han bere, eta
bestera joan eta, kontrako beharra egiten ei eutsan, mahastira joan eta han ma-
hastian bere bardin egiten ei eutsan, eta gero, ardiak bere, ba danak etxera ekar-
ten ei eutsazan, jagoteko esan eta etxera ekarri, zera, ugazabari egiten eutsan
moduan, oraintxe akordau ei jakon, baina hara joan zanean, eraztuna sartu ei
eutsan, eraztun bat sartu ei eutsan, jentilak Peruri, hara, gau haretan, eta oraintxe
ba, akordau ei jakon jentil horrerri:
- Zer edo zer egin behar deustat honeri ba. - Eta ardiak, banan-banan, pasetako
beraren izterpetik, esan ei eutsan, eta zer egin eban? Ardi narru bat egon ei zara,
non edo non, gortan edo, non edo non eduki eban eta ipini, ardi narru ganetik,
eta izter bitartetik pasau ei jakon, Peru eta, eta narruari tiratuta, jentila joan,
aurrera ei zara, edo jentila, Peru, Peru aurrera, eta atzean segidu ei eutsan jentil
zahar horrek, Peruk errekarra saltau egin eban, eta:
- Hemen noa, hemen noa, hemen noa - Esaten ei eban zerak, eraztunak, eta uretara
saltau ebanean, jentilak bere hara saltau, eta han ito ei zara, eta Peruk urten ei
eban.

Sorginak erabili

Girrintzak eta dirala eta, nire osabeari pasau jakon, joan zan Gorlizera, eta han idiak itxita etorri zan, idiakaz joan zan hara laietan, eta etorri zanean, gaua edo, ilundu egin jakon, baina farolagaz etorri zan, eta etorri zan, Gorliztik, baina Gorliztik hortik goitik, hortik goitik basora, Andrakara urteteko, Andrakara etorteko, Andrakakoa izan zan eta, eta ez eban topetan alanbradurak baino, alanbradurak baina danak pasetan ebazan, eta alanbradurak eta danak pasau, eta Lemoizera ailegau zan, eta Lemoizen kanpak egin eutsan, eta jo Lemoizen, esan ei eban, pentsau eizu zelan egongo zan:

- Niri sorginak ibili jataz, gauean. - Negar egiten eban, e? Eguno ez eban egingo, negar eta negar egiten eban.
- Sorginak gauean ibili jataz.
- Zer ba? - eta:
- Alanbradurarik alanbradurara ibili naz eta Lemoizeraino ailegau naz. - Esaten eban.

Katu baltza

Katua ba, ohean kasu baterako zu egon eta katua, katua dabil etxean, katu baltza, eta gero ohera zoazenean ondoan parau egiten da gero hori katu baltza, e? Eta hori pertsona da, eta gero egunez katu baltza dabilzu etxean, eta katu baltzik, bat bere ez genduan edukiten, danak garbituten genduazan, bildurragaz gero.

Lapurrak urten

- Plentziara joaten zan bendejeagaz, bai, gero han Andraka Zabaletan koiuten eban, mendia, Unparara joateko, eta han urten behar eutsien eta dirua kendu eutsien eta gero, eta gero ikaragaz luzaro egon zan ez dakit.
- Ikara ez, familia bere galdu eban harek.

Lukito eta Otsoto

Lukito, eta Otsoto batera bizi ei ziran, eta Lukito ba entzutea edukiko dozu, ba zuhurra lukia, eta Otsoto ba koitadua behargina eta, behargina ba Otsoto, eta, tranparik ez, eta Lukik dana tranpea, eta egunen baten joan ei ziran auzoko etxe batera afaritan eta, seguru bere ba, iretargi ederra egon ei zan.

- Ene! hau da iretargi ederra! - Ha opila dagoala han uretan eta - Pozik eta:

- Otsoto!

- Hau, honeek urak danak, edaten badozuz horixe opila koiuko dogu - Eta ez dakit zer eta badakit nor eta, hasi ei zan Otsoto ura edaten, eta tripaz handituta, eta ezin joan ei zan auzoko etxera afaritan, eta ura dariola parau ei zan, eta Luki zuhurra izan eta Lukik, bera joan ei zan bakarrik, eta hurrengo goizean, ba:

- Bai, zuk egin deustazu hau niri bere, bata egingo dodala eta bestea egingo dodala, zeu joan zara jaten, horixe egiten deustazu niri - Aitak kontetan euskuzan horreek, e?

Herri Oilarra

Eta gero, hemen, San Antonio dago hemen, Erandion edo, hor dago ermita bat San Antoniorena, hor bere pasetan zan, igeltseroak altzetan eben egunez, eta hurrengo egunean etorten ziranean ez eben topetan ezer, behera botata beti, eta gero esan eutsen, abaderen batek edo esan eutsen, oilarra eroateko hara, herri oilarra, herri oilarra da martian jaiokoa, martikoak izan behar dau herri oilarrak antza, eta ha eroateko, hara, joateko hagaz, eta gauean hamabiak jotzen dauanean, horrek kukurruku egingo deustazu, eta orduan joan ei ziran sorginak danak eta altzau ei eben eleizea, ezin altzau eleizarik, haori bere entzunda nago ni!

Garrikoa narras

Antxina bere egon egiten ziran, gure aita bere ikara itzela hartuta egoten zan, joaten zan, Armintzara ha bere joaten zan portura, portua egiten, ha egiten gure aita bere, eta goizean urtetan eban, ba bostak inguruan edo, oinez joaten zan eta, baina atzean nor edo nor, eta atzean nor edo nor.

- Gaur hartuko dodan laseko ikararik! - Esaten, atzean sarra-sarra, sarra-sarra asmetan, eta atzera adituten bildur, aurrera! Sarra-sarra, sarra-sarra!
- Ttio! oraintxe bizi edo hil! Oraintxe aditu behar dot - Eta aditu eta garrikoa narraz!

Peru eta Mari

Peru eta Mari joan ziran ba Urkiolara, ze hantxe datoz, San Antonioak, eta San Antonio egunean ba Urkiolara, eta Urkiolara gora ailegetan dagozala, ailegetan dagozala, euriak emon eutsien, eta Peruk, brusa koiu, eta burura bota eban, eta Mariak bere koiu gonak eta, burutik, eta gora eta gora eta jente guztiak Pepari adituten eutsan, Mariri, eta aditu eta aditu, eta gora ailegau ziranean dinotso gizonari ba:

- Zergaitik adituten deust niri horrenbeste jenteak ba?
- Ene! Eperdia agirian zatoz eta
- Zergatik ez deustazu lehenago esan ba? - Eta.
- Pormesa daukazula eta.

Antzonekoa

Antzonekorena zera da, Antzonekon etorri jakozan giputzak, Antzonekok, indartsua zan, eta Antzonekori etorri jakozan ba, giputzak, entzunda zelan indartsua dan eta, ehizan, eta txakurrakaz eta ehizan eta eskopeteagaz, idiakaz ibili zan exaten, exea da, badakizu? Exea ba, exabarrak egiten, artoa edo ereiteko, Antzoneko, eta txitxakar egin eutsien, giputzak, Antzonen itauna egin eutsien, eta:

- Ha beheko etxea da - Esan eutsien Antzonekok, eta eskopeteari holan puntatik oratuta, eta:
- Ha behekoa? - Esan eutsan holan eskopeteagaz, eta:
- Itxaron apur baten! - Esan eutsan besteak, atara ganaduak exatik, exeari puntatik oratuta:
- Ha behekoa da! - Exeagaz.

Eguen guren eguneko antzarrak

Eta honeri sarri esaten deusat, gure aititari pasau jakola, nire amoma joan zala, beraren alabakaz edo eleizara, eguen santu egunean, eta aitita lotu zan etxean, eta iditxuak eduki zituan ba, eta oraingo urtean bere, hilean hogeian edo hogeita batean dalakoa daukat eta apirilean, apirilean antxina laietan ibiltzen zan, artotarako eta asko egin behar izaten zan eta, hemen solo txiker bat akaburengo dagoala akordau jakon beno:

- Ez daukan legez zerik, laiatu egin behar dot hauxe soloa - Aro ona egon ei zan eta, baina eguen santua izan zan, eta antzarrak edukiten zituan amak, neuk bere ezagutu dodaz, e? Antzarrak edukiten genduazan guk eta halaseko arrautza egiten eben hareek, eta antzarrak hasi zanean laietan, lurraren harrak batzen ezin lotu, ezin lotu, antzarrak beragana joanda, eta akabuan hasarre jaurtiten ei deutse akulua, eta antzar bateri batetik bestera trabesau egin eutsan akulua, eta antzarrak eta akulua trabesau, hegaz etxera ekarri akulu eta konturatu zala dino, aititak esaten ei eban:
- Honek etxera joateko esan deust - Eta hartu idiak eta etxera etorri zala, eta gehi-go berak ez daukala egin eguen santu arratsaldean, eta barikuan bere ez beharrik.

Lukiaren egiak

Luki ba, Lukirenak kontuak asko dagoz, Laiden hemendiko alderdian ez da egon lukirik, handiko alderditik egoten ziran, eta orduan ba Lukik, hemendiko alderdira pasau egin gura izan eban, Lagara, botean, eta dirurik ez pagetako, eta boteroari bere esaten eutsan pasetako eta pasetako, hemendikora ze hemendiko aldean lukirik ez dagoala eta ondo bizitzeko bera, eta ez daukala dirurik eta boteroak ez eban pasau, eta hiru egia, esango eutsazan Lukik, kontauko deutsozala, pasetan badau:

- Ba! - Bat botera igoten dauanean, kontauko deutsal, eta bestea bide erdian, eta bestea beste kaian:
- Beno sartu! – Sartu zan eta, esan eutsan:
- Inoren ama ama ona da, baina norberarena dan baino ona ez - Esan eutsan sartu zanean, eta erdian esan eutsan:
- Iretargia argia da baina eguzkia baino argia ez. - Eta beste kaira ailegau zanean esan eutsan:
- Praka zaharrak daukazak, baina nire moduko porteak pasetan badozak aurrera segiduko dozak, fraka zaharrakaz.

Iretargiaren espilak

Ba hori lehenago esaten zan, gu txikerrak izan ginanean, lapurretan joan zala gizonen bat, auzoko zera, otarik ez etxean neguan, eta ganaduei azpiak ipinteko otarik ez, eta auzoko tejobanara, zotzardea hartuta, eta iretargiak urten ei eban, iretargiak ba urteten dau ba, segun ha zelan dagoan han, ezta? Eta iretargiak urten, eta iretargiak emon eutsan:

- Eta iretargi kabroi hori ez balego! - Eta, orduan iretargiak hartu eta gora eroan eban, eta orain ikusten da, hori txikerretan aitak erakusten euskun:
- Aditu zelan dagoan ha, lapurretan joan ezkerro zer pasetan dan - E? Zotzardeagaz gizon bat bardin-bardin edukiten dau, gizon bat dago han, aditu osterantzean iretargi bete argi dagoanean, zotzardea, ota zera, eta zotzardea eta gizon bat, zutunik, zotzardea oteagaz, ezagun-ezagun dago.

2.1.3. Sopela

Begizkoa kentzen

Beno hori begizkoanaz da, beruna eta estainoa, eta horreek urtuten dira zarten baten, zarten zaharra edo dana, ezta? Eta gero, urtuten diranean, horreek, ba gaixoa dagoan lekuan, botaten dira, hiru kurtze egin, errezuko kontua da, e? Errezuko kontua dana, hiru kurtze egin, eta abe maria bat errezau, eta hara palanganara, ona ez badauka hori segun trazea, hori ez badauka segun trazea, urteten dau bihotzak argi, eta badauka, hori dana zabaldu egiten da, eta gero, ba hiru bider egin hori, eta kentzen ez bada emoten jako anilaren, estrenabako anilaren urtxua, eta ha beruna eduki dauan urtxuagaz aniltxua sartu eta ha edaten.

Begizkoa egiten

Begizkoanaz gura izanak bere egiten ei dau seguru bere, pertsonari gura, angeru bateri gustau, eta begizkoanaz egiten ei jako, horreek jeneroak abadeak ez leiz entzun bere egin, e? Baina antxina izeko Mari eta badakizu zelan ibilten ziran, eta hori entzuten neutsen nik gure gurasoei.

2.2. MUNGIALDEA

Eskualde honetako testuak Mungian, Meñakan, Bakion, Fikan, Fruizen eta Arrietan batu ditugu; denetara 26 dira.

2.2.1. Mungia

Arimak

Nik esango deutsut beste kasu bat, kasualidadez gaur dira berrogeita, zortzi urte, hil zala, andra bat, nigaz eduki eban tratu bat eginda, idiakaz labretako nik solo bi, eta arto ereiten eixeagaz lagunduteko, eta emon eustan hamen berton, bedarleku saila bat, eta, solo bueltak, sasia egiten hasita eduki zituan dana, hareek garbitu, hareetako bedarra aprobetxetako, eta gure etxea bere ba, ez zan lur askotarikoa, eta beharri-zana, eta hartu neutsan, urte birako izateko, baina labrantzea urte baterako, labrau soloak, ereiteko moduan ipini eta, eixeagaz erein, urte batean, eta urte bian bedarrak aprobetxetako, beno, zehatz-zehatz ipini nituan munak eta, labrantzea ailegau baino lehenago, eta behingoan goizetian munea, bedarra etorri zan eta, ebagi neban, sasiari eta indarra hartzeko leku barik, zehatz-zehatz eginda eta, korte bi ederrak aprobetxau nituan eta lantzarrak bere bai, urtea akabau zanean eta berak uztea koiu ebanean, esan eustan ze:

- Beno, Teodoro, orain beste urte beterako emongo deutsudaz gura badozuz - Barrian labrantzea egiteko:
- Ez oker zagoz - Esan neutsan:
- Zer ba?
- Urte birako izan da bedarrak aprobetxatea, nik horreek sasiak danak garbitu, eta zer gura dozu orain? e? nik aprobetxau dodanagaitik, garbi-garbi eginda solo bazterrak eta ezkinak danak itxi - Esan neutsan:
- Neuk behar danik aprobetxau barik ez.
- Hori ez deustaz u egingo!
- Zeuk ez deustazu egingo niri. - Esan neutsan
- Nik aprobetxauko dot hori danen ganetik, ze ni egiagaz bizi izan naz beti, nik ez dot gura ez danik, eta, zer da kasua? - Eta aprobetxau neban, gaur dira berrogeita zortzi urte hil zala, eta eduki neban, soloan, erremolatxea, eta indabea ereinda alkarregaz, nahastean, indabea kendu, goizetiko indaba txikerra zan, alogereko

bat eduki neban, beharrean, andreagaz eta batzen, eta iluntzean, indabak ezkinara botata egon ziran, eta ganadua ipinita joan nintzan, indaben bila, astoagaz, eta astoak libertade guztia eduki eban indaba pilotik jatea orduan, eta astoa kargetan nagoala, da! Egin eban astoak holan, gora, jateari bere itxi eutsan, eta adi adi adi parau zan, eta zer da eta, ez ziran egon, berrogei, berrogeita bost metro pertsonaren itxuran distiratsu-distiratsu-distiratsu, eta harek egin eustan niri artean, ni gogortu naiakonean, alabea eduki eban hor behean gero, lastimaz hil jakon baina, etorri eta albotik pasau, eta berbarik egin barik joan da, hil zan, eta hirugarren egunean, ha hilda, agertu jatan nirean, eta asto hori neu be kargetan, ni aurrera eta:

- Zer da astoa? Otsoa ez bada garaitekoan, dominauko dogu besterik ez badator
- Adituten dot eta, disdiratsu-disdiratsu, pertsonaren altuerea inguru, neuri agertukoa da, dardakadan etorri nintzan hona etxe ondorarte bere, eta geldi geldi geldi eta halan bueltetan zan segun ni honantza zelan natorren.

Laminearen orrazia

Inpernu erreka bai, bai, bai, hor jentilak, jentilak laminak egoten ei ziran bai, muna ganean orraztuten eta, urregorritzko orraziagaz orraztuten, egoten ziran hor, eta inor datorrenean putzura jausten ei ziran, putzura, eta gero, ha gizona, pasau ei zan handik eta urregorritzko orrazia topau ei eban, eta ha urregorritzko orrazia topau eban etxera eroan eban, baina gauetan urteten ei eutsan, ai zelan da?

- Hori orrazitxua, han itxiten ez badozu gortako beheitxua, onena eroango deusut
- Nik, zer edo zer holan da, eta ez ei eutsan egin kasurik eta gero ostera bere bigarrenean bere, eta hirugarrenean, hirugarren gauean ja itxi egin ei eutsan orrazia eta badago! Han akabau zan.

Lukia eta Otsoa

Lukiak ikusten ebala, iretargia, eta jakina putzuan beraren gerizea, eta Juan Otso eta Lukia pentsetan dot izan zirala, eta Juan Otsori esan eutsala:

- E! Haori ura edaten badozu, han talo beroa daukazu, taloa jango dozu - Esaten eutsala eta:

- Bai eta nok edan hori dana? - Eta:

- Bai gizona! Edan eizu! Edan eizu! - Eta, hasi zala Juan Otso hori edaten, edan eta edan ura, eta edan eta edan ura eta, aizu ba, noz edo noz edan eban, baina edan ebanean, eskapau egin eutsan, taloak eskapau eutsan, eta gero jakina! Tripea holan eduki eban, eta txizalarri eduki ei eban gero, harek bota egin behar zituan barrutik hareek danak eta, eta egon ei ziran, galtzu joten, gari joten egon ei ziran han, auzoko etxe baten, ja garia jo, eta pilotu gariak, eta ja gero ba euren parrandatxua egiten, ba euren afaritxua jaten ba, behar eginda ostean, eta hantxe akordau ei jakon Juan Otsori txiza egiten paratea, eta parau egin zan txiza egiten, eta jakina! Hainbeste txiz egiten eban ze, airean, zera gariak guztiak korriduten joan ei ziran eta, Otsotek esaten ebala:

- Maria horrek daroa garia!

2.2.2. Meñaka

Arimak

Eta gero beste baten, gogoan daukat neuk, daukat sinestea, eduki, aita defuntua hil, neu soloan nabilala hil zan, etxera baino lehenago, bestealdekoa etorri jatan, eta:

- Jose! - Eta:

- Zer? - Eta:

- Etorri egin behar da ba, aita hil da eta - Beno etxera, gero etorri nintzan bizartegian barberua egiten neban nik ba eta, barberutik etxera, eta begien aurrean plast! Joan dan modu-modu-moduko zera, jazki grisagaz, agertu jatan estratza zahar ilunean, plau! Indarka nagoala, estratzara bota nenduan, Jesus Maria eta Jose! Eta etorri nintzan holan, eta aurrera, eta aurretik aurretik aurretik aurretik etorri jatan, patina dago hortxe, tapauta orain egongo da, kaminoa egin zanean gorantza, eta urak orain bere urteten dau hor, hortxe berton.

Luki eduki genduan txakurtxu bat edo Sorki izena eukan txakurtxu bat eduki genduan eta rrau! Urten eutsan txakurrak, eta bestea uuu! Holantxe bueltau, eta hantxe harriaren ganean lotu eta sartu nintzan etxearen barruan, hori ez jat ahaztuten inoz, egin bere ez jat egingo, hori neuri pasaukoa.

Sorginak jantzan

Lehenago han Santa Anako ondoan, han zelaian sorginak jantzan egiten ei eben, ene! Bai eta paraje pasau eta adituta, ahuntza parau, haor haor haor berton, haor berton, sorginak.

Lamineak segidu

Lehenago holakoak asko egoten ziran baina, haan neu bizi izan nazen Zabaleko etxeak berezia dauka, eduki eban harek eta, orain bere han dauka, geure, neure osabea, mutila, ezkonbakoa, han, lamineak segidu eutsan, atzetik, andra bat esaten eban, zuri zuririk, atzean, ulea orpoetarainokoa, eta arin segitzen izan deutsalara atzean, esaten eban, eta ikaratuta egon zan gizona, a? Ez zan ha makala izan baina, nire osabea ez zan makala izan baina ondo ikaratuta egon zan, e? Lamineak segidu eutsalara atzean eta, lamineak segidu eutsalara atzean eta, lehenago holako zaratak asko egoten ziran.

Jentilak

- Urteten eben jentilak.
- Gurdian artoak hartuta errotara, bat harantza eta bestea honantza, eta topez egin eben eta biak parau ziran teman, zeinek ea, pasoa itxi behar dauan, eta jentil hori handik pasau edo zertu zala eta, teman dagozala:
- Zeri tema gizonak? Orain hemen ez dozue temarik behar - Ra! Oratu gurdia, eta ra! Ipinia ebalan alboan, eta ra! Oratu idi buztarria eta ra! Alboan, eta pasau.

2.2.3. Bakio

Gizona goruetan

Egon zan familia bat, gizona marinela eduki eben biboteduna, eta beno, ba libre edukiten ebanean, libre edo oporrak edo, ez dakit egoten baziran orduan baina dana dala, kontau holan egiten eben, eta zerean gorutan egiten ei eban gizon horrek, eta bentanara etorri jakon katua eta esan:

- Ene! Bizarra mosuan eta gorutan? - Besteak bartzuna hartu:
- Katua izanda berbetan? - Eginda, bota ei eutsan, hankea apurtu ei eutsan, joan zan katu hori dandarrez, hankea apurtuta, hurrengo egunean kanpora urten ebanean:
- Ene! Urlia, zer pasetan jatzu ba?
- Zeuk dakizu! - Esan ei eutsan eta bestealdeko atsoa izan ei zan katua.

Miru eta Txistu lapurrak

Lapurren kontua nik entzun dodana ba, Miru, eta Txistu, eta besteak ez dakit zelan eduki eban, hiru izan ziran, aurki hemen ibiltzen ziran halaseko errosariak honainokoak, tirri-tirrin-tirrin esaten eban nire aitak, eta umeak guztiak eskapetan eben:

- Haor dator Miru! Haor dator Miru! - Eta abiadaka etxera ikusten ebezanean, eta egun baten, gizon batek, zorra izan eutsan beste bateri, eta harek besteak, ba esaten eutsan beno:
- Pagau egin behar deustazu haonen egunetan.
- Baina ez daukat eta zelan emongo deutsut ba? - Eta:
- Ba, pagau egin behar deustazu. - Eta behartu egiten eban, eta jakin eban hori, Larrabetzukoa izan zalakoa daukat Miru, eta horrek jakin eban, eta etorri jakon horrerri gizonari eta esan eutsan

- Dirua eskatu deutsu zuri urliak, ezta? - Eta:

- Bai!

- Ba ez larritu, neuk emongo deutsut dirua.

- Baina zelan nik ez daukat eta zelan pagau?

- Ba neuk emongo deutsut, eta neuk esaten dodanean egingo deutsazu pagau - Eta, joan eta pagau ei eutsan, eta etxera joan ei zan pagauta.

- Beno orain ez deutsut zorrik - Eta Miru joan eta ra! Kendu eutsan dirua, hareri, eta lotu zan diru barik.

Peru eta Mari (I)

Bai beste behin be esan eutsala:

- Peru jagon esnea, e! Urteten dauanean kontuz, e! - Eta ateetan egon ei zan ba makila bategaz eskapau ez daian, esneak eskapau ez daian.

Peru eta Mari (II)

Mariak esan Peruri:

- Peru! Peru honantza zatozenezan atea ekarri - Zarratu ba eta, besteak hartu lepoan eta eroan ei eban andrearen atzean.

Peru eta Mari (III)

Semea hil jaken, kaxa baten ipini eta joan ziran enterretan, eta gaua egin jaken, eta arbola baten ganera igon eben eta han kaxa eta guzti, eta azpian, etorri ziran morroiak, lapurrak antza, eta etorrita, esaten eutsan Peruk Mariari:

- Oi! Txizalari naz - Eta txiza egin eban, eta lapurrak esan eben:
- Ene! Jaungoikoaren, zerutik jatorku zera orioa - Eta ene! Eta bestea:
- Holan ez dot aguantetan ba! - Eta Peruk zer egin eutsen akabuan? Kaxea bota behera, lapurrak guztiak hor doaz abiadaka, dirua koiuta eduki eben han kontetako, arbolapean, ene lapurrok, baina, Peruk egin ebanean kaxea bota, ba ikaratu egin ziran, infernukoak datozala eta, bajatu ziran behera, bajatu zan Peru behera eta han lapurrak bat baino ez zan lotu bildurragaz dirua zertu barik, eta han lotu zan eta:
- Tira! Hemen orain, kontuak
- Zer ba? - Ba dirua norentzako izateko, ba gehien ez dakit zer egiten dauana izan zan, harexentzako lotuko da dirua, eta Peru bera lotu zan diruagaz.

Arimak

Beste bat bere San Juanera joaten ei zan, eta txakurra ahausi eta ahausi, eta:

- Otxa, otxa, otxa, otxa! - Txakurraren ugazabak, egiten ei eutsan arima horri, eta, baina jakina gizonak ez eban jakiten arimea dan ala zer dan, txakurra ahau-sika eta, eta egunen batean atea jo ei eutsan, eta:
- Nor da? - Eta:
- Neu naz, lagundu eidazu San Juanera - Eta beno:
- Lagunduko deusut - Eta San Juanera ailegau ziranean esan ei eutsan ez gehiagotan txakurra otxa otxa egiteko, ze ha nor zan, arima bat, pertonearen itxureagaz eta arimea, ez egiteko gehiago txakurra otxa otxa bota gauean handik pasetan dirane, ze izan leitekela arima bat penetan dagoana eta promesa betetan doana.

2.2.4. Fika

Sorginak erabilikoa

Eta beno ba, Mundakako andra horregaz egon tabernan eta joan zan eta beno ba:

- Ikusiko dozu ba zelan osatuko jatzun ja, eta egizu horixe beharra eta ez dozu gehiago etorri beharrik edukiko, zuk trankil segidu horixe egiten eta osatuko jatzu. - Eta, berak handik urten ebanean pozik dino ba:

- Oraintxe dominauko zaitut zu, zure gauzak esan deustazuzanak, ba neuk dominauko dodaz oraintxe - Ba pentsau eban aitak, pentsamentua bakarrik, esan ezer be ez! Urten ebala dino tabernatik, eta Sollubeko, Sollubetik oinez orduan, Mundakatik edo, Mundakatik hona oinez, basorik baso Arrietatik, eta ibili eta ibili, eta ibili eta ibili eta ibili eta ibili eta inoz ailegau ez etxera, eta ja, kantzau be ez! E? Eta ibili eta ibili esaten eban aitak, eta ibili eta ibili, baina non dagoanik ezin argitu, non dagoan, eta erreka ezkina baten, ura korrientetxua dagoan erreka ezkina baten, jesarrita parau zala, zigarro bat, erreten hantxe parau zala, eta adi ezkina guztietara eta, inor eta ezer agiri ez eta inok ez eutsan ezer egiten baina, ezin ailegau etxera eta ezin igarri non dagoan, eta esan eutsala hantxe erreka ezkinean zigarrotxua erretan dagoala esan eutsala:

- Niri, Jaungoikoak ez ete deust emongo entendimentua, non nagoan jakiteko?
- Holantxe gora adi parauta esan ebala:

- Ez ete deust emongo entendimentua non nagoan jakiteko! - Eta zeinda laino ilun bat pasetea moduan ra! Argitasuna etorten jakola, eta taka-taka-taka! Handik gora, etxera.

2.2.5. Fruiz

Tximiniako harribolak

Beno hemen Fikan, etxe batek, etxe batek Larrauri izena daukana dago, eta hor, ba zaratak handiak izaten ei ziran, zeinda harribolak tximiniatik behera jausten ziran moduan, eta jentea ba, gauetan eta joan eta hori, neure ahiztea egon zan Fikan ezkon-duta eta, harexen denporan, joan zanen inguruan izan zan, eta harribolarik ez zala ikusten, eta zaratak itzelak eta, jente asko gaubelara joanda gauean, eta berak, enbreak edo antza esaten eutsiela:

- Ez ikaratu, ez ikaratu, ez da ezer eta, ez ikaratu. - Baina gero, bizi dira oraindi-nokarren, haren semeak, hareri alto egin eutsien semeak bizi dira, beno, hare-exen aita sakristaua izan zan, eta horreekaz zaratakaz ba jente guztia ikaratuta eta gero enbra hori, gelara sartu, eta horrek sakristau horrek Joane, Joane eduki eban izena, horrek, atzean segidu, eta atzean segidu eutsanean, orduan eduki zituan aurki eskuetan, piztiok edo trasteok izan ziranok, eta orduan gero, partea emon eutsien abadeari edo, eta komentu batera eroan eben enbrea, eta komentu baten kendu eutsiezan.

Sorginak atzez

- Zelan da, zelan esan dau?
- Liburua, meza liburua badakizu
- Bai, entzun dot hori be, atzez urten behar izaten dauala.
- Bai, ezta?
- Sorginak atzez, urten behar.

Laminearen orrazia

Ba beherainoko ulea edukiten eben eta txikiak ei ziran botilaren beste ingurukoak edo ez dakit ba zelakoak izan ziran, ni txikitxu izan nintzan eta, eta han iturrian orraztu, eta bertan itxi orrazia ahaztuta, eta ha izan zan legez, herri bidea albotik, basoetarako estratzea esaten jakona, hurrengo aldian ba gizon bat joan ganaduakaz gurdiagaz, eta ura edaten joan eta ha orrazia topau han, han ikusi, eta gixajoak orrazia koiu eta etxera eroan, eta gero barrian joan zanean urten ei eutsan lamineak, esan eutsan:

- Niri ekarten ez badeustazu intzuzko orrazia, neuk kenduko deusut aurrean daroazun behi txikia. - Eta eroan egin eutsala, orrazia.

Ermitan jantzan

Nik, sorginak jantzan egiten dabenik ez baina horreek mantodunak amari entzuten neuntsan ermitan egiten ebela jantzan, lehenengo orazinoa goizeko, ordu bietatik aurrerantza, erreskadak joaten zirala.

Iritxoak

Iritxoak gure amak be sarri esaten eban iritxoak hau eta iritxoak hori, eta nik ez dakit ba zer diran ez dakit ez dodaz ikusi eta.

- Baina zer kontetan eban berak?
- Ba, holan, mutilak edo, lotu ezinekoak edo, okerrak edo, iditxoak daukaz horrek, esaten eban, horixe, horixe entzuten neutsan.

Iretargiaren espilak

Lehenago azpigarria ostuten ebala gizonen batek, azpigarria ostu eta azpigarria ostu, eta azpigarria, gaur ez da behar azpigarririk be baina orduan behar izaten zan eta, eta gero, zer edo zer orduan pasau jakon gizon horrerri, iretargiak espila atara ebala.

Sorgina zan katua

Eta hor Gamizen, tabernatik etxera joan zan gizon bat, eta oraindino Jeobako lekukoak etorten diranak lehengoan esan dabe geurean, eta hori anekdotea aitak esanda neuk be, eta, katua miau eta miau eta miau! Aurrean, eta emon eutsan aurki ostikadea, gizon horrek katuari, eta hurrengo egunean, beste aldeko enbrea besoa apurtuta.

2.2.6. Arrieta

Laminen orrazia

Laminak, putzuan, uretan, laminak egoten ei ziran, eta gero inor ikusten dabenean uretara salto, eta gure izekoak esaten eben, baten, ba andra batek, urrezko orraziagaz orraztuten egon ei zan, laminea, eta orrazia itxi eta uretara salto, eta gero besteak han orrazia koiu eta etxera ekarri, eta gauez bentanea jo ei eutsan, eta:

- Ekarri eizu nire orrazia, ezpabere galduko deusut, soloko gariteria. - Esaten ei eutsan eta orrazia emon, horreek bai!

Afrikan hilekoaren arimea

Orain, esango deusut neuk be, gure amak, niri nebea hil jatan ba Afrikan hil zan, itsasoan ibili zan eta, hil zan, eta ekarri eben hona enterretako, handik zortzi egunera edo holan, esaten dau amak, agertu egin ei jakon atean, esaten dau baina bera, e! Ha bera izan zan, dino, eta:

- Ama ilun dago hamen - Esan eutsala, hori amak, oraindino bizi da, e?
- Ama ilun dago hamen.
- Ilun dago Juan Luis? Zer pasetan jatzu ba? - Eta hori esan eta eskapau egin eutsala.

- Ai! Ha mutila ez dago ondo - Eta gure amak mezea esan, eta gero atean, kanpoko atean, hori Sagrado Corazón bat eduki eban, eta han argitxu bat ipini, harexeri Juan Luiseri, Juan Luis izan zan, argi egiteko, eta ha etxe zaharrean, oraintxe etxe barria egin artean ha argia hantxe egon da, e! Orain kendu dabe.

Atautea altzau ezinik

Hara! Esango deusut neure aitak esanekoa eta ikusikoa, han, hau bizi dan lekuan baino beheragoan etxe barria han Bizkarre badakizu zuk, han atauteak josten zituezan, atautek arotz batek, eta ataute lau mutilek ekarri dabe, eta ha badakizu, Patxoren, ortuaren kontran, ha landatxua, intxaurra egon zanean egon nintzanean, ez dakit orain badago, eta, esan dabe mutilak, neure aitak ikusikoa da hori, e? Neure aita egon da bertan eta, aita solteru egon zan, e? Txorieneko bat hil zan, eta:

- Bera barruan balego be, laster mogiduko joagu enbriori eta. - Berba txarto egin eben, beragaitik andreagaitik, ze oilo lapurra izan zala andrea eta, oilo lapurra eta:
- Bera barruan bajagok be laster eroango joagu eta - Berba gure aita defuntuak esan eban egin ebela beraren lagunak, oratu deusie atauteari, ezin mogidu, ezin mogidu! Altzau ezin, eta:
- Zer pasetan jakuk? - Eta mutilak txapela kenduta, triste eta errezetan hasi ei ziran:
- Ez jaroaguk, zer pasau da? - Eurek esan daben berbeagaitik, eta errezetan, gure aitak esaten eban errezetan:
- Neuk ikusi dot neure begiakaz hori, neure lagunakaz, auzo lagunakaz. - Eta errezetan hasi eta oratu geuntsan atauteari eta altzau egin genduan.

Jentilak

Jentilak, horreek etorten zirala, nozik behin, edo lantzean etxe batera edo sartzen zirala, baina handiak izaten ei ziran! Eta umeak be eta danak ikaratu, eta gure izekoak, hareek izan ziran, mojak izan be egin ziran, e? Eta hareek esaten eben kurtzea erakutsi ezketino, eskapau egiten ebela, baina atzez, e? Bueltea emon barik, atzez urtetan ei eben atzera.

Sorginen orraztokia

Lantzean andra bat egoten ei zan, sorgin antzekoa, eta harek edukiten ei zituan orraztokiak, han barruan orratzak, edukiten zituala, baina hareek antza, horreek izaten ziran, txarto ikusiak, hori orratza daukiena baina sorginak izaten zirala.

2.3. BUSTURIALDEA

28 izan dira eskualde honetan batu ditugun testuak. Herriak Errigoitia, Muxika, Axangiz, Arteaga, Elantxobe, Nabarniz eta Bermeo dira.

2.3.1. Errigoitia

Txindorra

Txindorra esaten eben ba, zera, Jesuseri aurpegia garbituteko, lagundu ei eutsien horreek, ez dakit zein aingeruri, ba txindorrek lagundu ei eutsien, txepetxak, txepetxak egin ei eutsan, kaka edo buruan edo, ezta? Eta txindorrek garbitu eutsala, garbituten lagundu eutsala eta horregaitik, eta zerak dira, e? Txori, errespetokoak dira ze inok ez deutse hareeri egiten ezer.

Frailearen aupadea

Ez, noizik behinean, ba esaten dogu, antxina ba sermoietan, Errigoitin ba, esan ei eban, hau da Errigoititik Morgara joan ei zan eta sermoia egiten frailea Morgan, eta esan ei eban fraile horrek:

- Zenbat zaranetan, Anbotoko mendia sartuko ete litzake? Errigoitiar zikinik bada dago urten daiala kanpora, e!

- Handia bada baten! - Errigoitiarrek esan ei eutsien. - Zaran baten!

Mamuak urten

Gure aita defuntuak esaten eban, eurak joan zirala, nora esan eban ba? Hortixek Bilbotik albora, eta hantxe, ba eurak normal joan ei ziran, eta iluntze samartxua, etxera orduko egin ei jaken, iluntze samarra eta, ba berbetan, bera eta, Juanito edo ez dakit nor esaten eban, joan zirala, eta gero, atzenean, ba, enbrak edo Mungian edo hor, alkartu jakez enbra batzuk, eta:

- Zuek joan zaitetze aurrerantza - Esan deutsee enbrei:
- Gu atzetik joango gara eta - Ba besteak egin deutsee, atzetik barik, eurak aurreratu izara zuri handi banagaz, eta han aurrean parauta hareek urten eutsela eta hor joan ei ziran.

2.3.2. Bermeo

Jentilak

Jentilak entzunda daukat etxean neure gurasoak, ze nik aitita bat eduki dot, laro-geita laugaz hil zana, aitita bat, eta esaten eban harek, Bermeon egon zirala, Jentilak, eta pertsona batzuk etorten izan dirala beharbada, beste herri batetik eta:

- Urlia! Non bizi da berandia? - Izenagaz, eta edukiten ebela holako karro lako zer bat, eta berak Jentilak haolan oratu asteari berari, eta jesarrita ipini ha gizona eta berak eroan, taxis bat eroatea legez.

2.3.3. Muxika

Arimak

Ba bera gizona hil eta gero harek be esaten eban baze, ba eskilaran edukiten eba-la beti katua, buztanari eraginka ba, ba arimen, arimen zerean, txistua jotzen eutsala azpiran, eta beraren gizona izaten zala esaten eban, hara beheko erredera joan zala

egun baten, lehen erropak garbitzen ba hara beheko errekaraino kaminoa baino behe-
rantzago joan behar izaten zan, hemendik urik ez zan egon eta, eta han urten eutsala
izara, zuri bategaz, esaten ze ba:

- Ondo etorria zara edo ondo ikusia zara - Esan eutsala, harek, izara zuridunak
esaten eban.

2.3.4. Axangiz

Sorginen galerea

Baina nik daukat etxean ikusita nik daukat, zertuta hau etxearen azpiko guk soloa
erabilten gendua frantsesa dana, eta hamengo amomak eta esaten, egun baterik bes-
tera gauez dana zapalduta, sorginak gauez ibilita, dana baina zapalduta, solo guztia
eta zelako solo arloa dan hau, eta dana zapalduta eta sorginak, sorginak ibiltzen zirala,
sorginak, eta gero zer da kontua eta arma etorri zanean, sorginak akabau egin ziran,
bai sorginak akabau egin ziran, arma agertu zanean sorginak kitu!

Sorginak uxatzekoa

Ba sorginentzat, ba, sorginak botateko ba horixe, egiten zan, San Juanetako
suak izaten ziran, sorginentzako zera, eta nik beti esaten neutsan amomari hamengo
etxean:

- Amoma baina zergaitik holako suak eta zerean eta?
- Sorginentzako, sorginak eskapau daien - Eta gero gurean amak esaten eban gero
beti, hau etxe azpiko soloa be zelan agertu zan egun baten, dana, frantses guztia
dana zapalduta, dana, dana sorginak gauez ibilita.

Bide-lapurrak (I)

Ba nire osabeari pasau jakozan baten, nire osabea bizi zan Arratzun, eta txahala saldu eban, eta txahala saldu eban eta Uarkatik, Uarkan begiratzen dau atzera eta gizon bat ikusi eban, segiduten eutsala, eta segiduten eutsala, eta gizon bat, eta zer egin eban? Berak arinari emon, eta Arrandietako errotearen antzeko kurba baten, eta han, zera, han zera egoten zan, honeek ura joateko honeek, zera, kantarilak, kaminoaren azpitik, ezta? Eta harek zer egin eban? Jakin eban legez, bertatik joaten zala, ondo hango barria, zer egin eban? Kantarilapean sartu, ze gure osabeak dirua eroan eban txahala salduta eta, eta morroia atzean, hantxe topetan, eta goizean eguna argitu arte kantarilapean gure osabea egon zan.

Bide-lapurrak (II)

Ba egon egiten ziran lapurrak, edonon entzuten ziran, bateri esaten eban gure amamak, ba hementxe tratantea ezaguna, ez dakit nongoa izan zala, eta Kanpetxuko bateri esan ei eutsan:

- Bizia edo karterea! - Eskatu ei eutsan, eta besteak esan ei eutsan:
- Bizia amablea da, amablea, karterea emongo deusut - Eta ez, pistolea eduki eban eta emon eutsan tiro bi eta ezaguna.

Jokalaria

Eta Muxikan be ezagutu zan, esakunea egon zan beti, ba gizona bat falta izan zan, eta joko asuntuan diruan edo, eta irabazi egiten ei eban beti eta irabazi, eta etxera ez zan ailegau gero, sekula eta andrea beti esaten, eta, kaxa baten sartuta eduki eben gizona, hilda.

Hamaseiko gorria

Han Otatza handian, han Aulestian, han mendian gure amama, erropak garbitzen errekan, eta morroi bat etorri jakon, eta berba egiten eutsan hamengo modu barik giputz antzera edo, eta gure amamak esan ei eutsan:

- Entzun dozu andratxua - Esan eutsan - Zer pasau dan? Aulestian? - Eta:
- Bai, entzun dot, hamaseiko gorria ostuten dabelakoan, zortzikoa izan, eta andra-gizonak, andrea eta gizona eta umea hil, hamaseiko gorria ostuten dabelakoan
- Eta gure amamak esan egin:
- Enei! Ha be pertsona zatarra makala ez da izan, ha ume koitadua eta andra-gizonak hilteko.
- Baina hamaseiko gorria dalakoan - Edo esan ei eutsan berak, eta beragaz berbetan eta gero handik ordu bira, harrapau eben eta bera lapurra, Aulestiko plazan urkatu eben.

Piratak

Hamen piratak entzunda dagoz, entzun neban hemen, hori hatxa dagoana Mundakakoa? Beno Mundaka edo ez dakit nongoa dan hori hatxa? Hor egon ziran, zera frantziskotarren komentua egon zan, han erdian egon zan, eta gero esaten eben hor, urten egin behar ebela ze piraten barkua edo ez dakit zertzuk etorri, zer edo zer.

2.3.5. Arteaga

Txarria zan sorgina

Sorginak, sorginen kontua, haor, Kanalatik etxera ei etorren hamengo gizon bat Arteagako bat, eta hor, Argatxeko, kobearen ondoan, Argatxeko zera egon zan, harextia egon zan han eta, dana ardia, txarrikumea, ku ku ku! eta, hara kuzkurak jaten, eta bat beraren aurretik, aurretik, aurretik:

- Hauxe etxera eroan behar dot neugaz, inok be ez daki hau inok eroan dauana eta
- Beragaz luzaroan ekarri ei eban, txarritxu bat, eta, eskapetan hasi jakonean:
- Jesus! Zer pasetan da ba? - Eta desagertu jakon txarri hori, eta sorginak izan zirala, antxina Jesusen izena, Jesus eta ba aitearen eta egin ezker eta desagertu egiten ziran.

Sorginen bidaiak

Harek izena zelan eduki eban? Harek? Akerlanda! Eduki eban harek, landatxu horrek izena, gauez gauez egiten ei eben han batzarra, sorginak, ama-alabak izan ei ziran sorginak, joaten ei ziran Elantxobera, gauez-gauez, eta egiten ei eben bidaia Argentina, “Cada palada cien leguas” esaten ei eben, “Cada palada cien” eta, harek, sekula ez ei eban arrainik harrapetan, harek, barku edo, bote horrek, ibilten ziranak, eta:

- Honek zer dauka ba, eta? - Gau baten jagoten egon ziran sorginak eta, sorginak joaten ziralako ez eban harrapetan arrainik.

Urrez beteko idi narrua

- Behi narrua, bat bete bete beterik hamentxe, San Migelen ei dago.
- Hemen San Migeleko...
- Hori be esaten eben antxina esaten eben.
- Oizko mendian be bai, esaten dabe
- Haitik mendi guztietan.
- Idi narrua.
- Idi narrua.

- Hementxe.
- Esan egiten dabe, horreek kontuak.
- Baina, Sarrikoleak esaten ei eban, beraren terrenoan ez dagoala behintzat, berak dana egin dauala aztertu eta, han ez dagoala.

Peru eta Maria

Peru eta Maria ba, ume bat eduki ebela, eta umeak, holako bekokian edo ez dakit ba, holako zer bat, bekokian ala ez dakit ba hemen goian zan trukil bat, urten eutsan, eta hareri ba, zer egingo eutsien eta, burduntziagaz, zuloa egin behar jakola, haor, burduntziagaz zer egin eutsien zuluotu, eta umea il egin jaken, gero umea hartu eta enterretan joan ziran, baina kanposantua, urrun eduki eben eta, zer egin eben? Ate burdinazko bat topau eben han hurrean, eta arbola ganera igon eta ate burdinazkoa eta hantxe Maria eta Peru, eta umea hantxe enterretako hurrengo egunean segiduteko euren, enterramendurako, han dagozala, behean, lapurrak, etorri ziran eta, diruak kontetan baina eta eurak goian, eta ba Maria:

- Txizalarri naz - Esan eutsan, bere gizonak, ba:
- Egin hor behera - Hor egin eban txiza hori eta zeruko ezta dala ez zeruko ez dakit zer dala, kaka be egin eutsien, zeruko ezta dala eta, eta jaten lapurrek, ate burdinazkoa eduki ezinik egon ziran legez azkenean:
- Nik ezin dot gehiago ate hori eduki - Eta.
- Bota eizu ba! - Behean egoazan lapurrek, eta han lapurra, eskapau eben arrapalada guztian, etorri ziran atzera zer izan dan bat, zer izan dan dana ez eben jakin, zer pasau jaken, eta bat etorri zan susmeaten han ia zer pasau bada, esan eutsan baze, han egon ziran kontetan zeinek, Peruk esan eutsan baze lapur horrerri:
- Zeinen mihina luzeago! - Esan eutsan eta, ataraten egon zan mihina eta, bestek zer egin deutso? Aiztotxuagaz, ra! Mihina ebagi, mihinaren puntea, joan zan, eta ezin, mihina falta izan eban legez barbarik ezin egin, eta:
- Brimila eta brimila! - Esaten eutsen eta brimila eta, lagun asko zirala eta, diru guztiak eurentzako gelditu jakezan, Maria eta Peruri.

2.3.6. Elantxobe

Sorginak ezagutu

Eta beste baten be, beste bat esaten eban, han andra bat egon zala sorgina, eta goizean goizetik joan zanean, itsasora, gizon batek, ikusi ebala sorgin hori, bertako, bertako Elantxobeko sorgina, eta esan ei eutsan:

- Ez dozu esango ni hamen ikusi nozunik, ze esaten badozu galdu egingo zaitut eta. Besteak sorgina ikusi dauana bai, baina nor izan dan ez esan gura.

Ogoñoko lamina

Beste bat kontetan eban, laminak egon zirala hamen Ogoñon, pentsau zelako urteetako gauzak! Laminak egoten ziran, laminea zeri esaten eutsien? Bertan basoan hazinekoak edo jaio edo hazinekoak edo, kobetan edo, ba holakoxe zer edo zer, eta han, orain Karmen eta bizi diran lekuan, Karmen Altza bizi dana, han behean bizi ei zan, izena esaten eban berak andrearena, eta egon ei zan, zotzean ipinita, txorizoa erreten, eta etorri ei jakon laminea eta, barea, makilan berak be barea ipini:

- Zuk koipetsu eta nik akatsu, zuk koipetsu eta nik akatsu. Eta halako baten, ernegau eragin eutsanean, zer egin eutsan andreak? Burduntzia begitik sartu, horretarako esan ei eutsan lehenengo:
- Zelan daukazu zuk izena?
- Nik neuk. - Eta harek andreak nik neuk, eta joan ei zan begitik sartu burruntzia eta negarrez joan ei zan lamina hori etxera, eta ze:
- Nok egin deitsu ba? - Eta:
- Nik neuk.
- Heuk egin badon heuk osatu eina! - Egiten ei eutsan:
- Nok egin deitsu? - Eta:

- Nik neuk - Ze nik neuk esan eutsan izena eta:
- Zuk koipetsu eta nik akatsu - Eta ernegau eragin eutsanean besteak burrunzia sartu begitik, eta negarrez joan zanean eta:
- Nok egin deutsu? - Eta:
- Nik.
- Heuk egin badon heuk osatu eina!

Abadearen ama sorgina

Esaten eban beste bat be, abade batek eduki ebala ama sorgina, eta nok edo nok esan eutsala, joaten ei zan mezatara abadearen, mezea entzuten, beraren semearen mezea entzuten joaten zala, eta jentea sorgina dala eta, sorgina dala eta, berak pentsetan ei eban, esan eutsienez, ezin lei izan hori, baina itxiten baeban ebanjelioa zabalik, ezin urten izaten ei eban, eleizatik, sorgina izaten zana ezin urten, eta entzun eban legez hori beraren ama sorgina dala, zer egin deutsu? Ebanjelioa zabalik itxi, eta joan bera, eta ama, etxera ezin joan, ezin urten:

- Eta ama, zer egiten dozu etxera etorri barik?
- Egizu mesedea ha zerratutea. - Esan eutsala abadeari amak, abadeari esan eutsala, hau da ebanjelioa itxi eban legez zabalik, ezin urten izan eban eleizatik amak, sorgina izan zalako.

Zazpi ahunzkuma

Zazpi, zazpi ahunzkuma eduki ebazan ahuntzaldi baten, zazpi kuma eduki ebazan eta joaten zan erosketak egiten bera eta, hareek han egon ziran eta esan eutsen:

- Ez deutzazue irigiko aterik inori be gero, inori be ez! Ze azeria dabil hortik eta
- Azeria edo otsoa edo, izan zala eta:

- Ez ama ez deusagu irigiko inori aterik guk. - Eta etorri zan, jo eutsen atea eta:

- Nor da? - Eta badakizu amaren ahots suabea eta harena gogorra eta:

- Zueneko ama

- Gure ama ez zara zu, gure amak ez dauka holako ahotsik eta, zu ez zara gure ama. - Joan zan, ostera be jo eban atea eta, ez dakit zenbat arrautza jan ebazan oilotoki baten ahotsa finduteko, eta ostera be jo eban atea eta:

- Nor da? - Eta:

- Zueneko ama - Eta:

- Erakutsi hankea - Eta hankea baltza, ba:

- Zu ez zara gure ama, gure amak hanka zuria dauka baltza barik eta. - Joan zan atzera, sartu zan, errotara joan eta kaixan, eta etorri jatzu zuri-zuri eginda, eta tan-tan eta:

- Nor zara?

- Zueneko ama.

- Ikusi hankea eta atea irigi deusie, txikiena sartu zan erlojuan, beste guztiak jan ebazan, irentsi ebazan, gero ama etorri eta enei! Lo egon ei zan, zerean erre karen ondoan egon ei zan lo, eta han egin eutsan amak artaziakin egin ebagi tripea, eta danak bizirik saltau eta ha tripea harriz bete, eta harriz bete zanean josita egarria etorri, joan, edaten ura eta pisuagaz, blus! Barrura eta bertan ito.

Hamalau lapur

Hamalau lapur egon zirala eta aberats baten etxera sartu zirala, eta jakina! Bat izan zala txikitxuena, korrian txartoen egiten ebana eta jakina! Danak eskapau ebela eta ha txikia harrapau eben, eta orduan egin eutsien, horreek aberatsak mihina ebagi, horrerri txikiari, eta gero jakina! Harek barbarik ezin izan eban legez egin, beraren lagunakana joateko:

- Mirla, mirla, mirla! - Egiten ebala berba, eta orduan esan eben hareek:
- Ene! Milazak ei datoz geure atzean - Eurak beste lapurrak.
- Milazak datoz geure atzean!

Peru eta Mari (I)

Mariak esan eutsala Peruri ba, herrira joan behar dabela aldeatik ba errekaduak egiten, eta eduki ei eben upela, sagardauagaz, upela handia, laban ogiak egiten, eta txakurrak Listo izena, eta horra! Peruri etorri jakon gogoia sagardaua edateko, eta zer egin deutsu? Kendu tapoia eta edan sagardaua, eta gero tapoia ezin topau, tapoia ezin topau ebanean, Listori deitu eta Listoren buztana sartu, han, zarratuteko, baina hareri ahaztu jakon ha non itxi dauan, eta gero zer edo zetarako:

- Listo hona - Esan eutsanean, Listok urten eban handik eta sagardau guztia korriduta, Maria etorri eta, berak zer egin ei eban? Ogiak laban egon diranak danak, bertan putzuetan bota, eta Mariak esan eutsala:
- Ai Peru! Zu ez zara inon itxiteko gero, e? Ikusten dozu zertzuk beharrak egin deustazuzan? Sagardau upela hutsitu, ogiak guztiak hor - Egin eutsan - Beno, orain ez dakit zer egingo dogun, orduan goazen hemendik, goazen hemendik nonora joan behar dogu eta, eta ekarri hori ate hori honantz.

Besteak zer egin deutsu? Atara atea eta ipini lepoan atea, eta korridu, Maria aurretik eta Peru atzetik, halako baten:

- Peru bazatoz? - Eta, begiratu:

- Nora zatoz zu atea lepoan hartuta ba?
- Zuk ez deustazu esan honantz ekarteko?
- Bai, atea honantz itxiteko ez lepoan ekarteko.

Eta igon ei eben gaua egiteko arbola batera, eta han egon ei ziran euron, atea be goian arbolan, eta halako baten lapurrak, lapurrak etorri ei ziran, eta lapurrak diruak ezin kontauta hantxe, diruak kontetan, diruak kontetan, eta bestea koitadua, txakur txikirik be ez eta, hareeri, diruak kontetan, botaten deutse atea, eskapetan dabe lapurrak, danak eurentzako diruak eta bueltan etorri.

Peru eta Mari (II)

Nik ez dakit, beste baten, zopak, zuloa egin hamen eta umeari zopak sartu eutsazala Peruk, izan ziran ba biak, ezjakinak izaten danak eta umea eduki ebela, eta umeak ba gitxi jaten ebala, eta Peruk esan ei eutsan Mariari ba jan be eragin egin behar jako, eta orratzagaz zuloa egin, amamak kontetan ebazanak, buruan zuloa egin orratzagaz eta handik sartu zopak, kafesne zopak.

Sorgin herria

Sorginena izaten zan, Elantxobe sorgin herria dala baina ez zan izaten holan.

- Elantxobe zelan da? Mila pobre haren beste sorgin sare.

2.3.7. Nabarniz

Gauekoen erretiratzea

Antxina orain ez da egoten, zera, albakoak jotakoan, hareek kanpoan ibilterik ez dagoala, honeri entzunda nik.

- Norbera? Hareek ibilterik ez dagoala eta hareek ez egoala, edo arinago erretiretan zirala.

Lapurreta ahalegina

Familia bat, familia eduki ebela, eta auzoko andra bat joan zala bisitetan, ba umetxua ikusten dan moduan ba, joan zan behintzat, eta gero ba meriendea edo emon eutsan eta, ogia gustau jakon ogi zuri ederra eduki ei eben, eta haxe ogia pentsau ei eban baze, etxekoei erakusteko, hartu egin behar dauala apurtxu bat probetako, gorde egin behar dauala poltsikoan, eta gorde egin ei eban eta, zera, alztetan hasten ei zan eta ezin, etxera joateko sasoa danean, alztetan hasten ei zan eta, aulkitik eta, aulkitik altzau eta ezin altzau:

- Jesus! - Pentsetan ei eban, eta ostera be handik gerotxuago ba, kontuak esango zituan eta, eta ostera be alztetan eta ezin altzau, eta gero halakoren baten esan ei eutsien baze eurak:
- Zuk be gure gauza eduki - Gauza bat daukazu ba gordeta, igarri egiten eutsien:
- Eta horrexegaitik ezin zara joan etxera. - Eta:
- Bai - Esan eutsen:
- Hemen daukat - Esan ei eutsen, boltsikotik atara eta:
- Hemen daukat etxekoei erakusteko, hain da gozoa eta ederra eta probetako erakutsi. - Eta:
- Bai, hori itxi hor eta guk emongo deutsugu hori baino handiagoa - Esan ei eutsien:
- Hori baino ederragoa geuk emongo deutsugu - Eta gero esan eutsienean gero ederto etxera.

Sorgina ala katua?

Gaua izan zan, eta iluntzea, iluntzea etorri zanean, eta katua miau eta miau eta miau:

- Zer dok hori? - Pentsau neban neuk - Begiratu behar deusat ea zelakoa dan. - Katu nabartxu bat izan zan, eperdiaren ganean jarri eta miau eta miau eta:
- Zer da traste hau ba? - Sorgintsua dala esaten da ba ha be izango da sorgintsu bat, pentsau neban eta, katua ikusten neban bakarrik, besterik ez neban ezer ikusten, katua bakarrik eta eperdiaren ganean jarrita bera miauka, ba sorgintsua izan bakan ni begira zer dan sorgintsu hori eta, zer edo zer holakoxea izango da pentsau neban, eta, begira oster a be neu, ia zelakoa ete dan bai ze, nabartxua izan zan, ba, baina hau ez dala sorgina, eta katua zelan izango da ba? Sorgintsua bada.

Azeria, ardia eta azea

Izan ziran ba, azeria, ardia eta azea, erreka batetik bestera pasau behar ebazala, eta baxotxean banan-banan, erreka batetik bestera zelan pasau banan-banan azeria, ardia eta azea, bata bestea jan barik, batak bestea jan barik, izan zan hori, ba lehenengo ardia pentsetan dot pasetan dabela beste alderdira, ze azeriak azea ez dau jaten, gero hartuten dau, gero beste bidaian, azea, azea eroan beharko eban baina, azea eroango eban beste bueltara? Gero azea edo hartu, eta ardiaren ondora eroan, baina gero atzera ardia hartu, eta azeria dagoan lekura ekarri, gero azeria hartu, azea dagoan lekura, harek ez dauan legez jaten azea eta azkenengo bigarren, hirugarren edo laugarren bueltan ardia, hara, hori asmakizun bat zan hor.

2.4. LEA-ARTIBAI

20 izan dira eskualde honetan batu ditugun testuak. Herriak Lekeitio, Amoroto, Aulestia, Markina, Etxebarria eta Ondarroa dira.

2.4.1. Lekeitio

Amabirjinea

Ziran aita eta ama eta hiru neska, bai, eta egun baten bialdu eban amak, aitag egiten eban behar urrunean, eta bialdu eban amak armozuagaz aitagana neska zaharrena, eta joan zan eta topau eban Amabirjinea umeagaz bidean, esan eutsan ze emoteko, umea daukala, niño Jesus daukala goseagaz eta emoteko ba armozu piska bat, ai ez, ea nora doan, itaundu eutsan lehenengo eta aitagana esan eutsan, baina, eta gero esan eutsan:

- Emongo deustazu piskatxo bat umearentzako? - Eta:

- Ez, ez, ez, ze aitari eroan behar deustat - Eta:

- Non dago gure aita? Nondik joaten da eta hara?

- Haortik zehar daukazu kamino bal bal bal baltza, ez hortixik kamino ilun ilun ilun bat, eta topauko dozu ate baltza, eta gero hantxe jo atea.

Eta joan zan, joan eta joan eta joan eta jo eban atea eta urten eutsan deabruak tenedor handiagaz, eta sartu eutsan tenedora eta eroan eban galdarara barrura, hori aitag kontauta hori be, hori be, eta horrek ume horrek beti haxe, horixe gustetan jakon beti, eta gero, gero bigarren neskatxua bialdu eban, eta bigarrenari be bardin-bardin pasau jakon, gero hirugarrena txikinena, eta txikinenak emon eutsan, armozua Amabirjineari, eta orduan esan eutsan beno:

- Gure aita non dago beharrean ba?

- Begiratu hortik zehar, kamino argi argi argi bat topauko dozu, eta gero ate zuri zuri zuria, eta hantxe.

Eta joan zan eta urten eutsan San Pedrok, han, eta gero San Pedrok eroan eban barrura, zerura, eta han egoan aita, eta gero sartu eban hara eta hantxe egon zan, emon eutsazan hiru bola, ahizta biak han egozan infernuan, ez eutsielako emon hareri jatekorik, eta gero, esan eutsan baina:

- Ibili olgetan honeekin baina ez bota behera, e! - Baina jausi jakon infernura:

- San Pedro! - Hori erdara egiten euskun aitag - La bola se me ha caido al infierno. Ehun urte baino gehiago daukaz gero, eta San Pedrok esan eutsan beno, bajatu zan, hartu eban eta emon eutsan:

- Baina beste behin ez bota gero, e!

Eta beno ostera be jausi jakon eta bajatu zan San Pedro eta beno zoratu eragin eutsan, eta orduan San Pedrok zer egin eban hartu, baekian legez neskak hantxe dagozana ahiztak, harenak, hartu ebazan neska biak infernuan eta eroan ebazan zerura, eta hantxe egoten ginan eta lo, lotara sartzan ginanean kontetan euskuzan aitag horreexek ipuin biok.

Katalin sorgina

Honeek, seineruak deitzen deutsegu hamen, seineruak, izaten ziran honeek goizean itsasora joan ez joan, besegu denporan eta, hiru be bai eta bi be bai segun zeintzuk, eta honeek joaten ziran, baetozan kalerik kale euren txarrantxea ekarten eben eta katuren bat han hankartean edo harriagaz jo katu hori eta hurrengo egunean Katalin itsu dagoala begia dana handituta, eta esaten eben, susmoa, hau sorginen bat edo dalakoxea, eta gero arrantzaleak ba atara eben euren joko hori ba zelan katua egin eben eta, atzenean ba Katalin, katua zana ba sorgina zala.

Neska mutilxu bi

Neska-mutilxu bi ziran eta aita eta ama, bai horixe be bai, polita! Eta gero, pobre-pobre-pobre ziran, eta jakina eukien hori, egiten eben, aitag egiten eban egurra, txikitu eta gero saldu, eta gero egun baten ama gaixotu egin zan, eta gero aitag gelditu egin behar izan eban eta bialdu ebazan neska-mutilak, mendira, ekarten egurra, eta

zer egin eban neskatxuak? Ogi zatitxu bat hartu eta mamina botaten-botaten-botaten joan, gero bidea topetako, baina txoriak dana jan, eta gero galdu egin ziran mendian, eta halakoren baten ikusi eben hantxe urrun-urrunean argi bat dagoala eta:

- Ene! Argia dago hantxe!

Eta joan ziran, eta halakoren baten atea jo eben, jo eben eta urten eutsen sorginak, esan eutsen ze beno:

- Ai galdu egin gara!

Eta hori, ai eta nebea, txokolatezkoa zan etxea, eta nebeak zer egin eban, mutil-txuak? Txokolate zatia kendu eta jan, sorginak entzun, barrutik, eta zer egin eban? Kaiolaren barruan sartu, eta gero emoten eutsen kaiolaren barruan jaten, eta esaten eutsan neskatxuari:

- Hau lodi-lodi egiten danean laban erre eta jango dot.

Eta neskatxua negar eta negar eta negar beti egoten zan, eta egun baten ba, ia-ia esan eutsan eta, begiratu eutsan, eta ja lodituta egoan, eta beno biztu eban labea, sua eta neskatxuari esan eutsan:

- Beno ba ia hamentxe oraintxe hauxe berotuten danean, erre eta jan behar dot zure nebea.

- Ene!

Neskatxua beno, eta gero, zer egin eban horrek sorginak? Eta neskatxua han egoan listo, ba, ia zer edo zer ahal deutsan sorginari egin edo, eta halakoren baten egin eban holan ikusteko ea bero dagoan labea, sakatu eutsan, sorginari neskatxuak, eta sartu eban labaren barruan eta, amantala eukan sorginak, eta giltzak jausi, kaiolakoak, behera, eta han egoan ha erreta, atarateko eta atarateko eta neskatxuak, e, ba, edegi eban kaiolako atea, eta urten eben eta halakoren baten urten eutsen zisne handi batek eta parau ziran bertan ganean - Hori be aitak - Parau ziran bertan ganean eta etorri ziran aitagana eta amagana.

Motxuneneko kabrea

Baina ipuinik, eta egiazkoa da hau, handiena Lekeition pasau zana zan, ez dakit zenbat urte dan hau, oraindik hori argituteko dago, hemen egoan familian, Motxunenekoa esaten eutsena, ezizena, eta ziran Antolin eta Maria ziran, eta Pedro Mari eukien euren gurasoa aita, eta hau zana, arrantzaleak esaten dabenez euren aldiko egon zan seinerurik onena, ze seineruak igarri behar izaten eutsien itsaso ona edo txarra zer egingo eban, eta familia handia zan legez, ortozik ibiltzen ziran Gabonetan, aterik ate kantetan, kantau errezau, koitaduak eta, gero marea bitarteetan portuan lapatan eta bizitza gogorra eroaten eben, baina gauzak halantxe ziran orduan eta ba, halan hartzen ziran, pasau jakien ba matordua hiru bider egin behar dogu egunez, gitxienez gosaldu, bazkaldu eta afaldu eta afaritarako, ba kabrak, itsasoko kabrak, ez lehorrekoak, itsasoko honeek arrain gorritxuak izaten diranak eta ekarri eben eta orduan ipintzen zan, kabra patata pilo bategaz, asko dagoan lekuan ze kabrea gozoago da patatea baino biak ipini ezkerro, baina zeozez bete egin behar dozu, estopean zeozegaz emon egin behar deutzazu eta han egoan kurtzelu hori azkenez geratu zanean pobreenetara, ze behar eban orioa eta egiten zan izurdeen zainagaz, lehenago baleagaz egiten zana, zaina badakizu zen dan? Orioa. Berari egosita ataraten jakon orioa, haren azalagaz egiten zan, eta han San Juan Talegon egiten eben hartu eta ipini galdaretan eta han urtuten zan, ba, usain bat botaten eban, eta honek kurtzelu hori biztuta eukien, eta han eutsen euren euron afaritxua jaten, eta azkenean geratu zan kabra bat, eta errespeto edo heziketea edo ez dakit ba zelan azaldu hori ba, ba alabeak esan eutsan aitari:

- Aita, jan eizu zuk.

- Ez, ez, jan daijala Juanek ze honeek koitaduak gitxiago jan dabe guk baino.

- Ez, ez, hartu eizu, hartu eizu.

Eta horretan ebiltzazala, orio gastau jakon kurtzeluari, eta geratu ziran ilunetan, gau ilunean geratu dira, topau behar zan potua non egoan bestea, eta bestea behar zan eta denpora hori be joan zan, eta halako baten egin ebenean bete eta biztu ebenean kurtzelua kabrarik ez, eta atara deutzue manjujia esaten jakona hemen drogea hasarrea, bata zeu izan zara, katua izango zan, katua kanpoan ez egoan, katua kanpoan ez egoan, eta egin eben euren hasarre gogorra, eta oraindik gaur be, inok ez dau argitu nok jan eban ha kabrea, hau Motxuneneko kabrea famadua da, eta oraintxe be Motxuneneko kabrea, halan, hasarre sortzen danean ezin, konpondu, zaharrak:

- Ea bertan pasetan dan Motxuneneko kabrearena, e?

Peru eta Maria (I)

Peruk eukan gatzezko etxea, eta Mariak eukan oholezkoa, eta, hori, oholezko etxeduna, Maria joan jakon Peruri eskatuten gatz piska bat emoteko ze gatzezko etxea eukan, esan eutsan ze:

- Ezetz - Eta esan eutsan harek Mariak nahaigo neuke ekarri euri zaparrada bat, eta dana urtu, madarikazinoa bota eutsan, eta orduan harek Peruk esan eutsan ze:
- Baita neuk barriz nahiago neuke zuon etxea suak hartu eta dana erre.

Ekarri eban euri zaparrada handi bat eta dana urtu, ekarri eban su handi bat eta dana erre, eta gero zer egin eben joan ziran biak, eta arbola handi bat ikusi ei eben eta hantxe arbola ganean, igo eben eta hantxe egoazan biak eta gero Peru txizazia zan, eta lapurrak egin eben, hainenbeste gauza ostu hainbeste diru zaku bete diru eta egoazan bananduten behean lapurrak, eta gero egin eban txiza eta:

- Ai! Anisak dira, hara ederra zerutik datorrena.

Eta dana edan lapurrak eta gero kakazi hori Maria, eta egin eban kaka moltzoa pastela dalakoan jan eben eta gero danak hil. Hori geure aitak kontauunkoa hori ene! Ehunda piku urte eukazan aitak eta begitu. Haorixe kontetan euskun beti, eta hori ahaztu be ez hain asko entzun dogu ze. Eta gero danak hil, eta orduan Peru eta Maria bajatu ziran, hartu ebezan diru guztiak joan ziran eta egin eben jauregi handi bat eta hantxe bizi ziran.

Peru eta Maria (II)

Ba Maria plazakoa egiten joaten da, eta Peru, dago sagardaua upelean sartzen, upelean sartzen dago hori, Peru, eta halakoren baten, ba, egiten jako kortxoa galdu, ezin topau kortxorik, upelarena, eta zer egiten dau? Txakurra daukie Pinto, eta Pintoren buztana ipinten dau, kortxotzat, eta joaten da, eta Peru, ba beraren pipea, ipinten dauanean, hori Pintoren buztana, beraren pipea erreten dago, eta halakoren baten ikusten dau ortuan txoriak dabiltzala, zer egiten dau? Orduan aringa-aringa deituten deutso Pintori:

- Pinto, Pinto, Pinto!

Joaten da Pinto bere buztanagaz aringa-aringa txoriak, hilteko, eta sagardau guttia, behearen ganera, eta ez jako otuten besterik, aste guttiko ogiak daukiez etxean eta ogiak ipinitea behearen ganean, eta Maria etorten danean, esaten deutso:

- Peru zer egin dozu, ba?

- Zer egin dodan ba Mari? Zer egingo neban ba? Pinto ipini dot, buztana edo, galdu jat, kortxoa, Pinto ipini dot kortxotzat, gero txoriak egon dira, hartu jatan, eta deitu deusat Pintori, eta hutsitu dau, sagardaua, eta, eta zer egingo neban ba, ogiak bota behearen ganera!

Peru eta Maria (III)

Peruk eukan, gatzezko etxea, eta Mariak eukan, oholezko etxea, eta egun baten, lapikorako falta dau, hori, Mariak, falta eban gatza, esaten deutso:

- Peru! Emon eidazu, halako piska bat, gatz piska bat.

- Ez! Ezin neike emon, etxea apurtuko jat eta.

- Horra ba! Egiten ahal dau ba, euri zaparrada handi bat ba!

Egiten dau euri zaparrada handia eta Peru geldituten da etxe barik, baina Peruk zer egiten dau? Botaten deutso madarikazinoa, eta etorten jako, hori, tximistea, eta tximistek egiten deutso, berari Mariari be, etxea erre, eta biak geldituten dira bat be barik.

Peru eta Maria (IV)

Gure aitak Peru eta Mariarenak asko esate ebazan, ba, Peru zala, ibiltua, ibiltua, eta, egun baten ba, umea eukien, izena Maria, jakon izena, ez! Kontxe, Kontxita izango zan, ama zan Maria, eta egun baten, ba, badagoz, Mariak esaten deutso Peruri:

- Peru umea lo dago, eta, jagon umea, jagon umea.

Eta Peru dago, bere pipea garbituten, eta umea negar eta negar eta negar, eta orratzagaz dago, pipea garbituten, berak, erretoko pipea, negar eta negar, eta halakoren baten zer egiten dau? Ah! Dzast! egiten deutso, jostorratza buruan, eta umea isildu egiten da:

- Ba tira! Isilik dago behinik behin.

Etorten da Maria, herritik eta esaten deutso:

- Eta Peru umea? – Eta:

- Umea hor dago isilik.

Joaten da Maria eta:

- Peru! Hilda dago umea!

- Umea hilda?

- Ba umea dago hilda, umea dago hilda!

Eta gero ba, enterrua egin behar dabe, enterrua egin behar dabe eta, pentsetan dau, Mariak esaten deutso:

- Ai! Ez daukat ezetarako gogorik be eta zoaz, mantilarako orratzetan, monjorratzetan, herrira.

- Eta zer esango deusat ba?

- Monjorratza!

Eta bide guztian doa:

- Orratz monjorratza, orratz monjorratz, monjorratz orratz, orratz monjorratz.

Eta ia dendaren ondoan dagoala, eta Peru herri aldera edo?

- Ene! Ahaztu jat zer esan dauan.

Hiru bider, egiten dau holantxerik, eta esaten eutsan Mariak:

- Ai! Zugaz dabilena! Zugaz dabilena.

Eta orduan ba ja prestetan dabe, enterrua, eta fresko eta urrun bizi diran legez eleizatik, esaten deutso Mariak ze:

- Peru! Gaur hotz egongo da eta kapea hartuko dozu – Eta:

- Ederto!

Joaten dira danak, enterruan Peru falta! Peru falta baina zelan Peru falta? Eta ba Peru falta eta halakoren baten han dator aringa-aringa, etxeko ateagaz, etxeko atea lepoan dauala, Mariak esaten deutso:

- Peru! Zer dakarzu? - Ateagaz:

- Zeuk ez deustazu esan ba atea ekarteko?

- Neuk esan atea? Nik kapea esan deusut.

Eta harek atea ulertu, eta gero ez da amaituten hor, eta gero, ba, esaten dau, Mariak esaten deutso:

- Begiratu Peru, ni ez naz atrebiduten, lapurrak eta dabiltz, eta hamentxe arbola-txuan egingo dogu lo, gaur gauean eta goizean joango gara eta.

- Ederto!

Baina Peru ez danean halakoan, esaten deutso halakoren baten, jentea sentiduten dabe arbolaren azpian, eta esaten deutso Peruk:

- Ai! Maria ni txizazi naz.

- Zelan egingo dozu txiza ba? Behean dago jentea eta - Eta halakoren baten:

- Nik egin egin behar dot - Halakoren baten egiten dau txiza eta eurak esaten:

- Ene! Jaungoikoaren ur bedeinkatua!

Eta badoaz eta, halakoren baten ostera be Peruk badino ze:

- Ai! Maria kakazi naz.

- Aitearen, zelan egingo dozu kaka?

- Ba egin egin behar dot.

Egiten dau kaka eta, lapurrak dira behean dagozanak, esaten deutso:

- Jaungoikoaren ezti bedeinkatua!

Eta tira pozik dagoz, eta baina halakoren baten:

- Atea bota behar dot!

- Baina zelan botako dozu?

- Bota egin behar dot!

Sakatuten deutso ateari, botaten dau atea, eta lapurrak ikaratuten dira, eta joaten dira aringa-aringa diruak eta danak itxita, eta orduan ba, bajaten dira eurak eta ikusten dabenean hainbeste diru esaten:

- Ene! hauxe da zaprea!

Baina lapurren nagusiak esaten deutso bateri:

- Zoaz eta ikusi eizu zenbat lagun diran.

Joaten dira eta Maria-eta dagoz, ba diruak, halakotuten, eta jakina! Orduan lapurrak pentsetan dau:

- Nik hareekin, hamaika bandoleroakin, hamaika eta neugaz hamabi baino, honeekin parte gehiago daukat.

Eta egiten dau, berak, beragaz bat, eta orduan esaten deutso, Mariak

- Ba hirurok egingo dogu parte - Eta:

- Bai!

- Hirurok gingo dogu parte.

Eta halakoren baten, ba egiten dau Mariak, lau parte, esaten deutso lapurrak ze:

- Zelan egiten dozuz lau parte? Hiru gara eta.

- Ez baina, hau laugarrena da, mihinik handiena daukanarentzako.

Eta beno, ataraten dau, ba hasten da ataraten, Peru ataraten hasten da baina egin deutso kadereagaz, dza! Mariak, kadereagaz! Eta txiki txikia geldituten jako, ailegetan danean hori, lapurrak ataraten dau mihina, ahal danik handiena, Mariak egin dau artaziak hartu eta, ra! mihina ebagi, eta ha joaten da:

- Minbrila - Hor - Minbrila, minbrila, minbrila!

- Eta lapurrak, zenbat minbrila gehiago entzunago eta txarrago, eta halakoren baten ja urrun-urrun dirala, esaten deutso bi dirala, bi:

- Ene!

Baina ordurako Mariak eta ja hareek prestetan diranean edukiten dabe ostatua, eta, ze lapurrak egiten dabe ba, egiten dabe bukoietan sartu, eta ekarten ditu, hamaika bukoia, eta esaten deutso:

- Nire, ba daukazu ostaturik eta?

- Bai – Esaten deutso Mariak, eta beno:

- Hamentxe daukadaz hamaika bukoi orio, eta, hamentxe, ixten badozu pasetan
- Eta paretan da:

- Bai, bai, bai bai.

Eta joaten dira, eta, hori, gizona be joaten da lotara eta Peru be bai eta, baina Maria beti dan legez, zeozer ostutekoa edo zer edo zer (ja, ja) esaten dau:

- Argiontzirako besterik ezean ostuko dot orio piska bat.

Joaten da orioa hartzen, eta barrutik edegiten dauanean kortxoak barrutik esaten deutso sasoi dala, barrukoak, orduan:

- Bai laster, itxaron piska baten.

Zarratuten dau, eta joaten da horregana, alkateagana, esaten deutso:

- Lapurrak dagoz neure hor.

- Ezin leiteke izan!

- Bai, bai, bai!

Joaten da, aguazilak eta danak, eta emoten deutsee, lapurrei, orioa bukoiairi sua eta danak urteten dabe aringa-aringa eta.

Genobeba de Brabante

Genobeba de Brabante egoten zan, enamorauta ezkondu zan, eta gero, ba, bera-
ren, maiordomoa, gizonaren maiordomoa, aberatsak ziran, eta egoan enamorauta,
Genobeba de Brabantegaz, eta orduan ba, egin eban, esan eutsan, etorri zan gerrea,
euren, halakoen artean, eta orduan joan zan, gizona ba, gerrara, eta gelditu zan, hori,
zer izen eukan berak? Genobeba de Brabanteren, ez dakit ze izen eukan, eta geldituten
da bera, eta orduan nahi izaten dau Genobebari abusau, eta Genobebak ez deutso ix-
ten, eta zer egiten dau? Genobeba bialtzen dau basamortura, basamortura, eta, egoten
da, bera hil egin behar dauan, bera eroaten dauan gizonak, esaten deutso:

- Beitu hamentxe itxiko zaitut, baina ez etorri gehiagorik, ze bestela neu hilgo nabe eta.

Eta orduan, ba geldituten da Genobeba de Brabante, basamortuan, eta basamortuan topetan dau, koba bat, eta orduan hantxe eta, edukiten dau umea, jaioten jako, ahaztuta daukat izena umearena be, eta, ahaztuten da eta, gero gizona etorri egiten da gerratik, eta esaten dau, Sigfredo zan gizona! Gizona Sigfredo zan, eta esaten deutso, gero ba jakina urteak pasetan dira, eta mutilxua handi eginda dago, ja hazitxua, hiru urte edo lau edo, eta, esaten deutso, Sigfredori, beno, hor urteten dau, basora, eta basoan dabilala, ba ikusten dau umetxu bat, hartzaren, hartz baten, atzetik doala, eta, ikusten dauanean umeak, zaldia, gizonagaz etorri egiten da aringa-aringa, kobara joaten da atzera, eta segidu egiten deutso, eta esaten deutso:

- Nor zara? Urten! - Baina zelango izena eukan umeak be! Eta, ez:

- Ama! - Esaten deutso - Horrek gizon horrek, horrek, urteteko dino, eta orduan esaten deutso:

- Nor zara? - Eta:

- Ni Sigifredo naz - Eta:

- Zeu nor zara ba? - Eta esaten deutso:

- Nahi badozu nik urtetea kapea bota behar deustazu - Ze biluzik dagoz biak, hainbeste urtean eta erropa barik eta, eta urteten dau eta ezagututen dau beraren andrea, eta orduantxe esaten deutso ba, zer egin eutsan Sigifredok, eta ailegetan dira, eta orduan Sigfredo horrek, borrarogaz, eta ez dakit zelan jakon izena, dana dala, zer egiten dau? Beraren burua bota egiten dau eta gero geldituten dira pozik.

Liako sorgina

Mendexatik bajatzen ziran, itsasora eta, eta gero ba pentsau be ez bajatzerik, baina bat egoan parrandistea, bajatzen zana gauean be, herrira, eta gero hurrengoko egunean, hurrengoko egunean, ba ez dala izaten gauza ezetarako be ez:

- Jesus! - Esaten eutsala andreak - Hauxe da marka! Ezetarako be ez zara gauza, behar egiteko be ez, ezetarako be ez.

- Ba bihar ez naz joango.

Esaten, baina gaua ailegetan zanean, ba joan egiten zala eta halakoan eta, egun baten ba, hori zan, hori, erramu domekea, eta, ipini eutsala, orria, andreak, eta, bajako zala eta, igo ebala gora, eta esaten eutsala:

- Maria goikoa!

- Zer? - Eta:

- Haor doa gure laguna!

Eta besteak esaten deutso, gizona bera egoan entzuten:

- Baina gaur ezin dogu jantzan egin, zergaitik ze erramua daroa, ..., erramua daroa eta bedeinkatua da eta ezin deusagu holakotu.

Eta gizona ailegau zala ikaratuta, eta orduantxe konturatu zan, Lian, Liko zuba? Lian behean, sorginak egoten zirala eta egiten eben, harrapetan eben etxeratzean, eta gau guztian egoten ziran jantzan, goizeko seirak artean, eta orduantxe konturatu zan zergaitik kantzetan zan bera.

2.4.2. Amoroto

Laminen bizilekua

Laminak zelan egoten ziran, erreka ondoetan - Eta, eta orrazten egoten zirala emakumeak eta holan esaten eben baina.

- Eta kontetan zan zer edo zer ipuinik?
- Bai, laminena baina, eta non egoten dira ba? Geuk esaten geuntsan eta Arbinako zubian eta ez dakit zelako koban eta esaten euskuzan aitak.

Arimak

Gure aita zan, holan proban eta ibilten zana, gaztetan, ezkondu baino aurretik, ibilten ei zan, Sendoak, anaiak pilo ziran-eta, eta hor kanposantu ondoan zehar joan, eta gero bertoko mutil bat, bertoko mutil bat joan han zehar, eta:

- Ene! Arimeak urten dau! Arimeak urten dau! - Kanposantua dago hor:
- Arimeak urten deust! Arimeak urten deust, arimeak urten deust! - Eta, baina estu mutila, eta aita gurea, praka argiekin, aita gurea eta anaia eta, proban entsaiua egin eta etxera, Agarrera, hortik kanposantuaren ondoan ezkerretarutz, eta kanposantua dagoan legez, ba arimeak handixik urten dauala eta bestea ha mutila Patxi, orain hil zan baina, bildur itzelagaz, arimeak urten dauala eta, eta geureak izan ziran.

2.4.3. Aulestia

Laminak eroan

Horreek antxinako kontuak dira, ba antxina, laminak edo esaten eutsen horreeri, laminak ibiltzen dirala erreka ondoan, uleak orraztu eta, uleak orraztu eta, aurpegia garbitu eta, erreka ondoan ibiltzen dirala laminak, eta ba hareeri be bildurra izaten geuntsen.

- Zergaitik?

- Ba geu be erreka ondora edo eroango gaituela eta.

Anbotoko Mari

O! Anbotoko Señorea, horregaz be bildurtzen ginduezan, Anbotoko Señorea hor, zein lekutan egoten zan hor zerean? Hor, zulo baten egoten zan eta gero, eta, berari burukoa emoten eutsanean, atzetik sua dariola hamen zehar Anbatora pasetan ei zan.

- Eta nondik nora pasetan zan?

- Hamentxe zehar joaten ei zan, eta Anbotoko Señorea, pasau dala eta Anbotoko Señora hori.

Peru eta Maria

Peruk eta Mariak eduki eben seme bat, ba apur bat tontoa edo atzeratua zan, eta, Mariak gura eban ba, haxe, besteen moduan ezkondu eta ha ipini gura eban, eta ez eukan moldarik ba mutil horrek, andragaia topetako, eta, auzoan ba hil zan baten bat, eta gero gaubelea egiten zan, hori be egiten zan, gaubelea be, eta gaubelea egiten zan, eta gaubelara ba, neskak nahi mutilak nahi gizonak nahi, ahal dozuna joaten zan gaubelara, eta neska gazteak be bai, e? Hantxe gaua erdi olgetan egiteagaitik be, eta, Mariak, e, esan eutsan ba ze:

- Joan zaitez, e, gaubelara, hain lekutan dago gaubelea eta.

Esan eutsan, semi, semeari eta.

- Hantxe, jo eizu, begiagaz, neska bat, zuri gustau jatzuna, jo eizu begiagaz, eta ba, haxe gero zeuretzako - Eta:

- Ama nik zelan joko dot ba begiagaz - Esan eutsan, eta:

- Bai, begiagaz joten da, gustetan dana, begiagaz joten da.

Amak esan eutsan, eta, gero, eta mutilak zer egin eban? Ardiak eduki zituen, eta joan kortara, eta ardiei begiak atara, eta, ardiei, danei ez, bateri atarako eutsan, bateri edo biri edo, bai behintzat, eta begiak eroan zituan, bat baino gehiago be, eta parau zan, zera, gaubela, ba hamen ezta? Eta, holako leku baten jarrita edo parau zan eta, haxe begiagaz ba neskea joten eban, eta, ea zer egiten dabilan eta, agirika egiten eutsien, eta gero beste bat be, hiru edo jo zituan, eta ba, neskak eta hasarratuta, eta batek be nahi ez, eta gero, etxera joanda esan deutso:

- Ama, zuk esan deustazu niri begiagaz jotea baina ez jake gustau, eta ez noa gehiago joten.

- Zelan jo dozuz ba begiagaz? - Eta, ba:

Ardiei atara deustadaz begiak, eta harexegaz begiagaz.

- Ai seme! Hori be egin dozu! - Esan eutsan - Hori be egin dozu!

Esan eutsan, Mariak eta, gero, ez dakit ba gehiago zer.

Alper handia

Alper handi? Ba alperra izan zan, eta, ez eban beharrik egin gura, eta jan egin gura eban, baina beharrik egin gura ez, eta, ba! Bera ez doala beharrik egiten eta, enterretako esan eutsen, bera, eta baeroien, andan, eta andratxu batek preguntau eban:

- Nor daroazue ba? Nor hil da ba? - Eta:

- Urlia hil da - Esan eutsien eta, ba - Ez dau beharrik egin gura izan eta, hil da eta orain, badaroagu enterretan.

- Ene! Ezer ez daukalako? - Eta:

- Bai.

- Ba neuk emongo deusat, anega erdi, arto.

Andra horrek esan eban, anega erdi arto, artoak izaten ziran eta, horreek, arkak egoazan lehen, orain kiloak esatea legez, eta, anega erdi arto, eta entzun eban enteruan doanak, eta, atautetik esan eutsan.

- Erreta ala erre barik? - Arto hori, jateko moduan ala? Eta:

- Ez, erre barik.

- A pues que siga el entierro - Aurrera.

2.4.4. Markina

Sorginak jantzan

Antxina antxina biderik be ez zan kontaizu, orain, berrehun urte edo, nik ez dakit zer, eta joan behar bazan Bilbora, oinez joan behar zan, ezta? Eta menditik, mendirik mendian zehar eta, gero, gaua be nonbaiten egin egin behar zan, eta arbola bat e, kukulua esaten jako, inausteko zera izan da, zera, halakoaren ganean geratu, eta ni entzunda nago ba, zera, sorginak etorri eta, zera, alkarreri eskutik helduta arbolearen bueltan:

- Lunes y martes y miércoles tres, jueves y viernes, viernes y sábado seis - Eta bueltaka hara, ezta? Eta harek arbola ganetik:

- Y el domingo siete! - Esan eutsela eta, danak joan zirala.

Anbotoko Mari

Goiz baten, eguna zabaldu orduko baina goiza, ezta? Eta sua, nik ez dakit baina hori izar buztanduna edo esaten jakona eta, holakoren bat izango zan baina, holantxe joan zan, sua beharbada ez zan izan holantxe, zerera, eta gero trumoihotsa lakoxe hotsa izan zan, ba esaten eban jenteak ze ba, Anbotoko Señorea, zerera, Anbotora etorri barik luzaro egon da, atea, zera bisagrak ugertuta, zertuta, haren atearen hotsa izan zala.

Katua berbetan

Lehenago goruetan egiten eben andrak, gauean, zera, zerean linoa iruten egiten eben eta halan, andreari sutondoan goruetan gelditu eta, sorgina etorten jakola tximiniatik behera, eta zera, gizon hori etxean eta gizona plantetan zan baina ez jakon etorten, eta halan, denporea, denporea aurrera eta, egun baten bera plantau zan gizona, jantzi andrazkoaren gonak eta zerak eta, goruetan, eta, burduntzia sutan, gorituta eukan, eta, ez jakon agertzen baina, halako baten, etorri eta esan eutsan, laratzean behera etorrira:

- Bizarrak eta goruetan? - Eta hartu eban zer hori eta sartu eutsala, eta baina joan zala atzera gora:
- Katua izanda berbetan? - Esan eutsala atzera, eta gero biharamonean auzoko atsoa dagoala gaixorik.

2.4.5. Etxebarria

Begibakarra

Ez dakit ba zelan zan be baina bat badaukat entzunda, ei zan, hankabakarra edo, eta, ardi taldeagaz ibiltzen ei zan, eta gizonak jaten ei zituan ez eukan beste zer janik eta gizonak, eta engainauta ekarten ei zituan barrura, eta baten be ardi talde handiagaz ei egoan eta edurra egiten ei eban eta, esan ei eutsan lagunduteko barrura, ardiak

gordeten, eta afaria emongo deutsalara, eta sua eginda ei eukan eta, beste horrek ikusi ei eban sutan, eukala pertsonaren hankea lapikoan sartuta egosten:

- A bai! - Pentsau ei eban:

- Lehenengo horrena janjo jok eta gero neurea jango jok horrek, baina ez jok jan-go ninerik - Pentsau eban, eta egin ei eban, ardiei atea zabaldu, eta ardi artean pasau bera, ba besteak igarri, eta ardiei danei holan lepoan, eskuagaz pasetan ei eutsen, hankabakarra ala begibakarra ez dakit zan hori, begibakarra pentsetan dot izan be, begibakarra, eta ardiei danei holan kolpe eta egin ei eutsen, bazterrean ei eben eskegita ardiaren narrua, eta bera harexegaz tapau, eta ardi taldean pasau ei zan, eta gero esan ei eutsan, zelakoa zan esan eutsana? Zelebrea ei zan esan eutsana ba, nik jakin izan banaioan hori, lehenago egin behar neban, eta sutan ei eukan, burduntzia esaten jakona, burdina, burdina berotzen, ei eukan, eta bera, gizon hori egoala, distraiduta, egin ei eutsan, begi bakarra zan horixe, egin ei eutsan burdina bero hori berari sartu, beste begian eta han geratu ei zan, itsututa eta ardiak hartu eta eskapau ei eutsan beste horrek.

2.4.6. Ondarroa

Katua berbetan

Euren kontuak jakin egiten zirala kalean eta gero ba jakina! Eurak alkarregaz etxean ibili behar zituen gorabeherak eta danak eta kalean jakin. Eta hauxe:

- Inor ez da eta zerean eta - Eta, ba halako baten konturatu ziran katu bat etorten zala. - Gauean-gauean - Gauero, katua sartzen zala, eta egun baten ba, konturatu ziranez, katua sartzen zala, andreak, bere gona, gonapean, mazua eukan, mazua edo matrailua edo, egurra edo, zer edo zer - Gizona geratu zan, ezkaratzean gizona geratu zan - Nik, e, nik andreak atara ebala beraren gonapetik uste dot, eta katuak entzuten zituan kontu guztiak, eta handik konturatu ziran katua zala, ze, zera, kontuak eroaten zituana eta.

Orduan egin zan gau baten gizona geratu, andrearen erropekin.

Bai gorutan.

Gizona geratu zan ezkaratzean andrearen erropekin.

Erropekin eta gorutan, bai!

Eta sartu zan katua bentanatik.

Eta esan eban katuak ze:

- Gizona eta gorutan! - Besteak erantzun eutsan:

- Katua eta berbetan? - Eta dranba! Jo eban, eta urten eban harek, tipili-tapala-tapala baina ez ekien bizi edo hil edo zer, eta hurrengo egunean, kanpaiak, eta enterrua:

- Zeinena? - Eta:

- Bai ondo dakizu zuk zein hil dan eta zer. Eta, pentsetan eben kaleko jenteak, eurak jakin egin behar ebela ha katua zein zan edo, eurak hil ebana zana, haitik...

Laminak

Bai, hori zan ba gizon bat berandu ibiltzen zan eta errekea pasau behar izaten eban, bere etxera joateko, eta jakina, etxeoak eta bildurretan eta, andreak, gizonak, zer, erretiro txarrak eta eukazala eta, beti bere bildurragaz, zer egiten eban andreak?

Hori gero, hasi zan errekea pasetan eta entzun eban.

- Bai, Lamina muna-beheko!

- Zer da Lamina muna-goiko?

- Hor atzetik datorrenari lakio!

- Bai bere emazte onak ipinita ez baleukaz boskotxa eta apio!

Ba gizonari egin orduantxe zer edo zer eta andreari esan eutsan etxera ailegauta:

- Zer dakan hik, aldean?

- Zer dakat? Zer dakat? - Eta - Zer ba? - Eta hauxe, eta hauxe, eta:

- Ba erretiro txarrak eta edukiten dituzu gauez, eta ezer pasau barik eta:

Jakan, bueltan, hantxe sartuta eukazan boskotxak eta apioa.

2.5. DURANGALDEA

Eskualde honetan ipuinak bildu ditugu bost herritan: Zornotza, Abadiño, Atxondo, Elorrio eta Zaldibar. Denetara 13 izan dira jaso ditugun testuak.

2.5.1. Zornotza

Mari Urrika

Mari Urrika, Mari Urrika bai, Oizko zera, eta, ba zu! Hori ikusita gagoz, e?

- A bai?

- Bai horixe!

- Zelan ia?

- Nire amak be bai eta neuk be bai, pentsau eizu ni egon nintzan, esneagaz bajaran Eubara, tranbiara, e? Esnea bajatzen genduan arrastegian ba lepoan kantina honeri sarri esan deusat lau domin egin zakuagaz min egin ez daian eta orain goizetan gehiago, goizetan astoagaz bajatzen genduan, ia esne gehiago, eta tranbiari itxaroten gagozala esnea zertzeko, eta erreka parean baju-baju-baju-baju! Eta kolorietakoa, e? Zerean, eta gure ama defuntea be soloan eta soloan ba altu, ze ni Eubatik geltoki ganean bizi izan naz, eta harek be ikusi eban eta Euban, erreka parean baju-baju-bajuan eta barrero Zarratxutik, baina honantza ja jakina gero mendiak be zertu euskun baina, neuk be ikusia dago, badago, e?

2.5.2. Abadiño

Sorginen galerea

Eta hamen abade batek esaten eban, honeek danak ezkutau zirala Eibarren eskopeta fabrikea zabaldu zanean.

Kurtzeak salbau

Gure amak esaten euskun, han Atxarte, Atxarten Kristoa dago, badakizu? Eta zubipea, eta joan zala gizon bat, idiakin Urkiolara, iratan edo eta, esan ei eutsan:

- Mekaguen! Aida mekaguen! - Edo esan. Eta sorginen batek erantzun deutsu:
- Entzun dozu, horixe buztarriko kurtzea daukazulako salbau zara! - Buztarrian kurtzea eduki be egiten zan eta:
- Horixe daroazulako salbau zara. - Esan ei eutsan.

Sorginak galduko neskea

Lehenago goruetan ibilten ziran, goruetan eta gu egon ginan parajetik han, hurrengo, zu ibilita zagoz han, ez dakizu Leonardo eta?

- Bai, bai, Leonardo bai.
- Ba horixe, hara joan zan itxurea, goruetan andraren bat, neskaren bat, eta sorginen batek urten bidean, eta eukan kopetea, haretxean eskegita itxi, eta neskea desagertu egin zan, eta han kurtzetxu bat egon zan, orain arbolea botata egongo da, ez naz pasau urteetan be eta, baina lehen kurtze bat egon zan, eta han paretan ginan beti aitearen egin behar izaten genduan, usadioa, ezta?

Hantxe itxi bere kopetea eta neskea desagertu egin zan, geure auzotik haraxe doala goruetan gauez, gauez goruetan egingo zan.

Laminearen madarikazinoa

Zerak esaten eban, Leonardoren aitak esaten eban hori, eta gure amak be bai esaten eban, erropak jotzen edo ibili putzuan, eta ez dakit ba zer esan eben edo zer eta:

- Mañasi, Mañasi, emoidazu buruko orrazi, emoten ez badeustazu laster dozu egin garrasi.

2.5.3. Atxondo

Laminak hil

Laminak hantxe bertan, Axpetik, Zaldiaara bitartean, josten joan zala bat, neska bat eta jausi egin zala hantxe, eta laminak zertu eutsala eta, eskuan eroan ebazan ez dakit josteko, albandorrazak edo zerak josten, zertzuk ziran jertseak eta egiten ziranak? Hareek sartu, eta bertan hil zan eta kurtzea hantxe oraintxe dago.

Juanito txilibiterua

Geure aita defuntuak esaten eban, andrageia eukan Arrazolan, Arrazolakoa zan gure ama defuntea, eta handik joan, eta gero hor kantine hartu lepoan eta Larraonara oinez, eta han bide buelta esaten jako Larraonara baino, Hatxerdiaren bide buelta, eta hantxe gora doala, berak halantxe esaten eban txakurrak ahausika sentidu zituala, eta Juanito Txilibiterua izan zala, hori esaten eban.

Maria Urrika

Bai eta sorgina ikusten eben gurean, hori zelan izan leike ba? Anboton egoan sorgina, sorgin koba oraintxe be badago ba, izena, eta Anbototik ikusten ebela Oizera joaten, sua dariola

- A bai?

- Bai geure gurasoak esaten eben eta, bai Maria Urrika, Maria Urrika, Maria Urrikaren koba dago.

2.5.4. Elorrio

Sorginak laratzatik behera

Zera laratza esaten eutsien holako, eta handik, beno! Sorgina etorri ez daiten, zaku bat, ipini gauean eta, beno zera etorriko zoan! Euria zanean euria, goitik behera.

Sorginak erabili

Gure aititak ba, akordetan naz ni, e, Zaldibarrera joan, eta hor basotik, eta, ba, txikitoren bat edo bi edango zituan eta sorginak urten deusala eta gero bidea topau ezin eta, jausita eta ibili zala, sorginak urten eta arineketan hasi zala eta.

Jentilak

Bai jentilak, beno! Gure aititak esaten eban:

- Gizon batzuk, beno! Zera teilaturainokoak! - Eta:

- Zenbat ikusi dozuz ba? - Eta:

- Bost edo sei bai, jentilak - Hori, holako barreno handi bat egoan, metro bi pasaukoa eta zati bi falta zituan holako, honenbeste inguru 60 bat edo, eta:

- Gure aitak jaurti eutsan, goiko bentanatik lamina bati eta palankea apurtu, altzairua, hau baino sendoagoa, apurtu behean etarte aurrean.

2.5.5. Zaldibar

Ehiztariaren oilagorra

Hemen bateri pasau ei jakon, gizon bateri, ehiztaria bere denpora guztian, izanikoari, beti, oilagorra, egunero ekarten ei eban joaten zan guztian oilagorra eta, tabernan baten, sartu da eta, oilagorra eta ikusten hasi dira eta burua soltau, gerrikotik egin ei jakon, jakina beti oilagorra baina ba, behin edo behingo oilagorra izango zan, beti bat, eta beti egunero ekarten ei eban oilagorra, eta usteldu artean hantxe, esaten eban, e? Geuk ez genduan ikusi.

Mari Urrika

Bai Mari bai, sorgina ba, Anbotoko sorgina eta Mari Urrika, gure amak esaten eban, gure amak, esaten euskun txikitan:

- Izan zaitez okerra eta, Anbotoko sorgina ikusiko dozu etorten bajatzue, han egongo don eguzkia dagoanean, eguzkia dagoanean, ulea orrazten, atean plantauta, ulea orraztu eta ulea orraztu. - Esaten euskun gure amak.

2.6. ARRATIA

Eskualde honetako herriak Galdakao, Dima, Zeberio, Zeanuri eta Ubide izan dira. Denetara 12 testu batu ditugu.

2.6.1. Galdakao

Katua berbetan

Egoten zala goruetan, ez dakizu goruetan halako zertuten eta, eta, esaten eutsala andreak gizonari:

- Beti etorten jat baten bat - Eta:
- Itxiozu, neu parauko naz gaur - Eta sartu zala, goititik gizon hori goruetan, eta zer edo zer berba egin eutsala eta.
- Gizonak eta goruetan? - Eta ez dakit zer eta:
- Berbetan? - Jo eta katuari hankea apurtu eta hurrengo egunean auzoko atsoa, eskua apurtuta egon zala.

2.6.2. Dima

Zantzolaria

Eta beste baten be Baltzola, badakizu Baltzola? - Bai, bai - Berbetaldiak egiten ziran orduan gauean, eta mutil bat Bargonditik, Bargondi badakizu non dagoan? Nire auzoa - Bai gitxi gora-behera - hementxe goian, hementxe goian eta ni horkoa naz, eta Bargonditik joaten zan Baltzolaria berbetaldia egiten, berbetaldian egiten ziran galtzerdiak, ba ardilanazkoak, kardau ardilanea, txabilan egin haria, gero galtzerdiak egin andrak, gizonak be egiten zituen orduan batzuk baina, eta batzuk goruetan be bai, eta gauean urteten eban orduan, Baltzolan, Bargondirako egiten ei eban ijiji! Gizonazko horrek eta, urrin entzuten eban ijiji! Beste alderdi batetik eta:

- Jesus! Nor ete da? - Eta bidean, bide erdian ostera bere ijiji! Eta, ostera bere kontestazinoa, erantzun ijiji! Hurrago, etxera sarraidan balkoian ijiji! Egin ei eban eta atarian ijiji! Eta da! Ixten dau atea, eta hamar atzamarrak markau ei eutsazan atean.

Laminen itxurea

Galantak izaten ei ziran sorginak - A bai? - Ez laminak, laminak, eta egun baten lamina bat sartu ei zan etxera, eta laminak esnezaleak izaten ei ziran, esnezaleak, eta esnea surtan galdarilan, eta esnea gorantza mogidu zan orduan:

- Txuri gora! Txuri gora! - Esan ei eban seguru lamineak, esnari begira ha.

Laminen orrazia

Orraziagaz orraztu, ulea orraztuten ibiltzen zizala, laminak - Erreka ezkinetan
- Erreka ezkinetan ule luzea eta orraziagaz uleak orraztuten egoten zizala, eta
baten batek ostu egin eutsela orrazia, han itxi ezkinan, erreka ezkinan eta gero
orrazia erreklamau eutsala, hori entzunda daukat, ene!

Laminen erpak

Hankak eduki ebezela ahatearen moduko hankak, erpak erpak, erpak, erpak edo
bai, erpak ahatearen moduan daukiezala.

Arre diablo

Hemen, ba solo baten, sugeari buztan puntea kendu, eta gero joan zizala Afrikara,
eta, Gabon egun, entzunda daukazu? Gabon egun baten, etxera etortea, Gabon gauean
pentsau ebala, Afrikan:

- Enei! Gaur, ba, etxean egotearren ez dakit zer emongo neuken - Esan ebala, ba
mutilak, eta:

- Etxera joatea gura dozu? - Esan eutsala baten batek eta:

- Bai joango nintzake.

- Ba neuk eroango zaitut - Gauean zertuteko afalduteko. - Parau lepoan - Ez
daukazu hori entzunda? - Ez - Ondo ondo ez dakit eta - Parau lepoan, etortzen ba,
jausten eta, zarrapastadea egiten badot, esan arre diablo - Eta urten eben, lepoan
hartu eta badatoz honantza, eta laprast egiten ebanean:

- Arre diablo! Arre diablo! - Esaten ebala eta, ailegau zizala eta ba etxera, Alde-
koetxeko anaiak esaten eben, ez daukazu entzuterik Aldekoetxeko anaienik?
Bai Patxi Ziarsolo eta..., eta ailegau zala eta:

- Beno ailegau gara. - Eta erakutsi eutsala atzamar txikia falta izan ebala, horrek ekarri ebanak arre diablo esateko esan eutsanak:

- Ikusten dozu hau atzamar txikia zelan daukadan falta? - Eta:

- Bai.

- Akordetan zara han Aldeiko soloan zelan suge bateri kendu zeuntsan, buztan puntea? - Eta:

- Bai.

- Ba hauxe da kendu zeustana niri.

Deabrua izan zala edo nik ez dakit ba hori zer.

2.6.3. Zeberio

Hagin gorriak

Paulinok eduki ebazan, haginak gorri bi, eta han alboan ziran mutiko batzuk, mutiko majoak, eta beti egoten zan gurean, eta jakina! Ba gurean beti umeak halan zerakaz eta:

- Paulino, Paulino horreek hagin gorriak zelan urten deutsue?

- Honeek urten, urten?

- Zelan ba?

- Ba badakik zer egin? Joan otara bai eta oilo kaka koiu eta igurdi igurdi egin, eta hurrengo egunean gorri-gorri-gorri. - Eta beste biak oilo kakaz beterik ahoa.

2.6.4. Zeanuri

Anbotoko Señorea

Hemen be, Anbotoko señora be, Anbotoko hatxa dago han zerean, eta ha egunez egoten zan Anboton, eta gero gauean pasetan ei zan horra, Gorbeiaiko hatxetara, ezta? Anbotoko señora, eta ha be egoten ei zan zertuta, ba, zigorra egiteko eduki eban, zigor gogor bat, ezta? Eta horixe, zer hori emon eutsien, hango hatxean egoten zan Anboton, hori Anbotoko señora, baten geuk be ikusi genduan hortxe, ni lagun bategaz hortxe iturrian jesarrita bai? Eta lainoetatik sua, hemendik alderditik harantza, eta han nire lagunak esan eban:

- Ene Anbotoko señora! Anbotoko señora oraintxe doa Gorbeiatik, ba Anbotorantza.

Lanbreabeko etxeanderea

Ba sorginak urteten dabela hemen, eta hor goian baserri bat egoten zan Lanbreabe, ezta? Eta Lanbreabe errekan, ba sorginak urteten dabela eta gu ahoa zabalik amari eta begira, eta gero ba joaten ziran hara erreka batera, sorginak orraztuten euren orraziakaz, edukiten ebezan urregorritzko orraziak, eta baten ba gorde ebezan, han eurak agertu ziranean eta, ba errekan harri baten azpian, Lanbreabeko etxeandereak ostu eutsezan orraziak, ezta? Joan ziran sorginak eta ene! Ikaratu egin zituan, orraziak ez dagozala, joan ziran Lanbreabeko errotara, eta oraindino esaten dabe atearak, bost atzamarrak erreta ateetan daukazala, gau erdian joan ziran, eta ateetan deitu eutsien, doun! Doun! Doun! Atean:

- Nor dator?
- Lanbreabeko etxeanderea! Non daukazu nire orrazia? Ez badeustazu emoten orrazia, nik egingo dot zure askazia

Eta gero ni bildurtuta, zapi zuri baten, atara eutsien, etxeandereak atera eutsiela sorginei, ba orrazia, ezta? Eta oratu eutsien zapiari eta hamar atzamarrak, markau eutsiezan zapien.

2.6.5. Ubide

Sorginak bildurtu

Ba sorginakaitik beti gauza ganorabakoak, sorginak datozala eta, gorde egiten ginan eta, sorginak datozala eta, holantxe ba bildurtu.

Peru eta Maria

Peru eta Maria urak daroa garia.

Anbotoko Señorea

- Ohiturea egoan.
- Izarren bat ikusten genduanean gauean, zeruan ikusten genduanean.
- Han doa Anbotoko señorea.
- Eta Anbotoko señorea, oraintxe, Anbototik Gorbeiara.

2.7. HEGO URIBE

Hego Uribeko herriak lau baino ez dira izan, Zollo, Etxebarri, Orozko eta Bilbo. Denetara 15 ipuin batu ditugu.

2.7.1. Zollo

Deabruak eroanekoa

Bai hori kontukoa lehengoa, bardin bardina da hor Zabalen, Zabale Arranku-diagako etxe bat dago hor, eta hor be, ama, arenbatera joateko eta umeak segiduten eutsan atzetik eta:

- Deabruak eroango ahal zaitu! - Eta gero, faltau egin jakon umea eta topau ezinik, topau ezinik hainbeste jente eta zerean eta gero, ez dakit ba, ahal dan lekuren baten topau eben, gurbitza artean hemen Basakoetxen, hemen, hemengo gur-biztidian edo.

Iretargia eta lukia

Lukiarenak esaten eutsan, hemen gure, gure, honeri txikerretan kontetan eutsien, gauean badakizu, urean. iretargiak, iretargia han barruan eta, taloa dalakoan, han lukia ekin putzua hutsituten eta hutsituten eta, atzenean hutsitu baino lehen errementau lukiak.

Suge esnezalea

Andra bateri bularra edaten eutsala sugeak, nik ikusi ez dot egin, eta zelan umeari, txupetako buztana, eta gero umea, beti negarrez, beti negarrez eta sugeak txupetan eutsala bularra, eta, zelan koiu eben, zer dan ez dan, zerrina zoruan bota, eta zerrinean, sugea arrastaka doan moduan, handik koiu ebela, nik hori entzunda daukat, e?

Anbotoko Señorea (I)

Anbotoko Señorea zelan baten bateri urten eutsiela sugarretan eta ez dakit zer eta badakit zer, holako gauzak entzunda badaukat baina orain.

Anbotoko Señorea (II)

Kometa bat ikusten zanean gauetan, orain be ikusten dira ezta? Igual izarrak eta alde batetik bestera dzu! Eta egiten eben eta aiba! Anbotoko Señorea, orduan esaten zan Anbotoko Señorea, eta zan ba, izar bat joaten zana alde batetik bestera.

Tuneleko katua

Ze gure ama defunteak esaten eban, fabrika zaharrera, fabrika zaharra horko “talleres”ekoari Miraballesgoari, eta Arrankudiagatik etorten zala bat, eta tunelean, tunelean urten egiten eutsala, holako, tigre moduko, katu moduko zer bat, gehiengan, eta lagunduten eutsala tunela akabau arte, eta gero, bedeinkatu ebela, eta, gehiago, amaitu zala dana.

Lamina esnezaleak

Bai esaten eben gure ama defunteak eta, hemen Urneizen esnea egosten eta, tximiniatik etorrira:

- Txuria gora! Txuria gora! Txuria gora! - Eta, laminak.

2.7.2. Bilbo

Begizkoa kentzen

Begizkoa, esaten zan orduan, honeek begi fijoak umeak ipini ostean, begi fijoak, hori beharbada izango zan, ez dakit ba zer izango dan ze orain, ez dot entzun bere egiten zer dan hori, eta orduan, nire, aitaren izeko batek egiten eban begizkoa, bala berunezko, karlistadako baleagaz egiten eban ha urtuta, ha uretara botata eta holako begizko kentzeko hori, miraria hor dauka horrek, ze sorginkeriak.

Sorginen argia

Hemen, Albantxeganen edo hori, Albantxegane, hau da Albantxa, ez? Eta Albantxegane atzenengo etxea dagoana hor, eta hor urten ebala sorginak, gauetan eta, ez dakit ba baten bat ikaratuten bazan edo zer zan, eta eduki ebala zer gorri bat holango, linterna baten moduan hango arbolan, han, Larraben, arbolan daukat entzunda nik.

2.7.3. Etxebarri

Arimen orio usaina

Itzelak sorginen kontuak, urten egiten dabela eta ui! Zelako gauzak esan sorginagaitik, ikaratuta egoten ginan, e? Gu arima egunean be, beharbada mezara bajatu ezta? Kaminotik, han dagoan pinuditik, ene! Hemen arimak egon dira ze zelako usaina! Oriorearen ikatza, orio ikatza, eta zelako zera, ene errezauegin behar dogu! Ni txikerra baina ahiztak - Eta, ene! Sorginak bai, zera, arimak.

Kate zaratak

Hor egon zan Begoñan etxe bat, sorginduta.

- Eta non?
- Orain ez dakit kendu badabe baina, urteak eta urteak eta urteak, gauean aguantau ezinik kate zaratak han.
- Eta zergaitik hori?
- Ba arimaren bat sufriduten daukiela, etxeko arimaren bat han sufriduten daukiela eta.

2.7.4. Orozko

Laminen orrazia

Ez baina Araindikoari zan, gaztainak, gaztainak batuten hemen, gaztainadi onak egoten ziran, gaztainak batuten, eta zerean, Mendizurietan, Mendizurietan egon zan koba bat, eta han egon zan holan lastra bat, eta han egon ziran, sorginak orraztuten, orraztuten eta etorri ziran besteak, etorri ziran gaztainak batuta, handik pasau ziran, eta ha ikusi orduan sorginak ba danak joan ziran kobara, eta gero ba orraziak itxi ebezan han eta besteak hartu orraziak eta ekarri ebezan, eta gauean gau erdian seguru bere:

- Juan de Arandi ekarri eizu nire orrazi ezpabere laster izango da zure askazi - Hurrengo egunean orraziak eroaten hara, Mendizurietara.

Anbotoko Mari

Anbotoko Señorea, ba hemen, bai oraindino hor andra bat orain burua galduta dauka baina, oraindino ez eban burua hain galduta eduki eta esan eban, Anbotoko Señorea berak seguru pasetan ikusi ei eban baten seguru bere, esan neutsan:

- Beno beno Rosa holakorik - Eta:
- Bai, ikusi neban eta, neuk ikusi eta esango deustazu ezetz Anbotoko Señorea, Supelorgo kobatik Anbotora, Supelorgo koban egiten ebazan zazpi urte eta Anboton egiten ebazan beste zazpi urte.

Abade ehiztaria (I)

Eta hori abadeen zera eta hori, hori neuk, ezagututen dodazanak ba, Juaniko eta horreek bere, hori abadeena, lehenago abadeak mezea amaitu orduan, ba itxi behar izaten ei eben liburua, ba zera, ba itxita, itxi behar, liburua itxita itxi behar ei eban, baina izan abadea, abadea ehiztaria, ehizan gustetan jakon, eta txakurra, mezan egoa-la, txakurrak ahausi eta ahausi erbiren bategaz etorri jakon zerera, eta zer egin eban besteak, itxi mezeari eta zera, ba, erbia koiuten txakur horregaz, ba joan, eta gero zer egin zan kondenau.

Abade ehiztaria (II)

Egun baten, holako, ba zer bat, holako zeren bat, laino holako zeren bat, pasau zan hortik eta, Juanitok egiten eban:

- Aiba! aditu eik, aditu eik! Hor joak, zera, hori abade ehiztari hori txakurragaz, ganera aditu eik ahausi bat egin jok txakurrak, guau-guau-guau!

2.8. TXORIERRI

Eskualde honetako herriak Leioa, Loiu, Zamudio eta Larrabetzu izan dira. Herriotan 16 ipuin batu ditugu.

2.8.1. Leioa

Laminak orraztuten

Nire aubeak eta esaten eban, ba Kateatik ezagutzen dozu Katea? Erandio, Katea? Kateatik Loiura, bidea, ezta? Artezean bidea, orain ja ederra dago eginda baina, beno dana dala, dago errekatxu bat, dago, eta ba, Laminak gauean bajatuten zirala hara errekatxura eta alkar orraztuten egoten zirala.

Arimak

Ba geurean lehengusu bateri pasau jakon hori, geure lehengusu bateri, aitik urteten deutsola, behin ez dakit nondik etorri zanean, han, Goirebarri ondoan, urten eutsan eguno lehenengoan Juantxuri seguru bere, eta etorri zan, ikaratuta etxera, eta:

- Aita ikusi dot, aita ikusi dot! - Esaten eutsan eta amak esaten eutsan ze:

- Zagoz isilik Juan, zer dinostazu seme?

- Bai ama aita ikusi dot - Eta hainbeste denporan ibili zan bakarrik ez eban gura izaten etorri inora be, eta hareri be lagundu egiten eutsien lagunak, eta, Sarreneko Diegito defuntuak eta, lagunduten eutsien eta hara, etxeko txarritoki ondora, hareek ez eben ikusten, berorrek bakarrik, berorrek bakarrik, hori segun traza ez dau ikusten, esaten dabe ze, estadu graziazkoan egon behar dala hori ikusteko, harek ez dakit ba ze estadu graziazko eduki eban harek gixajoak ba, esaten eben eta, esaten eban ze, gero, geuk be esaten genduazan, beno egia izango da ba, gero esaten eutsien eta berak, jakina abadeari be kontau hori eta, abadeak esaten eutsen ze, orduan, orain ez dabe holakorik sinestuten hori hareek abadeak be, baina orduan esaten eutsen abadeak ze:

- Itaundu eiozu ia zer ofreziduten jakon - Eta ez dakit nortzukaz, behin, hara etxe ondora ailegau, eta esan eutsan ze:
- Aita! Aita zeren deseo daukazu ba? - Eta, orduan erantzun eutsala berak, eta inok ezin eban jakin familian, esan eutsan:
- Esaiostazue nire arrebeari, Begoñan prometidu eustan mezea atara deistala, ze hemen nabilala mundu guztiari korriduten.

Sorginen tamainua

Beno esaten dabe sorgina txikerra dala, esate dabe, e? Leku txikerrean sartzen dala baina, hain txikerrak izango ziran orraztoki baten sartzen baziran.

Eleizearen lekua

Ez hori ez da Erandioko ermitea, hori Leioako eleizea da, hau eleizea egin gura eben, han behean dagoan, udaletxe barria egiten dabilzazan lekua, dago iturria, iturri ondoan egin gura eben, esakera zaharrak, e? Iturri ondoan egin gura eben eleizea, ze honek herriak ez eban existiduten, hau zan Erandioko, Leioa Erandioko bentanatzat edo hartzen dana baina beno hau da lurrez, Erandio zan, eta hareek egiten zituen beharrak, egunez egiten zituen beharrak gauez agertuten zirala edo hurrengo egunean agertuten zirala orain eleizea dagoan lekuan, hori sarri entzunda daukat.

Anbotoko Mari

Mari Anbotokoa, haregana joaten ziranak, aurrez sartu egiten ziran legez urten behar izaten ebela atzez, ezpabere ez ebela urtetan berari atzerik berari emoten baeutsien.

2.8.2. Loiu

Arimak

Ba ikusiko dozu, nire amak, eta ez zan guzurra izan hori, e? Orain ez dakit nik neskatoak ikusiko baeban ez baeban, baina gure amak eduki eban, auzo baten, ba, amamak urteten eutsala, hil jakon amama eta amamak urteten eutsala, eta amamak urteten eutsala, eta neskatoak jan gura ez eta parau zan oso makal, eta egun baten aitak esan eutsala:

- Beno alabatxu! Joan behar dogu mendira gurdiagaz otearen bila - Nire aita asko joaten zan:
- Etorri neugaz ba, mendira, eta urteten deustunean Amabirjineak, neuri, oratuko deustazu eta estu estu egingo deustazu, eta esango deustazu ia zer deseaten jakon - Beno ba, joan zala baten eta esan ezin esan eta desagertu egin jakola, beno ostera be barriz be joan zala eta ezin esan eta hirugarrenean esan eutsan seguru, ia zer deseaten jakon eta Amabirjinearen aurrean meza bat entzuteko, baina ja neskatoa ordurako galduta egon zala odolak eta hil egin zan, hori da egia, e?

2.8.3. Zamudio

Sorginak erabili

Holakoa ezagututa nago ni ha baino lehenagokoa, zertu, bajatu herrira, eta joan etxera, baina gorantza ni be goikoa naz, eta hiru mutil joan, eta bat desagertu egiten jaken:

- Nondik ete ba? - Mutilok besteak larri!
- Nora sartu da hori eta? Nora sartu da hori? – Eta, nok jakin ez eta, haretxaren ganean agertu jaken, seguru.

- Beno gu bagoaz, e? Ze kantsauta gagoz begira hemen eta, zetan igon dozu horra ba? – Eta:
- Ez dakit, sorginak ekarri nabe hona.
- Indar handia eduki dabe, e? - besteak esaten eutsien seguru:
- Ba hor lotzen zara.
- Ez naizue itxi hemen, ez naizue itxi. - Eta:
- Ez gu bagoaz - Eta martxau eutsen seguru besteak, eta gero atzean joaken, basaz hondatuta, orduan basarik ez zan ikusten eta, bera basaz hondatuta, eta:
- Non ibili zara ba?
- Basartean sorginak erabili nabe - Besteak ez eben jakin egia bada ez bada, eta gero ibili ezin, ibili ezin, eta besteak astoa kargauta etxera.

Gaueko zaratea

Hamen laminak dagoz, esaten eustan, eta egun baten, pasau jakun, ba Maritxu Sanjoango eta biok etorri ginan, besteak gizongeiak topau euskuezan eta gu erregular hareek baino moztxuagoak izan ginan eta ba guk ez genduan topetan, eta biok, lan-lan-lan-lan-lan, Jose Migel Kaltzaerrotakoagaz eta horreekaz etorten ginan, baina hareek han behean lotzen ziran legez, Eizanen, ba guk gero fradua bakarrik topetan genduan, eta egon zan, karabia esaten geuntsan, dana sasiz beterik, ez jat egundo ahaztuko ha gaua, ba, zaratea barruntau genduan karabian, eta nire lagunari esan neuntsan:

- Atzerantza ez pausurik emon, e? - Ni aurrean, baina nik ez neban lehenengo zaratarik entzun, ha karraderan hasi zanean, ni aurrean, ekin neban legez, holako bidetxu bat egon zan han, ba geuk eginda, atzerantza joan zan, baina guk Julian gogo txarragaz eta Inazio gurea, nebak, eta ni etxera joan nintzanean jakin eben zer edo zer pasau zana, eta Maritxuren lagunaren eske hasi ginan, Kaltzokortaraino joan ginan gu, gauez, Kaltzokortaraino, hurrengo egunean enterau ginan nor dan, bai zarata egiten ebana.

2.8.4. Larrabetzu

Sorginaren musturra

Lehenago antxina baten, ba, bizi ziran, ba, sorginak, eta egon ziran ba sorgin bat, eta eduki eban kriada gaztea, gaztetxu bat, eta egiten ei eban sorgin zaharrak, gauean, sartzen ei zan beraren gelara, eta egiten ei eban besapean, ozpina besape bietan, eta hanka azpian, hanka azpian orioa, eta esaten ei eban:

- Sasi guztien ganetik eta hodei guztien azpitik! - Eta dza! Desagertu egiten zan, eta joaten izan zan, beraren sorginen batzarrera joaten izan zan, eta hurrengo egunean bardin, eta hurrengoan be bardin egiten izan eban eta, baten, hori zertu eban, bardin egin eban eta, zerak, neskatoa begira egon zan, kriadaxua begira egon zan zer egiten dauan gelan, eta harek bardin operazinoa egin eban sorginak, sorgin zaharrak, besapeetan egin eban ozpina, eta hanka azpian orioa eta esaten izan eban bardin bardin ba:
- Sasi guztien ganetik eta hodei guztien azpitik! - Eta dza! Desagertu, eta bestea kriadaxua ate zuloatik begira eta:
- Joino! Nora joaten da, ba? Neuk be egin behar dot ba! - Eta egin eban aldrebes egin eban, neskatoak, ba, egin eban, besapean orioa eta hanka azpian ozpina eta esan eban:
- Sasi guztien azpitik eta hodei guztien ganetik! - Eta hor doa, eskapau eban eta sorginen taldera, ailegau zan, eta eroan eban albandorratza eskuan, neskatoak, harek kriadaxuak eta, eta esan eutsien beno, ba:
- Zu barria zara, eta mosu emon behar deutzazu, horrerri sorginari, horrerri ugazabandreak eperdian. - Ba, neskato horrek, zer egin eban? Joan zan eta bestea ba, eperdian emoten joan zan, eta mosua emon barik, albandorratza eroan eban, eta dza! Sartu eutsan eperditik, albandorratza, eta:
- Ai! - Esan eban, ba, sorgin horrek, sorginak ugazabandreak:
- Honek sorginak dauka musturraren zorrotza!

Defuntua agertu

- Beno Bego orain gauza bat esaten noatzu, zu beharbada ez zara akordauko, Txomin ez dakizu hau, Gangoitikoari urten eutsala, zabaldu zan, zueneko amaren osabeak, ez zara akordetan?
- Fermin defuntuak?
- Bai zabalean ibili zan hamen.

Sorgina hil ezinik

Ba andra bat egon zan, esaten eben sorgina dala, jakina izan zan andrea ba, normala ez da, baina itxura bat eduki eban, beno, oraintxe be akordetan naz neu be, atso zahartxua begi azulakaz eta, sorgina dala esaten eben, eta han egon zan, haren tailepean andra bat, oso txarto gaixorik, agonian, egunetan agonian, eta ezin hil ezelan be, eta lehenago egiten zan holan, agonia luzea daukanari, dirua batu, eleizan, eleizan edo dirua batu, meza bat atarateko, esate baterako, eta zenbat eta jente gehiagok emon hobeto, eta bakotxak emoten eban zentimo bat edo holan, zenbat eta jente gehiagok parte hartzen eban hobeto, esate baterako meza batek balio izan baeban ba, bost pezeta orduan esaterako, mezea abadeari emoten bajakon estipendio lez, ba bost pezeta emoten bajakon, ba ha dirua, hareek bost pezetak batzea komenidu izaten zan, hamar lagunen barik ba, mila lagunen artean hobeto eta horregaitik bakotxak zentimo bat edo, holan emoten eban, eta, hori mezea emoten zan eta orduan esaten eben nasai hiltzen zala, eta hor kasu horretan, orduan orain, ganera ezagutu neban hori, gaixorik egon zana ez neban ezagututen bestea bai, sorgintzat egon zana, eta don Juan hemen abade egon zan, abadea oso majoa zan, eta esan eutsan:

- Maritere mesedez joan urliagana - Leonardoren amaxeagana izan behar zan, hil ezinik hainbeste denporan eta ezelan be hil ezin andrea, eta medikuak be ikararuta, eta, joan zala, joan haregana:
- Eta hareri parkeske eskatu, ze zeure parkazinoaren begira dago ha - Eta ezek be ez dau balio harentzat, trankilduteko eta, eta joan zan eta parkeske eskatu eutsan eta, ensegida hil, eta antza artean esan eutsan horrek:
- Neuk kandela berdea erreko deusut, ba zeuk agonia luzea eduki daizun...- Badakizu holako gauzak, ezta? Ba lehenagoko hasarreak eta gora-beheretan, eta antza horixe.

Patakon

Lehenago badakizu Patakonek hamen zer egiten eban? Baina hamengoa, Euskalerrikoa izan zan, ez dakit, zein lekutakoa, nire amak esaten eban ba beharbada enteretan zan txahala saltzean zenduala edo behiak saltzen zenduazala eta holan, eta zer egiten eban? Bidean urteten eban, gauean, ze lehenago ba beharbada, bide, idi buztarriakaz eta, ba beharrean edo, leku ilunean eta, jakiten eban nork daukan eta nok ez daukan eta dana eta, ba, ai! esaten eutsan seguru batak beharbada topauta.

- Zer, ba ? - Eta:

- Zer pasetan da? - Aupa eta aupa eta:

- Zer ba?

- Nik daukat bildurra.

- Eta zerena daukazu bildurra ba?

- Ba begiratu behintxa saldu dot eta ba Patakonen zera daukat, bildurra ze dinoc kendu egiten dabela diruak danak eta zera eta.- Bera zan, bera zan, bera zan Patakon, esan eutsan:

- Emon eidazuz danak.

Gaua gauezkoentzako

Gure aitak esaten eban bera joan zala behi bategaz eta orduan Gordexola edo ez, hamen feriara ez dakit nora be, eta goizeko bostetan, euria bota ahala, e? Esaten eban ze gure aita erdi tratantea zan ezkondu orduko eta, eta gizon bat tza! Guardasolpera sartu, eta:

- Gaua gauezkoentzako - Esan eutsala eta bera, arnasa barik lotu zala:

- Gaua gauezkoentzako - Bai orduan badakizu, e?

Peru eta Maria (I)

Bai Peru eta Mariarena esate baterako, ezkondu egin ziran Peru eta Maria, eta jakina bidaian joan behar eben, eta jakina bidaian joateko, ba ganadua eta eduki eben legez kortan biak batera ezin joan, eta beno ba lehenengo joan zan gizona, esan eutsan:

- Zoaz zu eta gero joango naz ni - Mariak, Marik esan eutsan, beno joan zan gizona, eta bertan, ba, Donostiara joan zan, eta euria egin eutsan, eta euria egin ebanean ba beno, guardasol bat erosi eban, eta egin zituan egun bi edo hiru edo dana dalakoa etorri zan etxera eta, esan eban:

- Guardasola erosi dot baina ahaztuta itxi dot bertan hotelean - Hotela edo tabernea edo, dana dalakoa izango zan, eta:

- Ahaztuta itxi dot han ba.

- Joan egin beharko dozu orduan atzera bila. - Eta joan zan, eta joan zan eta, joan zan beraren, berak lo egin eban gelara, eta jakina han, bikote bat egon zan, ezkonbarriak, eta gizonak andreari esaten eutsan:

- Horreek begitxuak politak norenak dira? - Eta:

- Ene! Norenak? Ba zeureak! - Eta:

- Ene eta hori hagintxu polit hori norena da ba? - Eta:

- Hori be zeurea! - Eta:

- Ene eta horreek eskutxuen politak daukazanak, horreek norenak dira? - Eta:

- Zeurea - Eta:

- E! Geldi geldi! Guardasolagaitik ez itaundu neurea da eta!

Peru eta Maria (II)

Eta esaterako Peru eta Maria ba jakina, umetxu bat eduki, eduki ez umea edukiteko gogoa, e? Baina ez eben eduki, eta, ba Mari egun baten negar eta negar, ai! Eta ai! Eta:

- Zer pasetan jatzu Mari ba eta?

- Zer? Ba begiratu guk umetxu bat bageunka eta hemen azpian kumea, eta hor buztarria dagoan lekuan eta hori buztarria jausiko balitz umea hil egingo litzake, eta biak negar eta negar gero.

Orio usaina


Amama zahar bat egon zan hemen, larogeita hamasei urtegaz hil zan eta harek esaten eban, kurutze bideetan esate baterako, kaminoan kurtzea badago, hareetan orio usaina barruntetan zala, eta laminak egoten zirala, laminak, eta burukoetan eta be, igual burukoa soltau, kontetan euskun guri, burukoa soltau eta han oilasko formatuak eginda eta egoten zirala.

3.

JARDUERAK ETA ARIKETAK

Atal honetan, ipuinak lantzeko CD-an sartu ditugun jarduera guztiak aurkezten ditugu. Jarduera hauek, beti legez, erabil daitezkeen arteko batzuk dira eta eurok iradokizuntzat hartu beharko lirateke, ezen ez baitugu esan gura aukera gehiagorik ez dagoenik edo hemengo guztiak egin behar direnik. Irakasleek ikusi beharko dute, unean-unean, zeintzuk diren egokienak, umeen adinagatik, garapen mailagatik edo norberaren aukera estetikoengatik.

Ariketak, CDaren egituraren arabera, hamar multzo nagusitan banatuta daude. Erabiltzailea jardueretan abiatzen denean, honelako pantaila batera ailegatuko da:



Hor agertzen den aurkibidea erabilita, multzo guztietara ailegatuko da: Itaun-erantzunak, Entzun eta kontatu, Entzun eta idatzi, Ikusi eta kontatu, Irakurri eta kontatu, Amaiera eman, Euskara batuan idatzi, Bete hutsuneak, Sinonimoa eman eta Berba aukeratu. Jarraian, multzo horien arabera aukeratu ditugun jarduerak emango ditugu.

3.1. ITAUN-ERANTZUNAK

Atal honetan, irakaslearen lana errazteko asmoz, edukietan zehaztu dugun banaketa geografikoaren arabera ematen ditugu ariketa guztiak.

3.1.1. Uribe-kosta

BERANGO

Sorginak urten

- 1.- Zelangoa bazara urtengo deusue Txarmineko sorginak?
(Okerra bazara)

Sorginak jantzan

- 2.- Sorginak Torreko landan egiten ei eben dantzan, baina ikusi egin ditu inoz?
(Ez, ez ditu sekula ikusi)

JATABE

Beste mundukoak erabili

- 3.- Urondotik abiau arren, ezin ailegau izan zan etxera. Zein arrazoiengaitik?
(Beste mundukoak erabili ebelako)

Sasi guztien azpitik (I)

- 4.- Zer esan eban oker morroiak?
(Sasi guztien azpitik)

Sasi guztien azpitik (II)

- 5.- Sorginak alkartzen diran lantzarrera ondo joateko, bada esaldi bat zuzen dagoana eta bestea okerra dana. Idatzi hemen zuzena
(Sasi guztien ganetik eta hedoi guztien azpitik)

Peru eta Jentila

6.- Peruk, bai ugazabari eta bai jentilari be, kontrara egiten eutsezan beharrak. Zer egiten eban mahastian?

(Mahastia jagoteko esan eta mahats guztiak atara)

7.- Peru jentilaren iztar bitartetik pasatzeko mozorrotu egin zan. Zer jantzi eban?

(Ardi narrua)

Sorginak erabili

8.- Sorginak erabili ebela esaten eban osabeak, baina nondik nora erabili? Nora joan zan etxetik? Nora etorri nahi eban? Non amaitu eban.

(Gorlizera. Andrakara. Lemoizen)

Katu baltza

9.- Danak –katu baltzak- garbituten genduzan dino kontalariak. Zer da testu honetan “katuak garbitu”?

(Katuak hil)

Lapurrak urten

10.- Dirua kendu eutsien eta familia galdu eban. Zer da familia galtzea?

(Sabeleko haurra hil)

Lukito eta Otsoto

11.- Opila koiuteko asmoz, zer egiten dau Otsotok?

(Putzuko urak edan)

12.- Zerezkoa da uretako opila?

(Iretargizkoa, iretargiaren argiak egina)

Herri oilarra

13.- Egunez igeltzeroak altzetan ebana, hurrengo egunean behera botata egoten zan, ez eben topetan ezer. Nork kendu edo botaten eban, ba?

(Sorginak)

14.- Urteko zein hiletan jaiokoa da herri oilarra?

(Martian jaiokoa)

Garrikoa narras

15.- Garrikoagaz basorik baso doala, hots bat asmetan eban atzean, sarra-sarra, sarra-sarra. Erantzun egizu: garrikoak noz atara leike zarata handiagoa udabarrian ala udagoiengan? Zergaitik?
(Udagoiengan. Zorua orbelez beterik dagoalako)

Peru eta Mari

16.- Badakizu ez dela akatsa birritan agertzea “ailegetan dagozala, ailegetan dagozala”. Orduan, zure ustez, zein da horretarako arrazoia?
(Ahoz kontatua izatea; ahozkoa idatzira pasatu dalako eta ahoz horrelaxe kontatzen da)

Antzonekoa

17.- Zeren bitartez erakusten dau Antzonekoak giputzak baino indartsuagoa dala?
(Exaren bidez, exa puntatik oratuta)

Eguen gureneko antzarrak

18.- Zelako arrautza egiten dau antzarrak, txikerra?
(Ez, halasekoa, handia)

19.- Antzarrak zertara joaten ziran laiatuko lurrera?
(Harrak batzen, jaten)

20.- Uste dozu antzarrak eroan leikela akulua gorputzean sartuta hegaz?
(Bai, ze indartsua da)

Lukiaren egiak

21.- Alderdi baten badagoz lukiak eta bestean ez. Zeinetan ez dagoz?
(Lagan ez dagoz)

22.- Zein da lukiak boteroari dinotson hirugarren egia?
(Halako porteak pasau ezkerro, dirurik kobratzen ez badau, gero be fraka zaharrak edukiko dituala)

Iretargiaren espilak

23.- Lapurretan joan dan gizonak, zergaitik dinotso iretargi kabroi hori?
(Ba, iretargiaren argiagaz ikusi egingo dabelako lapurra)

24.- Iretargira begiratu eta han dagoan espilan, zer ikusten da?
(Zotzardea oteagaz eta gizon bat zutunik)

SOPELA

Begizkoa kentzen

25.- Abe Maria bat errezatzeaz ganera, zer gehiago behar da begizkoa kentzeko?
(Hiru kurtze egin)

Begizkoa egiten

26.- Zergaitik ipintzen ditu batabestearen aurka begizkoa eta abadea?
(Abadea kristauen erlijinokoa dalako eta begizkoa aztiak edo sorginak egiten daualako)

3.1.2. Mungialdea

MUNGIA

Arimak

27.- Teodorok dino bedarrak urte bitan aprobetxatzea adostu dabela, andreak, osterak,
zer esaten deutso?
(Urte baterako adostu dabela)

28.- Astoak indaba pilotik jaten eban, baina zein indaba mota zan?
(Goizetiko indaba txikerra)

29.- Andre hori agertu egin jakon Teodorori. Noz?
(Hil eta hirugarren egunean)

Laminearen orrazia

30.- Zertan egozan laminak Inpernu errekan?
(Urregorritzko orraziagaz orraztuten)

Lukia eta otsoa

- 31.- Maria, horrek daroa garia, esaten eban Otsotek. Zer edo nor da “horrek”?
(Juan Otsoren txiza, garnua)

MEÑAKA

Arimak

- 32.- Hil ostean, zein lekutan agertu jakon aita?
(Estratza zahar ilunean)

Sorginak jantzan

- 33.- Non egiten eben sorginak dantzan, hemen, hor ala han?
(Haor)

Laminak segidu

- 34.- Osabeari andra lamineak segidu eutsan atzean. Zelako itxurako agertzen zan?
(Zuri zuririk eta ulea orpoetarainokoa)

Jentilak

- 35.- Garabia batek eta jentil horrek, zertan daukie antza?
(Indarrean, gurdia eta idiak batetik bestera mugitzeko)

BAKIO

Gizona goruetan

- 36.- Nork esan eban “katua izanda berbetan”?
(Marinelak, gizonak)

Miru eta Txistu lapurrak

- 37.- Atzenean, Miruk diru gehiago ala gitxiago dauka?
(Bardin ze, emoneko dirua barrero eskuratu eban)

Peru eta Mari (I)

38.- Zelan eskapau leike esneak?
(Irakin ezker)

Peru eta Mari (II)

39.- Zein da “atea ekarri”ren sinonimoa?
(Zarratu, itxi)

Peru eta Mari (III)

40.- Peruren eta Mariren ipuineko arbolea nekez izan daiteke pinua. Zein arbola mota izan daiteke?
(Haretza, artea, pagoa, gaztainondoa...)

Arimak

41.- Txakurrak ahausi egiten dau, baina zelan ikusten dau arimea?
(Pertsonaren itxurea daukalako)

FIKA

Sorginak erabilikoa

42.- Erreka ezkina baten jesarrita parau zanean, zer agiri zan?
(Inor ez ezer ez zan agiri)

FRUIZ

Tximiniako harri bolak

43.- Larraur in zarata handiak entzuten ziran. Zeren modukoak?
(Tximiniatik behera jausten ziran harri bolen modukoak)

Sorginak atzez

44.- Sorginak atzez urten behar dau. Nondik?
(Eleizatik)

Laminearen orrazia

45.- Deskribatu egizu laminea
(Ulea beherainokoa, botilearen altura ingurukoa, beti orrazten dabilena)

Ermitan jantzan

46.- Sorginak egiten dabe dantzarik?
(Ez, ez dau entzun dantzan egiten dabenik)

Iritxoak

47.- Zelako mutilakaitik esaten da iritxoak daukiezala?
(Lotu ezineko mutilakaitik, okerrengaitik)

Iretargiaren espilak

48.- Zer zan azpigarria?
(Gortako abereei azpia egiteko erabiltzen zan otea)

Sorgina zan katua

49.- Sorginaren eta katuaren anekdotea nork esana zan?
(Jeobako Lekukoak eta aitak)

ARRIETA

Laminen orrazia

50.- Laminak non egoten dira, zer egoten dan lekuan?
(Putzuan, iturri ondoetan, ur lekuetan)

Afrikan hilekoaren arimea

51.- Niri nebea hil jatan dinoana, zer da neskatoa ala mutila?
(Neskatoa, arrebea)

52.- Zergaitik ipini eban amak argitxua?
(Juan Luisek “Ama ilun dago hemen” esan daualako)

Atautea altzau ezinik

53.- Kontatzen dauana egia dala ziurtatzeko, zeintzuk esaldiak errepikatzen ditu
behin eta barrero?
(Neure aitak esanekoa eta ikusikoa; neure aitak ikusikoa; neure aita egon da bertan)

54.- Txarto egin eben berba andreagaitik, zer esan eben, ba?
(Oilo lapurra izan zala)

Jentilak

55.- Jentilak zer egin ezkerro eskapatzen eben?
(Kurtzea erakutsi ezkerro)

Sorginen orraztokia

56.- “Lantzean andra bat egoten ei zan sorgin antzekoa” esaldiak, zer esan gura dau,
andra asko egoten zirala?
(Ez, andra bat edo beste egoten zala)

3.1.3. Busturialdea

ERRIGOITIA

Txindorra

57.- Txindorra zerk lotzen dau Jesusekin?
(Papar gorriak)

Frailearen aupadea

58.- Zenbat zaranetan sartu daiteke Anboto mendia?
(Handia bada zarana, bakar baten)

Mamuak urten

59.- Istorio honetan urteten daben mamuak nortzuk dira?
(Aitita difuntua eta Juanino-eta)

BERMEO

Jentilak

60.- Determinatu bako pertsona adierazteko hiru era dira, bat sandia, bestea berendia eta hirugarrena?
(Urlia)

MUXIKA

Arimak

61.- Zer esaten eutsan alargunari izara zuridunak?
(Ondo etorria zara edo ondo ikusia zara)

AXANGIZ

Sorginen galerea

62.- Zein izan zan sorginak desagertzearen kausa?
(Arnak agertzea)

Sorginak uxatzekoa

63.- Zertarako egiten ditu amamak halako suak?
(Sorginak hanka egin dagien)

Bide-lapurrak (I)

64.- Segiduten eutsan gizonagandik alde egiteko, non ezkutau zan?
(Kantarilapean)

Bide-lapurrak (II)

65.- Bide-lapur asko ala gitxi egoten zan?
(Asko, edonon entzuten ziran bide-lapurren gertaerak)

Jokalaria

66.- Joko kontuetan galtzailea izaten zan Muxikako gizona?
(Ez, irabazlea)

Hamaseiko gorria

67.- Amama erropa garbitzen ebilela errekan, nor etorri jakon?
(Morroi bat)

68.- Zer egin eutsien lapurrari?
(Urkatu egin eben Aulestiko plazan)

Piratak

69.- Zure ustez hemen esaten dan Mundakakoa edo ez dakit nongo hatxa, zein uharte izango da?
(Izaro)

ARTEAGA

Txarria zan sorgina

70.- Zein zan sorginak desagertzeko formulaea?
(Jesusen izena esatea edo aitearen egitea-edo)

Sorginen bidaiak

71.- Non egiten eben batzarra sorginak?
(Akerlanda izeneko landatxuan)

Urrez beteko idi narrua

72.- Zein lekutan topau geinke urrez beteko behi narrua?
(San Migelen, Oizko mendian eta mendi guztietan)

Peru eta Maria

73.- Zertan dira antzeko ipuin hau eta Forrest Gump izeneko filmea?
(Pertsona atzeratuak, arloteak, baina irabazleak, estima handikoak)

ELANTXOBE

Sorginak ezagutu

74.- Zer mehatxu egiten deutso sorginak?
(Han ikusi dauala esan ezkerro, galdu egingo dauala)

Ogoñoko lamina

75.- Andreak txorizoa eukan zotzean ipinita, eta sorginak zer eukan?
(Barea makilan ipinita)

76.- Sorginak zein formula errepikatzeagaitik ernegazon eutsan andreari?
(Zuk koipetsu eta nik akatsu)

Abadearen ama sorgina

77.- Ama sorgina zan ala ez jakiteko, zein froga ipini eban abadeak?
(Ebanjelioa zabalik itxi)

Zazpi ahunzkuma

78.- Zazpi ahunzkumak aldi berean jaiok ziran?
(Bai, ze ahuntzaldi berean jaiok ziran)

79.- Otsoak nondik hartu ebazan arrautzak ahotsa finduteko?
(Oilotoki batetik)

Hamalau lapur

80.- Lapurrik txikitxuenak egiten eban korrika ondoen?
(Ez, berak egiten eban txartoen)

Peru eta Mari (I)

81.- Ipuin honetako Listo txakurra, zertarako darabil Peruk?
(Listoren buztana upelerako tapoia izateko)

82.- Zenbat esangura ditu “atea ekarri” esaldiak?
(Bat, atea itxi; bi, Peruk ulertu dauana: ekarri, hartu eta ekarri)

Peru eta Mari (II)

83.- Peru eta Mari pertsonaia herritarrak jakintsuak dira?
(Ez, ezjakinak dira)

Sorgin herria

84.- Egia edo ez, zer esaten jakon Elantxoberi?
(Sorgin herria)

NABARNIZ

Gauekoen erretiratzea

85.- Eguneko zein unetan jotzen dira albakoak?
(Goizean goiztar, egunsentian)

Lapurreta ahalegina

86.- Zergaitik ezin zan altzau aulkitik?
(Ogi apurtxu bat gorde ebalako poltsikoan etxekoei erakusteko)

87.- Azkenean, zer egin eben etxeoak?
(Ogi zati handiagoa emon eutsien)

Sorgina ala katua?

88.- Jarri egizuz idatziz katuaren kolorea eta jarrera
(Kolare nabarra; eperdiaren ganean jarrita miauka)

Azeria, ardia eta azea

89.- Zertzuk pasau behar zituan erreka batetik bestera, batabestea, alkar jan barik?
(Azeria, ardia eta azea)

3.1.4. Lea-artibai

LEKEITIO

Amabirjinea

90.- Zer koloretako atea topau eben ahizta zaharren biak eta zelakoa txikinenak?
(Ahizta zaharren biak baltza, txikinenak zuria)

91.- Eguneko zein unetan kontetan eutsen aitak ipuina?
(Lotara sartzen ziranean)

Katalin sorgina

92.- Zein zen seineruen zeregina?
(Itsasora noz joan edo noz ez joan esaten ebenak)

Neska mutilxu bi

93.- Noz ikusi eben urrunean argi bat dagoala?
(Halakoren baten)

94.- Nork kendu eban txokolate zatia eta jan?
(Nebeak)

95.- Nondik jausi jakozan sorginari kaiolako giltzak?
(Amantaletik)

Motxuneneko kabrea

96.- Motxunenekoa zer da, izena ala ezizena?
(Ezizena)

97.- Kurtzelurako orioa zegaz egiten zan?
(Izurdeen zainagaz, baina lehenago baleagaz)

98.- Noz esaten da, ea bertan pasetan dan Motxuneneko kabrearena?
(Hasarrea, ezin konpondua sortzen danean)

Peru eta Maria (I)

99.- Zerezko etxea eukan Peruk eta zerezkoa Mariak?
(Peruk gatzezkoa, Mariak oholezkoa)

100.- Peru txisazi zanean, non egoan?
(Arbola ganean)

101.- Zer jan eben pastela dalakoan?
(Kaka moltzoa)

Peru eta Maria (II)

102.- Mari plazakoa egiten joaten danean, zertan dihardu Peruk?
(Sagardaua upelean sartzen)

103.- Peruk Pintoren buztana zertzat ipintzen dau?
(Kortxotzat)

Peru eta Maria (III)

104.- Zerk galtzen dau Peruren etxea eta zerk Mariarena?
(Perurena euri zaparradeak; Mariarena tximisteak)

Peru eta Maria (IV)

105.- Zelan isiltzen dau umea Peruk?
(Jostorratza buruan sartuta)

106.- Ahaztu ez dakion, zer errepikatuz doa Peru herrirantz?
(Orratz monjorratz, monjorratz orratz)

107.- Peru eta Maria arbola ganean dirala, Peruk hiru gauza egiten ditu. Zertzuk?
(Txiza eta kaka eta atea bota)

108.- Hiru pertsona baino ez egonik, Mariak norentzat egiten dau laugarren partea?
(Mihinik handiena daukanarentzat)

Genobeba de Brabante

109.- Nora joan zan Genobeba de Brabanteren gizona?
(Gerrara joan zan)

110.- Sigfrido gerratik itzultzen danean, zelako mutiltxua topetan dau?
(Handi egindakoa, hazitxua, hiru edo lau urtekoa)

111.- Zergaitik dino, nahi badozu nik urtetea kapea bota behar deustazu?
(Biluzik egoalako, erropa barik)

Liako sorgina

112.- Gizona hurrengo egunean, zein arrazoigaitik ez zan ezertarako gauza?
(Liako zubian goizeko seiak arte erabilten ebelako jantzan sorginak)

AMOROTO

Laminen bizilekua

113.- Sorginak erreka ondoetan eta non gehiago egoten ziran?
(Arbinako zubian eta koban)

Arimak

114.- Patxi beldur itzelagaz, zergaitik?
(Arimeak urten daualako kanposantuan)

AULESTIA

Laminak eroan

115.- Ezer egin leikie laminak?
(Bai, erreka ondora eroan)

Anbotoko Mari

116.- Zer dariola joaten zan Anbotoko Señorea?
(Sua dariola)

Peru eta Maria

117.- Nortzuk joaten ziran gaubelara?
(Neskak nahi mutilak)

118.- Zer da begiz jo eta zer begiagaz jo?

(Begiz jo: pertsona edo gauza bat bestea baino gehiago gustau. Begiagaz jo: Begia eskuan hartu eta jaurti norbaiten edo zerbaiten aurka)

Alper handia

119.- Non eroien alper handia enterretan?

(Andan)

MARKINA

Sorginak jantzan

120.- Oinez, mendirik mendirik Bilbora joanta, non egin eben gaua?

(Arbolaren ganean)

Anbotoko Mari

121.- Mari Anbotora etorrikeran, zerk egin eban trumoi-hotsa lakoxe hotsa?

(Bisagra ugertuak)

Katua berbetan

122.- Goruetan ziharduan andreak zer eukan gorituta?

(Burduntzia)

ETXEBARRIA

Begibakarra

123.- Pertsonarearen hankea lapikoan sartuta egosten ikusirik, zer pentsau eban?

(Lehenengo horrena jango jok eta gero neure jango jok horrek, baina ez jok jango nirerik)

ONDARROA

Katua berbetan

124.- Katuak zer dino leihotik sartzean?
(Gizona eta gorutan?)

125.- Eta zer erantzun eban gizonak?
(Katua eta berbetan?)

Laminak

126.- “Hor atzetik datorrenari lakio”, dino Lamina muna-goikok, baina ezinezkoa da, emazteak zeozer ipini deusalako, zer?
(Boskotxa eta apioa)

3.1.5. Durangaldea

ZORNOTZA

Mari Urrika

127.- Zein menditakoa da Mari Urrika?
(Oizkoa)

ABADIÑO

Sorginen galerea

128.- Zer gertatu jaken sorginei Eibarren eskopeta fabrikea zabaldu zanean?
(Ezkutau egin zirala)

Kurtzeak salbau

129.- Zer bila joan zan Urkiolara idiekin?
(Irak bila, iratan)

Sorginak galduko neskea

130.- Non egin behar izaten eben aitearen?
(Kurtzea egon zan lekuan)

Laminearen madarikazinoa

131.- Zer gertatuko jakola dinotso lamineak Mañasiri, emon ezik buruko orrazi?
(Laster dauala egin garrasi)

ATXONDO

Lamineak hil

132.- Nork egin eutsan nori zer?
(Lamineak neskea hil eban albandorrotzagaz)

Juanito txilibiterua

133.- Aita defuntuaren Arrazolako andragaia bizi da?
(Ez, hil zan)

Maria Urrika

134.- Kontalariak sinesten dau sorginak ikusi leitekezenik?
(Ez, ze dino: “Zelan izan leike, ba!”)

ELORRIO

Sorginak laratzetik behera

135.- Elorriotar honen ustez, sorginak jatsi leitekez laratzetik?
(Ez, ze dino: “Zera etorriko zoan, euria!”)

Sorginak erabili

136.- Sorginak urten deutsie ala urten deusiela dino?
(Esan dino urten deusiela)

Jentilak

137.- Jentilak zelakoak ziran, handiak eta sendoak ala txikiak eta ahulak
(Handiak eta sendoak)

ZALDIBAR

Ehiztariaren oilagorra

138.- Zein izan zan oilagorrari burua soltatzeko kausa?
(Beti oilagor bera izatea)

Mari Urrika

139.- Okerra izan ezkeru, zer gertatuko jakela esaten eutsen amak?
(Anbotoko sorgina ikusiko dabela)

3.1.6. Arratia

GALDAKAO

Katua berbetan

140.- “Ez dakit zer eta berbetan”. “Zer” hori zer edo nor izango da?
(Katua)

DIMA

Zantzolaria

- 141.- Andrak bakarrik egiten ebezan galtzerdiak?
(Ez, gizonak be bai)

Laminen itxurea

- 142.- Gustatzen jaken esnea laminei?
(Bai, esnezaleak ziran)

Laminen orrazia

- 143.- Nork ostu eutsen laminei orrazia?
(Baten batek)

Laminen erpak

- 144.- Laminak eta ahateak zertan dira antzekoak?
(Erpetan)

Arre diablo

- 145.- Zelan etorri zan Afrikatik etxera?
(Lepoan parauta)

- 146.- Noz galdu eban atzamarra?
(Sugeari buztan puntea kendu eutsanean)

ZEBERIO

Hagin gorriak

- 147.- Otako zer koiu behar da igurdi-igurdi egiteko?
(Oilo korotza)

ZEANURI

Anbotoko Señorea

148.- Nondik nora ibilten zan Anbotoko Señorea?
(Anbotoko hatxetik Gorbeiaiko hatxetara)

Lanbreabeko etxeanderea

149.- Nork kontatu deutso sorginak urteten dabela?
(Amamak)

UBIDE

Sorginak bildurtu

150.- Sorginen kontuak zer sortzen eutsen?
(Bildurra)

Anbotoko Señorea

151.- Noz esaten zan han doa Anbotoko Señorea?
(Izarren bat ikusten genduanean gauean)

3.1.7. Hego Uribe

ZOLLO

Deabruak eroanekoa

152.- Atzenean non topau eben umea?
(Gurbitza artean, ahal dan lekuren baten)

Iretargia eta lukia

153.- Iretargia eta lukia deritxan ipuina, noz kontetan eutsien?
(Txikerretan)

Suge esnezalea

154.- Zelan koiu eben sugea?
(Zerrina zoruan botata)

Anbotoko Señorea (I)

155.- Zelan heldu jakoz Anbotoko Señorearen kontuak?
(Entzunez, belarriz)

Anbotoko Señorea (II)

156.- Zein fenomeno naturali deitzen jako Anbotoko Señorea?
(Izarrak batetik bestera joateari)

Tuneleko katua

157.- Zer eginik amaitu zan dana?
(Bedeinkatuta)

Lamina esnezaleak

158.- Esneak irekiten dauanean, zer esaten eban lamineak?
(Txuria gora! Txuria gora! Txuria gora!)

BILBO

Begizkoa kentzen

159.- Begizkoa egitea oraintsuko kontua da?
(Ez, ze aitaren izeko batek egiten eban)

Sorginen argia

160.- Norena zan arbolako zer gorria?
(Sorginarena)

ETXEBARRI

Arimen orio usaina

161.- Zelan igarten eben arimak egon dirala?
(Orio usaina egoalako)

Kate zaratak

162.- Zeren hotsak entzuten ziran etxe sorginduan?
(Kate zaratak)

OROZKO

Laminen orrazia

163.- Noz joan ziran sorgin guztiak kobara?
(Ha ikusi orduan)

Anbotoko Mari

164.- Zazpika kontatzen zituan egotaldiak, baina nongoak?
(Anbotokoa eta Supelorgo kobakoa)

Abade ehiztaria (I)

165.- Txakurrak zelan etorri jakozan abadeari mezan egoala?
(Ahausi eta ahausi)

Abade ehiztaria (II)

166.- Zeren itxuran igaro zan abade ehiztaria?
(Laino itxuran)

3.1.8. Txorierri

LEIOA

Laminak orraztuten

167.- Lamina bakotxak bere burua orraztuten dau?
(Ez, alkar orraztuten dabe)

Arimak

168.- Lagunduten eutsienak ez eben ikusten arimea. Zergaitik ikusten eban Juantxuk
bakarrik?
(Estadu graziatzkoan egon behar dalako)

169.- Begoñan prometiduko mezea atara ezik, zer egin beharko dau arimeak?
(Mundu guztia korriduten ibili)

Sorginen tamainua

170.- Kainabera batek daukan korapilotik korapilorako zatia baino txikiagoa da
orraztokia zeinetara sorginak sartzen ziran?
(Bai)

Eleizearen lekua

171.- Iturri ondoan egin gura eben eleizea, baina zer gertatzen zan hango beha-
rrakaz, obrakaz?
(Hurrengo egunean lekuz aldatuta agertzen ziran, eta agertu bere gaur eleizea da-
goan lekuan agertzen ziran)

Anbotoko Mari

172.- Mari Anbotokoarengana zelan sartu behar izaten zan eta zelan urten?
(Aurrez sartu eta atzez urten)

LOIU

Arimak

- 173.- Neskatoak zer esan eutsan hirugarrenean amamari, urtetan eutsanari?
(Ea zer deseatzzen jakon)

ZAMUDIO

Sorginak erabili

- 174.- Basaz hondatuta egoan mutilak zer erantzun eban?
(Sorginak erabili nabe)

Gaueko zaratea

- 175.- Besteak gizongaiak topau ebezela dino, eurok zergaitik ez?
(Erregular –antza- besteak baino moztxuagoak izango ginan, dino)

LARRABETZU

Sorginaren musturra

- 176.- Sasi guztien ganetik eta hodei guztien azpitik esan eta nora joaten zan sorgin zaharra?
(Sorginen batzarrera)

- 177.- Neskatoak gauza bi egin zituan oker, bata hegaz egiteko formula oker esan, eta bestea?
(Besapean ozpinaren orde z orioa eta hanka azpietan, alderantziz)

Defuntua agertu

- 178.- Pertsona bakarrak jakin eban Fermin agertu jakona?
(Ez, ze zabalean ibili zan barri hori)

Sorgina hil ezinik

179.- Agonia luzea daukanaren alde dirua batzen zan, nortzun artean?
(Ahal dan jenterik gehienaren artean)

180.- Artean, zer egingo dauala esan eutsan agonia luzea eduki daian?
(Kandela berdea erreko deusala)

Patakon

181.- Patakon zergaitik zan bildurgarria?
(Abereak saldu ostean dirua kentzen ebalako)

Gaua gauezkoentzako

182.- Guardasolpera sartu zan gizonak, zer esan eutsan aita erdi tratanteari?
(Gaua gauezkoentzat)

Peru eta Maria (I)

183.- Peru eta Maria behin banan joan ziran ezkontza bidaiara?
(Bai, behin banan, lehenago Peru)

184.- Bikote ezkonbarria noz konturatzen da Peru begira dagoala?
(Dinoanean: Geldi! Geldi! Guardasolagaitik ez itaundu, neurea da eta!)

Peru eta Maria (II)

185.- Dino Marik: “Umea hil egingo litzateke”, baina zelan?
(Buztarria jausiko balitz)

Orio usaina

186.- Oheko burukoa, almohadea soltau ezkerro, zer topetan zan inoz?
(Barruko lumak, almohadakoak oilasko formatxua hartuta)

3.2. ENTZUN ETA KONTATU

Gaueko zaratea (Zamudio)	Anbotoko Mari (Markina)
Kate zaratak (Etxebarri)	Eleizearen lekua (Leioa)
Anbotoko Señorea (Ubide)	Laminen bizilekua (Amoroto)
Sorginen galerea (Abadiño)	Begizkoa kentzen (Sopela)
Sorginen argia (Bilbo)	Iritxoak (Fruiz)

Entzuna kontatzerakoan, zeuk bete beren-beregi jarri zaizkizun hutsarteak.

01

Hamen laminak dagoz, _____ ba Maritxu Sanjoango eta biok etorri ginan, _____ Jose Migel Kaltzaerrotakoagaz eta horreekaz etorten ginan, baina hareek _____ Eizanen, _____ karabia esaten geuntsan, dana sasiz beterik, _____ zaratea barruntau genduan karabian, _____

Atzerantza ez pausurik emon, e? _____ baina guk Julian gogo txarragaz eta Inazio gurea, nebak, _____ eta Maritxuren lagunaren eske hasi ginan, Kaltzokortaraino _____ hurrengo egunean enterau ginan nor dan, bai zarata egiten ebana.

02

Goiz baten, eguna zabaldu orduko baina goiza, ezta? Eta sua, _____ hori izar buztanduna edo esaten jakona eta, _____ trumoihotsa lakoxe _____ Anbotoko Señorea, zerera, Anbotora etorri barik luzaro _____ atea, zera bisagrak ugertuta, zertuta, _____

03

Hor egon zan Begoñan etxe bat, sorginduta.

- _____

_____, urteak eta urteak eta urteak, gauean
aguantau ezinik kate zaratak han.

- _____

- Ba arimaren bat sufriduten daukiela, _____

04

Ez hori ez da Erandioko ermitea, hori Leioako eleizea da, hau eleizea egin gura
eben, han behean dagoan, _____, iturri ondoan
egin gura eben, esakera zaharrak, e? _____
_____ hau zan Erandioko, _____
_____, Erandio zan, eta hareek _____,
egunez egiten zituen beharrak gauez agertuten zirala edo hurrengo egunean agertuten
zirala orain eleizea dagoan lekuan, _____

05

- Ohiturea egoan.

- Izarren bat ikusten genduanean gauean _____.

- _____

_____, Anbototik Gorbeia.

06

Laminak zelan egoten ziran, erreka ondoetan - Eta, eta orrazten egoten zirala _____

- _____?

- _____ eta Arbinako zubian eta ez dakit zelako koban eta esaten euskuzan aitak.

07

Eta hamen abade _____ Eibarren eskopeta fabrikea zabaldu zanean.

08

Beno hori begizkoanaz da, beruna eta estainoa, eta horreek urtuten dira zarten baten _____

_____? Eta gero, _____ gaixoa dagoan lekuan, botaten dira, hiru kurtze egin, _____?

_____, eta abe maria bat errezau, _____

_____, urteten dau bihotzak argi, _____

_____, hori dana zabaldu egiten da, _____

_____, eta kentzen ez bada _____, estrenabako anilaren urtxua, eta ha beruna eduki dauan urtxuagaz aniltxua sartu eta ha edaten.

09

_____ Albantxegane atzenengo etxea dagoana hor, eta hor urten ebela sorginak, _____

_____ zer gorri bat _____

_____, han, Larraben, arbolan _____

Iritxoak gure amak be sarri esaten eban _____

_____?

_____ mutilak edo lotu
ezinekoak _____ iditxoak
daukaz horrek, _____

3.3. ENTZUN ETA IDATZI

Peru eta Jentila (Jatabe)	Katua berbetan (Galdakao)
Peru eta Maria (Arteaga)	Laminen orrazia (Dima)
Arimak (Amoroto)	Laminen bizilekua (Etxebarri)
Laminearen madarikazinoa (Abadiño)	Bide-lapurak (I) (Axangiz)
Txindorra (Errigoiti)	Sorginak urten (Berango)

Entzun ezazu ipuina eta ostean idatzi, jardueretan agertzen diren hutsuneak betez.

01

Ba, Jentila, Peru ibili _____ zan, kriadu egon _____ zan Peru, eta lekuren baten, eta beti kontrara egiten _____ eutsan zerak, beharrak ugazabari, eta ezin _____ eban, beragazkorik egin, ugazabak, eta batean, joan, batera, eta ardi guztiak ekarri, eta holako beharrak egiten _____ eutsan, ardiak jagoten joan eta etxera ekarri egiten _____ eutsazan beharbada, joan, mahastira, eta mahastian jagoteko esan, eta mahatsak guztiak atara, eta batzen _____ eutsazan, eta:

- Enei! Peru zer egin deustazu ba? - Eta:

- Zeuk ez deustazu agindu ba? - Ugazabari eta:

- Honegaz ezin dot, nik gauza onik egin ba - Gero, jentila egon _____ zan abade zaharren bat, lehenago jentila deituten _____ eutsien, eta harek menperatuta _____ ebazan danak, eta:

- Karta bat eroan behar deutzazu ba, jentilari - Jentila egon _____ zan hatara eta:

- Baina ni hara joaten banaz...

- Ez, ez kartearen errotan.

- Tira ba! - Joan _____ zan Peru hori ba, bildurrez baina, joan _____ zan ba, eta atea jo eutsanean:

- Nor da? - Eta:

- Peru - Eta:

- Zer dakarzu ba? - Eta:

- Zeure ugazabak emon deuste hau karta hau - Eta, karta hori irakurri ebanean, ba han egon _____ ziran han kopletan ba, bata bestea, eta esan _____ eutsan:

- Hemen lotu behar dozu.

- Baina ugazabak.

- Ez, ez, ugazaba trankil edukiko dozu, egon behar dozu hemen, biok egingo gara. - Eta jentil horrek, menperatu gura _____ eban zeozelan ba, Peru hori, baina ezin sartu _____ eban, eta batera joan eta kontrako beharra egiten _____ eutsan han bere, eta bestera joan eta, kontrako beharra egiten _____ eutsan, mahastira joan eta han mahastian bere bardin egiten _____ eutsan, eta gero, ardiak bere, ba danak etxera ekarten _____ eutsazan, jagoteko esan eta etxera ekarri, _____, ugazabari egiten eutsan moduan, oraintxe akordau _____ jakon, baina hara joan zanean, eraztuna sartu _____ eutsan, eraztun bat sartu _____ eutsan, jentilak Peruri, hara, gau haretan, eta oraintxe ba, akordau _____ jakon jentil horri:

- Zer edo zer egin behar deusat honeri ba. - Eta ardiak, banan-banan, pasetako beraren _____, esan _____ eutsan, eta zer egin eban? Ardi narru bat egon _____ zan, non edo non, gortan edo, non edo non eduki eban eta ipini, ardi narru ganetik, eta izter bitartetik pasau _____ jakon, Peru eta, eta narruari tira-tuta, jentila joan, aurrera _____ zan, edo jentila, Peru, Peru aurrera, eta atzean segidu _____ eutsan jentil zahar horrek, Peruk erre kara saltau egin eban, eta:
- Hemen noa, hemen noa, hemen noa - Esaten _____ eban zerak, eraztunak, eta uretara saltau ebanean, jentilak bere hara saltau, eta han ito _____ zan, eta Peruk urten _____ eban.

02

_____ goruetan, ez dakizu goruetan halako zertuten eta, eta, _____ andreak gizonari:

- Beti etorten jat baten bat - Eta:
- Itxiozu, neu parauko naz gaur – Eta _____, goititik gizon hori goruetan, eta zer edo zer berba _____ eta.
- Gizonak eta goruetan? - Eta ez dakit zer eta:
- Berbetan? - Jo eta katuari hankea apurtu eta hurrengo egunean auzoko atsoa, eskua _____.

03

Peru eta Maria _____, ume bat eduki ebela, eta umeak, _____ bekokian edo ez dakit ba, _____, bekokian ala ez dakit ba hemen goian zan trukil bat, urten eutsan, eta hareri _____, zer egingo eutsien _____, burduntziagaz, zuloa egin behar jakola, _____, burduntziagaz _____ zulotu, eta umea il egin jaken, gero umea hartu eta enterretan joan ziran, _____ kanposantua, urrun eduki eben eta, _____? Ate burdinazko bat topau eben han _____, eta arbola ganera igon eta ate burdinazkoa eta hantxe Maria eta Peru, eta umea _____ enterretako hurrengo egunean segiduteko euren, enterramendurako, han dagozala, behean, lapurrak, etorri ziran eta, diruak kontetan _____ goian, eta ba Maria:

- Txizalarri naz - Esan eutsan, bere gizonak _____:

- Egin hor behera - Hor egin eban txiza hori eta zeruko ezitia dala ez zeruko _____, kaka be egin eutsien, zeruko ezitia _____, eta jaten lapurrok, ate burdinazkoa eduki ezinik egon ziran legez azkenean:

- Nik ezin dot gehiago ate hori eduki - Eta.

_____! - Behean egoazan lapurrok, eta han lapurra, eskapau eben arrapalada guztian, _____ zer izan dan bat, zer izan dan dana ez eben jakin, zer pasau jaken, eta bat etorri zan susmeaten han ia zer pasau bada, esan eutsan _____, han egon ziran kontetan zeinek, Peruk esan eutsan baze lapur horre-ri:

_____! - Esan eutsan eta, ataraten egon zan mihina eta, _____? Aiztotxuagaz, _____! Mihina ebagi, mihinaren puntea, joan zan, eta ezin, mihina falta izan eban legez _____, eta:

- Brimila eta brimila! - Esaten eutsen eta brimila eta, _____, diru guztiak eurentzako gelditu jakezan, Maria eta Peruri.

04

Orraziagaz orraztu, ulea _____, laminak - Erreka ezkinetan - Erreka ezkinetan ule luzea eta orraziagaz uleak _____, eta baten batek ostu egin eutsela orrazia, han itxi ezkinan, erraka ezkinan eta gero orrazia _____, hori entzunda daukat, ene!

05

Gure aita zan, holan proban eta _____, gaztetan, _____, ibiltan ei zan, Sendoak, anaiak pilo ziran-eta, eta hor kanposantu ondoan zehar joan, eta gero bertoko mutil bat, bertoko mutil bat joan _____, eta:

- Ene! Arimeak urten dau! Arimeak urten dau! - Kanposantua dago hor:

Arimeak urten deust! Arimeak urten deust, arimeak urten deust! - Eta, baina estu mutila, eta aita gurea, praka argiekin, aita gurea eta anaia eta, proban entsaiua egin eta etxera, Agarrera, hortik _____, eta kanposantua _____, ba arimeak handixik urten dauala eta bestea ha mutila Patxi, _____, bildur itzelagaz, arimeak urten dauala eta, eta geureak izan ziran.

06

_____, urten egiten dabela eta _____! _____ esan sorginagaitik, _____, e? Gu arima egunean be, beharbada mezara bajatu _____? Kaminotik, han dagoan pinuditik, _____! Hemen arimak egon dira _____! Orioren ikatza, orio ikatza, _____, _____! Ni txikerra baina ahiztak - _____! Sorginak bai, zera, arimak.

07

_____ esaten eban, Leonardoren aitak esaten eban hori, eta gure amak be bai esaten eban, erropak jotzen edo ibili putzuan, eta ez dakit ba zer esan eben edo zer eta:

08

_____ nire osabeari pasau jakozan baten, _____ -, eta txahala saldu eban, eta txahala saldu eban eta Uarkatik, Uarkan begiratzen dau atzera eta gizon bat ikusi eban, segiduten eutsala, eta segiduten eutsala, eta gizon bat, eta zer egin eban? - _____, eta Arrandietako errotearen antzeko kurba baten, _____ - _____ zera egoten zan, honeek ura joateko honeek, _____, kantarilak, kaminoaren azpitik, ezta? Eta harek zer egin eban? _____, bertatik joaten zala, ondo hango barria, zer egin eban? Kantarilapean sartu, ze gure osabeak dirua eroan eban txahala salduta eta, eta morroia atzean, hantxe topetan, _____ kantarilapean gure osabea egon zan.

09

_____ esaten eben ba, zera, _____, lagundu ei eutsien horreek, ez dakit _____ ba txindorrek lagundu ei eutsien, _____, txepetxak egin ei eutsan, kaka edo buruan edo, ezta? Eta txindorrek garbitu eutsala, garbituten lagundu eutsala eta horregaitik, eta zerak dira, e _____, _____ dira ze inok ez deutse hareeri egiten ezer.

10

Sorginena, bai Txarminen hor goian urteten ebela eta holako jeneroak bai.

- Non esan dozu?

- Txarminen, Txarmine esaten eutsen horko mendi bateri, eta hor esaten eustan _____ akordau naz horko zahar batek _____:

3.4. IKUSI ETA KONTATU

Sorginak galduko neskea (Abadiño)	Mari Urrika (Zornotza)
Jentilak (Elorrio)	Anbotoko Señorea (Zeanuri)
Sorginak jantzan (Berango)	Orio usaina (Larrabetzu)
Sorgina zan katua (Fruiz)	Jentilak (Meñaka)
Sorgin herria (Elantxobe)	Katua berbetan (Ondarroa)

Ikusia antzeztuz kontatzeko, beltzez agertzen diren esaldiak azaltzerakoan, plagiatu bideoko hiztunaren keinuak edo jarrerak.

Horretarako, ikusi bideoa behar den beste bider

01

Lehenago goruetan ibilten ziran, goruetan eta gu egon ginan parajetik han, hurrengo, zu ibilita zagoz han, ez dakizu Leonardo eta?

- Bai, bai, Leonardo bai.

- Ba horixe, hara **joan zan itxurea, goruetan andraren bat, neskaren bat**, eta sorginen batek urten bidean, eta eukan kopetea, **haretxean eskegita itxi**, eta neskea desagertu egin zan, eta han **kurtzetxu bat egon zan**, orain arbolea botata egongo da, ez naz pasau urteetan be eta, baina lehen kurtze bat egon zan, eta han paretan ginan beti **aitearen egin behar izaten genduan**, usadioa, ezta?

Hantxe itxi bere kopetea eta neskea desagertu egin zan, geure **auzotik haraxe** doala goruetan gauez, gauez goruetan egingo zan.

02

Mari Urrika, Mari Urrika bai, Oizko zera, eta, ba zu! **Hori ikusita gagoz, e?**

- A bai?

- Bai horixe!

- Zelan ia?

- Nire amak be bai eta neuk be bai, pentsau eizu ni egon nintzan, esneagaz bajatuta Eubara, tranbiara, e? Esnea bajatzen genduan arrastegian ba **lepoan kantina** honeri sarri esan deusat lau domin egin zakuagaz min egin ez daian eta orain goizetan gehiago, goizetan astoagaz bajatzen genduan, ia esne gehiago, eta tranbiari itxaroten gagozala esnea zertzeko, eta erreka parean **baju-baju-baju-baju!** Eta kolorietakoa, e? Zerean, eta gure ama defuntea be soloan eta soloan ba altu, ze ni **Eubatik geltoki ganean bizi izan naz**, eta harek be ikusi eban eta **Euban, erreka parean baju-baju-bajuan eta barrero Zarratxutik, baina honantza ja jakina gero mendiak be zertu euskun baina, neuk be ikusia dago, badago, e?**

03

Bai jentilak, beno! Gure aititak esaten eban:

- **Gizon batzuk, beno! Zera teilaturainokoak!** - Eta:
- Zenbat ikusi dozuz ba? - Eta:
- Bost edo sei bai, jentilak - Hori, **holako barreno handi bat egoan, metro bi pasaukoa eta zati bi falta zituan holako, honenbeste inguru 60 bat edo, eta:**
- Gure aitak jaurti eutsan, goiko bentanatik lamina bati **eta palankea apurtu, altzairua, hau baino sendoagoa, apurtu behean etarte aurrean.**

04

Hemen be, Anbotoko señora be, Anbotoko hatxa dago han zerean, eta ha egunez egoten zan Anboton, eta gero **gauean pasetan ei zan horra**, Gorbeiaiko hatxetara, ezta? Anbotoko señora, eta ha be egoten ei zan zertuta, ba, zigorra egiteko eduki eban, zigor gogor bat, ezta? Eta horixe, zer hori emon eutsien, **hango hatxean egoten zan Anboton**, hori Anbotoko señora, baten geuk be ikusi genduan **hortxe, ni lagun bategaz hortxe iturrian jesarrita bai?** Eta lainoetatik sua, **hemendik alderditik harantza**, eta han nire lagunak esan eban:

- **Ene Anbotoko señora! Anbotoko señora oraintxe doa Gorbeiatik, ba Anbotorantza.**

05

- Bai, entzun dodaz horreek bere, sorginen gauzak baina, nik ez dodaz sekula, horreeri emon, mentu handirik.
- Baina zer entzuten zan?
- Ba urten egiten ebela eta **han Torreko landan han goian bere egoten zirala** sorginak, eta **han egiten ebela jantzan**, gauean, eta horreek, **baina ez dodaz sekula ikusi.**

06

Amama zahar bat egon zan hemen, larogeita hamasei urtegaz hil zan eta harek esaten eban, kurutze bideetan esate baterako, **kaminoan kurtzea badago**, hareetan **orio usaina** barruntetan zala, **eta laminak egoten zirala**, laminak, eta burukoetan eta be, igual burukoa soltau, kontetan euskun guri, **burukoa soltau** eta han **oilasko formatxuak eginda** eta egoten zirala.

07

Eta hor Gamizen, tabernatik etxera joan zan gizon bat, eta oraindino Jeobako lekukoak etorten diranak **lehengoan esan dabe geurean**, eta **hori jakin dot** aitak esanda neuk be, eta, katua miau eta miau eta miau! Aurrean, eta emon eutsan aurki ostikadea, gizon horrek katuari, eta hurrengo egunean, **beste aldeko enbrea besoa apurtuta**.

08

- Urteten eben jentilak.
- Gurdian artoak hartuta errotara, **bat harantza eta bestea honantz**, eta topez egin eben eta biak parau ziran teman, zeinek ea, pasoa itxi behar dauan, **eta jentil hori handik** pasau edo zertu zala eta, teman dagozala:
- Zeri tema gizonak? Orain hemen ez dozue temarik behar - **Ra! Oratu gurdia, eta ra! Ipini ebal** alboan, **eta ra! Oratu idi buztarria eta ra! Alboan**, eta pasau.

09

Sorginena izaten zan, Elantxobe sorgin herria dala baina ez zan izaten holan.

- **Elantxobe zelan da? Mila pobre haren beste sorgin sare.**

Euren kontuak jakin egiten zirala kalean eta gero ba jakina! Eurak alkarregaz etxean ibili behar zituen gorabeherak eta danak eta kalean jakin. Eta hauxe:

- Inor ez da eta zerean eta - Eta, ba halako baten **konturatu ziran katu bat etorten zala**. - Gauean-gauean - Gauero, katua sartzen zala, eta egun baten **ba, konturatu ziranez**, katua sartzen zala, **andreak, bere gona, gonapean, mazua eukan**, mazua edo matrailua edo, egurra edo, zer edo zer - Gizona geratu zan, ezkaratzean gizona geratu zan - Nik, e, nik andreak atara ebala beraren gonape-tik uste dot, eta katuak entzuten zituan kontu guztiak, eta handik konturatu ziran katua zala, ze, zera, kontuak eroaten zituana eta.

Orduan egin zan gau baten gizona geratu, andrearen erropekin.

Bai gorutan.

Gizona geratu zan ezkaratzean andrearen erropekin.

Erropekin eta gorutan, bai!

Eta sartu zan katua bentanatik.

Eta esan eban katuak ze:

- Gizona eta gorutan! - Besteak erantzun eutsan:
- Katua eta berbetan? - **Eta dranba! Jo eban, eta urten eban harek, tipili-tapala-tapala baina ez ekien bizi edo hil edo zer**, eta hurrengo egunean, kanpaiak, eta enterrua:
- Zeinena? - Eta:
- **Bai ondo dakizu zuk** zein hil dan eta zer. Eta, **pentsetan eben kaleko jenteak, eurak jakin egin behar ebela ha katua zein zan edo, eurak hil ebana zana, haitik...**

3.5. IRAKURRI ETA KONTATU

Irakurri duzuna kontatzerakoan, ez ahaztu, zeure erara azaldu arren, tartekatu egin behar dituzula letra *beltz etzanez* seinalatuta dauden berbak eta esaldiak. Sarritan agertuko zaizkizu *zera* berba galdetzaila edo *ba* lokailua edo *eta* juntagailua, ahaztu edo gerorako utzi dugun berbaren lekuan erabiltzen direnak, lapsus unea betetzeko. Ahozkoan ezinbesteko-edo bilakatzen zaizkigu.

ZERA	BIZIGABEAK	BIZIDUNAK
zera	zerean	-
zerak	zereko	-
zerari	zeretik	zeragandik
zeraren	zerera	zeragana
zerarentzako	zerrerantz/zerreruntz	-
zeragaz/zerarekin	zerreraino	zeraganaino

01

Bai hori kontukoa lehengoa, bardin bardina da hor Zabalen, Zabale Arrankudia-gako etxe bat dago hor, eta hor be, ama, *arenbatera* joateko eta umeak segiduten eutsan atzetik eta:

- Deabruak eroango ahal zaitu! - Eta gero, faltau egin jakon umea eta topau ezinik, topau ezinik hainbeste jente eta *zerean* eta gero, ez dakit ba, ahal dan lekuren baten topau eben, gurbitza artean hemen Basakoetxen, hemen, hemen-go, *zereko*, gurbiztidian edo.

02

Lehenago badakizu Patakonek *hamen* zer egiten eban? Baina *hamengoa*, Euskalerrikoa izan zan, ez dakit, *zein lekutakoa*, nire amak esaten eban ba beharbada enteretan zan txahala saltzean zenduala edo behiak saltzen zenduazala eta holan, eta

zer egiten eban? Bidean urteten eban, gauean, ze lehenago ba beharbada, bide, idi buztarriakaz eta, ba beharrean edo, leku ilunean eta, jakiten eban nork daukan eta nork ez daukan eta dana eta, ba, ai! esaten eutsan seguru batak beharbada topauta.

- Zer, ba ? - Eta:

- Zer pasetan da? - Aupa eta aupa eta:

- Zer ba?

- Nik daukat bildurra.

- Eta zerena daukazu bildurra ba?

- Ba begiratu behintxa saldu dot eta ba Patakonen *zera* daukat, bildurra ze dinoe kendu egiten dabezala *zerak* diruak danak eta *zera eta*. - Bera zan, bera zan, bera zan Patakon, esan eutsan:

- Emon eidazuz danak.

03

Beno hemen Fikan, etxe batek, etxe batek Larrauri izena daukana dago, eta hor, ba zaratak handiak izaten ei ziran, *zeinda* harribolak tximiniatik behera jausten ziran moduan, eta jentea ba, gauetan eta joan eta hori, neure ahiztea egon zan Fikan ezkondata eta, *harexen* denporan, joan zanen inguruan izan zan, eta harribolarik ez zala ikusten, eta zaratak itzelak eta, jente asko *gaubelara* joanda gauean, eta berak, enbreak edo *antza* esaten eutsiela:

- Ez ikaratu, ez ikaratu, ez da ezer eta, ez ikaratu. - Baina gero, bizi dira oraindionarren, haren semeak, hareri alto egin eutsien semeak bizi dira, beno, harexen aita sakristaua izan zan, eta *horreekaz zaratakaz* ba jente guztia ikaratuta eta gero enbra hori, gelara sartu, eta horrek sakristau horrek Joane, Joane eduki eban izena, horrek, atzean segidu, eta atzean segidu eutsanean, orduan eduki zituan *aurki* eskuetan, piztiok edo trasteok izan ziranok, *eta orduan* gero, parte a emon eutsien abadeari edo, eta komentu batera eroan eben enbrea, eta komentu baten kendu eutsiezan.

04

Zera laratza esaten eutsien holako, eta handik, beno! Sorgina etorri ez daiten, zaku bat, ipini gauean eta, beno *zera* etorriko zolan! Euria zanean euria, goitik behera.

05

Lukito, eta Otsoto batera bizi ei ziran, eta Lukito *ba* entzuntea edukiko dozu, *ba* zuhurra lukia, eta Otsoto *ba* koitadua behargina eta, behargina *ba* Otsoto, eta, tranparik ez, eta Lukik dana tranpea, eta egunen baten joan ei ziran auzoko etxe batera afaritan eta, *seguru bere ba*, iretargi ederra egon ei zan.

- Ene! hau da iretargi ederra! - Ha opila dagoala han uretan eta - Pozik eta:

- Otsoto!

- Hau, honeek urak danak, edaten badozuz horixe opila koiuko dogu - Eta *ez dakit zer eta badakit nor* eta, hasi ei zan Otsoto ura edaten, eta tripaz handituta, eta ezin joan ei zan auzoko etxera afaritan, eta ura dariola parau ei zan, eta Luki zuhurra izan eta Lukik, bera joan ei zan bakarrik, eta hurrengo goizean, *ba*:

- Bai, zuk egin deustazu hau niri bere, bata egingo dodala eta bestea egingo dodala, zeu joan zara jaten, horixe egiten deustazu niri - Aitak kontetan euskuzan horreek, e?

06

Hamen piratak entzunda dagoz, entzun neban hemen, hori hatxa dagoana Mundakakoa? Beno Mundaka edo ez dakit nongoa *dan* hori hatxa? Hor egon ziran, *zera* frantziskotarren komentua egon zan, han erdian egon zan, eta gero esaten eben hor, urten egin behar ebela ze piraten barkua *edo ez dakit zertzuk* etorri, zer edo zer.

07

Ba bera gizona hil eta gero harek be esaten eban *baze*, ba eskilaran edukiten eba-la beti katua, buztanari eraginka ba, ba arimen, arimen *zerean*, txistua jotzen eutsala azpiran, eta beraren gizona izaten zala esaten eban, hara beheko errekarra joan zala egun baten, lehen erropak garbitzen ba hara beheko errekaraino kaminoa baino behe-rantzago joan behar izaten zan, hemendik urik ez zan egon eta, eta han urten eutsala izara, zuri bategaz, esaten ze ba:

- Ondo etorria zara edo ondo ikusia zara - Esan eutsala, harek, izara zuridunak esaten eban.

08

Izan ziran ba, azeria, ardia eta azea, erreka batetik bestera pasau behar ebazala, eta bakotxean *banan-banan*, erreka batetik bestera zelan pasau banan-banan azeria, ardia eta azea, bata bestea jan barik, batak bestea jan barik, izan zan hori, ba lehenengo ardia pentsetan dot pasetan dabela beste alderdira, ze azeriak azea ez dau jaten, gero hartuten dau, gero beste bidaian, azea, azea eroan beharko eban baina, azea eroango eban beste bueltara? Gero azea edo hartu, eta ardiaren ondora eroan, baina gero atzera ardia hartu, eta azeria dagoan lekura ekarri, gero azeria hartu, azea *dagoan lekura*, harek ez dauan legez jaten azea eta azkenengo bigarren, hirugarren edo laugarren bueltan ardia, hara, hori *asmakizun* bat zan hor.

09

Eta gero beste baten, gogoan daukat *neuk*, daukat sinestea, eduki, aita defuntua hil, *neu* soloan nabilala hil zan, etxera baino lehenago, bestaldekoa etorri jatan, *eta*:

- Jose! - *Eta*:

- Zer? - *Eta*:

- Etorri egin behar da ba, aita hil *da eta* - Beno etxera, gero etorri nintzan bizartegian barberua egiten neban nik *ba eta*, barberutik etxera, eta begien aurrean

plast! Joan dan modu-modu-moduko zera, jazki grisagaz, agertu jatan *estratza zahar ilunean*, plau! Indarka nagoala, estratzara *bota nenduan*, Jesus Maria eta Jose! Eta etorri nintzan holan, eta aurrera, *eta aurretik aurretik aurretik aurretik etorri jatan*, patina dago hortxe, tapauta orain egongo da, kaminoa egin zanean gorantza, eta urak orain bere urteten dau hor, hortxe berton.

Luki eduki genduan txakurtxu bat edo Sorki izena eukan txakurtxu bat eduki genduan *eta rrau!* Urten eutsan txakurrak, *eta bestea uuu!* Holantxe bueltau, eta hantxe harriaren ganean lotu eta sartu nintzan etxearen barruan, hori ez jat ahaztuten inoz, egin bere ez jat egingo, hori neuri pasaukoa.

10

Eta hori *abadeen zera* eta hori, hori neuk, ezagututen dodazanak ba, Juaniko eta horreek bere, hori abadeena, lehenago abadeak *mezea amaitu orduan*, ba itxi behar izaten ei eben liburua, *ba zera, ba itxita, itxi behar, liburua itxita itxi behar* ei eban, baina izan abadea, abadea ehiztaria, ehizan gustetan jakon, eta txakurra, mezan egoala, txakurrak ahausi eta ahausi erbiren bategaz etorri jakon *zerera*, eta zer egin eban besteak, itxi mezeari *eta zera*, ba, erbia koiuten txakur horregaz, ba joan, eta gero zer egin zan kondenau.

3.6. AMAIERA EMAN

Atal honetako testuek amaiera falta dute, testua osatu egin behar da. Eman iezaiezu amaiera testuoi, ipuinean entzundakoa zeure berbakaz azalduta.

01

Luki ba, Lukirenak kontuak asko dagoz, Laiden hemendiko alderdian ez da egon lukirik, handiko alderditik egoten ziran, eta orduan ba Lukik, hemendiko alderdira pasau egin gura izan eban, Lagara, botean, eta dirurik ez pagetako, eta boteroari bere esaten eutsan pasetako eta pasetako, hemendikora ze hemendiko aldean lukirik ez dagoala eta ondo bizitzeko bera, eta ez daukala dirurik eta boteroak ez eban pasau, eta hiru egia, esango eutsazan Lukik, kontauko deutsozala, pasetan badau:

- Ba! - Bat botera igoten dauanean, kontauko deutsal, eta bestea bide erdian, eta bestea beste kaian:

- Beno sartu! – Sartu zan eta, esan eutsan:

- Inoren ama ama ona da, baina norberarena dan baino ona ez - Esan eutsan sartu zanean, eta erdian esan eutsan:

Iretargia argia da baina eguzkia baino argia ez. - Eta beste kaira ailegau zanean esan eutsan:

02

Alper handi? Ba alperra izan zan, eta, ez eban beharrik egin gura, eta jan egin gura eban, baina beharrik egin gura ez, eta, ba! Bera ez doala beharrik egiten eta, enterretako esan eutsen, bera, eta baeroien, andan, eta andratxu batek preguntau eban:

- Nor daroazue ba? Nor hil da ba? - Eta:

- Urlia hil da - Esan eutsien eta, ba - Ez dau beharrik egin gura izan eta, hil da eta orain, badaroagu enterretan.

- Ene! Ezer ez daukalako? - Eta:

- Bai.

- Ba neuk emongo deusat, anega erdi, arto.

Andra horrek esan eban, anega erdi arto, artoak izaten ziran eta, horreek, arkak egoazan lehen, orain kiloak esatea legez, eta, anega erdi arto, eta entzun eban enterruan doanak, eta, atautetik esan eutsan.

- Erreta ala erre barik? - Arto hori, jateko moduan ala? Eta:

03

Orain, esango deusut neuk be, gure amak, niri nebea hil jatan ba Afrikan hil zan, itsasoan ibili zan eta, hil zan, eta ekarri eben hona enterretako, handik zortzi egunera edo holan, esaten dau amak, agertu egin ei jakon atean, esaten dau baina bera, e! Ha bera izan zan, dino, eta:

- Ama ilun dago hamen - Esan eutsala, hori amak, oraindino bizi da, e?

- Ama ilun dago hamen.

- Ilun dago Juan Luis? Zer pasetan jatzu ba? - Eta hori esan eta eskapau egin eutsala.

04

Lukiak ikusten ebala, iretargia, eta jakina putzuan beraren gerizea, eta Juan Otso eta Lukia pentsetan dot izan zirala, eta Juan Otsori esan eutsala:

- E! Haori ura edaten badozu, han talo beroa daukazu, taloa jango dozu - Esaten eutsala eta:

- Bai eta nok edan hori dana? - Eta:

- Bai gizona! Edan eizu! Edan eizu! - Eta, hasi zala Juan Otso hori edaten, edan eta edan ura, eta edan eta edan ura eta, aizu ba, noz edo noz edan eban, baina edan ebanean, eskapau egin eutsan, taloak eskapau eutsan, eta gero jakina!

05

Genobeba de Brabante egoten zan, enamorauta ezkondu zan, eta gero, ba, beraren, maiordomoa, gizonaren maiordomoa, aberatsak ziran, eta egoan enamorauta, Genobeba de Brabantegaz, eta orduan ba, egin eban, esan eutsan, etorri zan gerrea, euren, halakoen artean, eta orduan joan zan, gizona ba, gerrara, eta gelditu zan, hori, zer izen eukan berak? Genobeba de Brabanteren, ez dakit ze izen eukan, eta geldituten da bera, eta orduan nahi izaten dau Genobebari abusau, eta Genobebak ez deutso ixten, eta zer egiten dau? Genobeba bialtzen dau basamortura, basamortura, eta, egoten da, bera hil egin behar dauan, bera eroaten dauan gizonak, esaten deutso:

- Beitu hamentxe itxiko zaitut, baina ez etorri gehiagorik, ze bestela neu hilgo nabe eta.

Eta orduan, ba geldituten da Genobeba de Brabante, basamortuan, eta basamortuan topetan dau, koba bat, eta orduan hantxe eta, edukiten dau umea, jaioten jako,

ahaztuta daukat izena umearena be, eta, ahaztuten da eta, gero gizona etorri egiten da gerratik, eta esaten dau, Sigfredo zan gizona! Gizona Sigfredo zan, eta esaten deuto, gero ba jakina urteak pasetan dira, eta mutiltxua handi eginda dago, ja hazitxua, hiru urte edo lau edo, eta, esaten deuto, Sigfredori, beno, hor urteten dau, basora, eta basoan dabilala, ba ikusten dau umetxu bat, hartzaren, hartz baten, atzetik doala, eta, ikusten dauanean umeak, zaldia, gizonagaz etorri egiten da aringa-aringa, kobara joaten da atzera, eta segidu egiten deuto, eta esaten deuto:

- Nor zara? Urten! - Baina zelango izena eukan umeak be! Eta, ez:

- Ama! - Esaten deuto - Horrek gizon horrek, horrek, urteteko dino, eta orduan esaten deuto:

- Nor zara? - Eta:

- Ni Sigifredo naz - Eta:

- Zeu nor zara ba? - Eta esaten deuto:

06

Lapurren kontua nik entzun dodana ba, Miru, eta Txistu, eta besteak ez dakit zelan eduki eban, hiru izan ziran, aurki hemen ibiltzen ziran halaseko errosariak honainokoak, tirri-tirrin-tirrin esaten eban nire aitak, eta umeak guztiak eskapetan eben:

- Haor dator Miru! Haor dator Miru! - Eta abiadaka etxera ikusten ebezanean, eta egun baten, gizon batek, zorra izan eutsan beste bateri, eta harek besteak, ba esaten eutsan beno:

- Pagau egin behar deustazu haonen egunetan.

- Baina ez daukat eta zelan emongo deutsut ba? - Eta:

- Ba, pagau egin behar deustazu. - Eta behartu egiten eban, eta jakin eban hori, Larrabetzukoa izan zalakoa daukat Miru, eta horrek jakin eban, eta etorri jakon horrerri gizonari eta esan eutsan

- Dirua eskatu deutsu zuri urliak, ezta? - Eta:

- Bai!

- Ba ez larritu, neuk emongo deutsut dirua.

- Baina zelan nik ez daukat eta zelan pagau?

07

Bai, hori zan ba gizon bat berandu ibiltzen zan eta errekea pasau behar izaten eban, bere etxera joateko, eta jakina, etxeakoak eta bildurretan eta, andreak, gizonak, zer, erretiro txarrak eta eukazala eta, beti bere bildurragaz, zer egiten eban andreak?

Hori gero, hasi zan errekea pasetan eta entzun eban.

- Bai, Lamina muna-beheko!

- Zer da Lamina muna-goiko?

- Hor atzetik datorrenari lakio!

- Bai bere emazte onak ipinita ez baleukaz boskotxa eta apio!

Ba gizonari egin orduantxe zer edo zer eta andreari esan eutsan etxera ailegauta:

- Zer dakan hik, aldean?

08

Paulinok eduki ebazan, haginak gorri bi, eta han alboan ziran mutiko batzuk, mutiko majoak, eta beti egoten zan gurean, eta jakina! Ba gurean beti umeak halan zerakaz eta:

- Paulino, Paulino horreek hagin gorriak zelan urten deusue?

- Honeek urten, urten?

- Zelan ba?

09

Neska-mutiltxu bi ziran eta aita eta ama, bai horixe be bai, polita! Eta gero, pobre-pobre-pobreak ziran, eta jakina eukien hori, egiten eben, aita egiten eban egurra, txikitu eta gero saldu, eta gero egun baten ama gaixotu egin zan, eta gero aita gelditu egin behar izan eban eta bialdu ebazan neska-mutilak, mendira, ekarten egurra, eta

zer egin eban neskatxuak? Ogi zatitxu bat hartu eta mamina botaten-botaten-botaten joan, gero bidea topetako, baina txoriak dana jan, eta gero galdu egin ziran mendian, eta halakoren baten ikusi eben hantxe urrun-urrunean argi bat dagoala eta:

- Ene! Argia dago hantxe!

Eta joan ziran, eta halakoren baten atea jo eben, jo eben eta urten eutsen sorginak, esan eutsen ze beno:

- Ai galdu egin gara!

Eta hori, ai eta nebea, txokolatezkoa zan etxea, eta nebeak zer egin eban, mutil-txuak? Txokolate zatia kendu eta jan, sorginak entzun, barrutik, eta zer egin eban? Kaiolaren barruan sartu, eta gero emoten eutsen kaiolaren barruan jaten, eta esaten eutsan neskatxuari:

- Hau lodi-lodi egiten danean laban erre eta jango dot.

Eta neskatxua negar eta negar eta negar beti egoten zan, eta egun baten ba, ia-ia esan eutsan eta, begiratu eutsan, eta ja lodituta egoan, eta beno biztu eban labea, sua eta neskatxuari esan eutsan:

- Beno ba ia hamentxe oraintxe hauxe berotuten danean, erre eta jan behar dot zure nebea.

- Ene!

Neskatxua beno, eta gero, zer egin eban horrek sorginak?

Esaten eban beste bat be, abade batek eduki ebala ama sorgina, eta nok edo nok esan eutsala, joaten ei zan mezatara abadearen, mezea entzuten, beraren semearen mezea entzuten joaten zala, eta jentea sorgina dala eta, sorgina dala eta, berak pentsetan ei eban, esan eutsiengan, ezin lei izan hori, baina itxiten baeban ebanjelioa zabalik, ezin urten izaten ei eban, eleizatik, sorgina izaten zana ezin urten, eta entzun eban legez hori beraren ama sorgina dala, zer egin deustu? Ebanjelioa zabalik itxi, eta joan bera, eta ama, etxera ezin joan, ezin urten:

- Eta ama, zer egiten dozu etxera etorri barik?

3.7. EUSKARA BATUAN IDATZI

Ohar zaitetz, jarduera honetan ez ditugula idatzi behar berriro perpausetako elementu guztiak, ezpada bizkaieran eta batuan desberdin direnak baino ez; bietarako balio dutenak ez dira ikutu behar. Adibidez:

Bizk.: Laminak hantxe bertan, Axpetik, Zaldiara bitartean, josten joan zala bat

Bat.: _____ zela _____

Bizk.: eta laminak zertu eutsala eta

Bat.: _____ ziola _____

01

Laminak hantxe bertan, Axpetik, Zaldiara bitartean, josten joan zala bat, neska bat eta jausi egin zala hantxe, eta laminak zertu eutsala eta, eskuan eroan ebazan ez dakit josteko, albandorrazak edo zerak josten, zertzuk ziran jertseak eta egiten ziranak? Hareek sartu, eta bertan hil zan eta kurtzea hantxe oraintxe dago.

02

Ba sorginak urteten dabela hemen, eta hor goian baserri bat egoten zan Lanbreabe, ezta? Eta Lanbreabe errekan, ba sorginak urteten dabela eta gu ahoa zabalik amari eta begira, eta gero ba joaten ziran hara erreka batera, sorginak orraztuten euren orraziakaz, edukiten ebezan urregorritzko orraziak, eta baten ba gorde ebezan, han eurak agertu ziranean eta, ba errekan harri baten azpian, Lanbreabeko etxeandereak ostu eutsezan orraziak, ezta? Joan ziran sorginak eta ene! Ikaratu egin zituan, orraziak ez dagozala, joan ziran Lanbreabeko errotara, eta oraindino esaten dabe atepak, bost atzamarrak erreta ateetan daukazala, gau erdian joan ziran, eta ateetan deitu eutsien, doun! Doun! Doun! Atean:

- Nor dator?

- Lanbreabeko etxeanderea! Non daukazu nire orrazia? Ez badeustazu emoten orrazia, nik egingo dot zure askazia

Eta gero ni bildurtuta, zapi zuri baten, atara eutsien, etxeandereak atera eutsiela sorginei, ba orrazia, ezta? Eta oratu eutsien zapiari eta hamar atzamarrak, markau eutsiezan zapien.

03

Lukiarenak esaten eutsan, hemen gure, gure, honeri txikerretan kontetan eutsien, gauean badakizu, urean. iretargiak, iretargia han barruan eta, taloa dalakoan, han lukia ekin putzua hutsituten eta hutsituten eta, atzanean hutsitu baino lehen errementau lukiak.

04

Txindorra esaten eben ba, zera, Jesuseri aurpegia garbituteko, lagundu ei eutsien horreek, ez dakit zein aingeruri, ba txindorrek lagundu ei eutsien, txepetxak, txepetxak egin ei eutsan, kaka edo buruan edo, ezta? Eta txindorrek garbitu eutsala, garbituten lagundu eutsala eta horregaitik, eta zerak dira, e? Txori, errespetokoak dira ze inok ez deutse hareeri egiten ezer.

05

Nik esango deutsut beste kasu bat, kasualidadez gaur dira berrogeita, zortzi urte, hil zala, andra bat, nigaz eduki eban tratu bat eginda, idiakaz labretako nik solo bi, eta arto ereiten eixeagaz lagunduteko, eta emon eustan hamen berton, bedarleku saila bat, eta, solo bueltak, sasia egiten hasita eduki zituan dana, hareek garbitu, hareetako bedarra aprobetxetako, eta gure etxea bere ba, ez zan lur askotarikoa, eta beharizana, eta hartu neutsan, urte birako izateko, baina labrantzea urte baterako, labrau soloak, ereiteko moduan ipini eta, eixeagaz erein, urte batean, eta urte bian bedarrak aprobetxetako, beno, zehatz-zehatz ipini nituan munak eta, labrantzea ailegau baino lehenago, eta behingoan goizetian munea, bedarra etorri zan eta, ebagi neban, sasiari eta indarra hartzeko leku barik, zehatz-zehatz eginda eta, korte bi ederrak aprobetxau nituan eta lantzarrak bere bai, urtea akabau zanean eta berak uztea koiu ebanean, esan eustan ze:

- Beno, Teodoro, orain beste urte beterako emongo deusudaz gura badozuz - Barrian labrantzea egiteko:
- Ez oker zagoz - Esan neutsan:
- Zer ba?
- Urte birako izan da bedarrak aprobetxatea, nik horreek sasiak danak garbitu, eta zer gura dozu orain? e? nik aprobetxau dodanagaitik, garbi-garbi eginda solo bazterrak eta ezkinak danak itxi - Esan neutsan:
- Neuk behar danik aprobetxau barik ez.
- Hori ez deustazu egingo!
- Zeuk ez deustazu egingo niri. - Esan neutsan

- Nik aprobetxauko dot hori danen ganetik, ze ni egiagaz bizi izan naz beti, nik ez dot gura ez danik, eta, zer da kasua? - Eta aprobetxau neban, gaur dira berrogeita zortzi urte hil zala, eta eduki neban, soloan, erremolatxea, eta indabea ereinda alkarregaz, nahastean, indabea kendu, goizetiko indaba txikerra zan, alogereko bat eduki neban, beharrean, andreagaz eta batzen, eta iluntzean, indabak ezkinara botata egon ziran, eta ganadua ipinita joan nintzan, indaben bila, astoagaz, eta astoak libertade guztia eduki eban indaba pilotik jatea orduan, eta astoa kargetan nagoala, da! Egin eban astoak holan, gora, jateari bere itxi eutsan, eta adi adi adi parau zan, eta zer da eta, ez ziran egon, berrogei, berrogeita bost metro pertsonaren itxuran distiratsu distiratsu distiratsu, eta harek egin eustan niri artean, ni gogortu naiakonean, alabea eduki eban hor behean gero, lastimaz hil jakon baina, etorri eta albotik pasau, eta barbarik egin barik joan da, hil zan, eta hirugarren egunean, ha hilda, agertu jatan nirean, eta asto hori neu be kargetan, ni aurrera eta:

- Zer da astoa? Otsoa ez bada garaitekoan, dominauko dogu besterik ez badator
 - Adituten dot eta, disdiratsu-disdiratsu, pertsonaren altuerea inguru, neuri agertukoa da, dardakadan etorri nintzan hona etxe ondorarte bere, eta geldi geldi geldi eta halan bueltetan zan segun ni honantza zelan natorren.

06

Lehenago holakoak asko egoten ziran baina, haan neu bizi izan nazen Zabaleko etxeak berezia dauka, eduki eban harek eta, orain bere han dauka, geure, neure osabea, mutila, ezkonbakoa, han, lamineak segidu eutsan, atzetik, andra bat esaten eban, zuri zuririk, atzean, ulea orpoetarainokoa, eta arin segitzen izan deusola atzean, esaten eban, eta ikaratuta egon zan gizona, a? Ez zan ha makala izan baina, nire osabea ez zan makala izan baina ondo ikaratuta egon zan, e? Lamineak segidu eutsala atzean eta, lamineak segidu eutsala atzean eta, lehenago holako zaratak asko egoten ziran.

07

Egon zan familia bat, gizona marinela eduki eben biboteduna, eta beno, ba libre edukiten ebanean, libre edo oporrak edo, ez dakit egoten baziran orduan baina dana dala, kontau holan egiten eben, eta zerean gorutan egiten ei eban gizon horrek, eta bentanara etorri jakon katua eta esan:

- Ene! Bizarra mosuan eta gorutan? - Besteak bartzuna hartu:
- Katua izanda berbetan? - Eginda, bota ei eutsan, hankea apurtu ei eutsan, joan zan katu hori dandarrez, hankea apurtuta, hurrengo egunean kanpora urten ebanean:
- Ene! Urlia, zer pasetan jatzu ba?
- Zeuk dakizu! - Esan ei eutsan eta bestealdeko atsoa izan ei zan katua.

08

Bai jentilak, beno! Gure aititak esaten eban:

- Gizon batzuk, beno! Zera teilaturainokoak! - Eta:
- Zenbat ikusi dozuz ba? - Eta:
- Bost edo sei bai, jentilak - Hori, holako barreno handi bat egoan, metro bi pasaukoa eta zati bi falta zituan holako, honenbeste inguru 60 bat edo, eta:
- Gure aitak jaurti eutsan, goiko bentanatik lamina bati eta palankean apurtu, altzairua, hau baino sendoagoa, apurtu behean etarte aurrean.

09

Zazpi, zazpi ahunzkuma eduki ebazan ahuntzaldi baten, zazpi kuma eduki ebazan eta joaten zan erosketak egiten bera eta, hareek han egon ziran eta esan eutsen:

- Ez deutzazue irigiko aterik inori be gero, inori be ez! Ze azeria dabil hortik eta
- Azeria edo otsoa edo, izan zala eta:
- Ez ama ez deutzazue irigiko inori aterik guk. - Eta etorri zan, jo eutsen atea eta:
- Nor da? - Eta badakizu amaren ahots suabea eta harena gogorra eta:

- Zueneko ama
- Gure ama ez zara zu, gure amak ez dauka holako ahotsik eta, zu ez zara gure ama. - Joan zan, ostera be jo eban atea eta, ez dakit zenbat arrautza jan ebazan oilotoki baten ahotsa finduteko, eta ostera be jo eban atea eta:
- Nor da? - Eta:
- Zueneko ama - Eta:
- Erakutsi hankea - Eta hankea baltza, ba:
- Zu ez zara gure ama, gure amak hanka zuria dauka baltza barik eta. - Joan zan atzera, sartu zan, errotara joan eta kaixan, eta etorri jatzu zuri-zuri eginda, eta tan-tan eta:
- Nor zara?
- Zueneko ama.
- Ikusi hankea eta atea irigi deutsie, txikiena sartu zan erlojuan, beste guztiak jan ebazan, irentsi ebazan, gero ama etorri eta enei! Lo egon ei zan, zerean errekarren ondoan egon ei zan lo, eta han egin eutsan amak artaziakin egin ebagi tripea, eta danak bizirik saltau eta ha tripea harriz bete, eta harriz bete zanean josita egarria etorri, joan, edaten ura eta pisuagaz, blus! Barrura eta bertan ito.

10

Lehenago antxina baten, ba, bizi ziran, ba, sorginak, eta egon ziran ba sorgin bat, eta eduki eban kriada gaztea, gaztetxu bat, eta egiten ei eban sorgin zaharrak, gauean, sartzen ei zan beraren gelara, eta egiten ei eban besapean, ozpina besape bietan, eta hanka azpian, hanka azpian orioa, eta esaten ei eban:

- Sasi guztien ganetik eta hodei guztien azpitik! - Eta dza! Desagertu egiten zan, eta joaten izan zan, beraren sorginen batzarrera joaten izan zan, eta hurrengo egunean bardin, eta hurrengoan be bardin egiten izan eban eta, baten, hori zertu eban, bardin egin eban eta, zerak, neskatoa begira egon zan, kriadatxua begira

egon zan zer egiten dauan gelan, eta harek bardin operazinoa egin eban sorginak, sorgin zaharrak, besapeetan egin eban ozpina, eta hanka azpietan orioa eta esaten izan eban bardin bardin ba:

- Sasi guztien ganetik eta hodei guztien azpitik! - Eta dza! Desagertu, eta bestea kriadaxua ate zulotik begira eta:
- Joino! Nora joaten da, ba? Neuk be egin behar dot ba! - Eta egin eban aldrebes egin eban, neskatoak, ba, egin eban, besapean orioa eta hanka azpietan ozpina eta esan eban:
- Sasi guztien azpitik eta hodei guztien ganetik! - Eta hor doa, eskapau eban eta sorginen taldera, ailegau zan, eta eroan eban albandorratza eskuan, neskatoak, harek kriadaxuak eta, eta esan eutsien beno, ba:
- Zu barria zara, eta mosu emon behar deutzazu, horrerri sorginari, horrerri ugazabandreak eperdian. - Ba, neskato horrek, zer egin eban? Joan zan eta bestea ba, eperdian emoten joan zan, eta mosua emon barik, albandorratza eroan eban, eta dza! Sartu eutsan eperditik, albandorratza, eta:
- Ai! - Esan eban, ba, sorgin horrek, sorginak ugazabandreak:
- Honek sorginak dauka musturraren zorrotza!

3.8. BETE HUTSUNEAK

Jarduera hau “Entzun eta Idatzi” deritzonaren antzekoa da, baina lantzeko proposatzen diren gramatika gaiak desbardinak dira.

Entzun eta letrarik bako tartek bete

01

Ez baina Araindikoari zan, gaztainak, gaztainak batuten hemen, _____ egoten ziran, gaztainak batuten, eta zerean, Mendizurietan, Mendizurietan egon zan koba bat, eta han egon zan holan lastra bat, eta han egon ziran, _____, orraztuten eta etorri ziran besteak, etorri ziran gaztainak batuta, handik pasau ziran, eta ha ikusi orduan sorginak ba danak joan ziran kobara, eta gero ba _____ eta besteak hartu orraziak eta ekarri ebezan, eta gauean _____ seguru bere:

- Juan de Arandi ekarri eizu nire orrazi ezpabere _____ Hurrengo egunean orraziak eroaten hara, Mendizurietara.

02

_____ esaten eban, andragaia eukan Arrazolan, Arrazolakoa zan gure _____, eta handik joan, eta gero hor kantine hartu lepoan eta Larraonara _____, eta han bide buelta esaten jako Larraonara baino, Hatxerdiaren bide buelta, eta _____ gora doala, berak _____ sentidu zituala, eta Juanito Txilibiterua izan zala, hori esaten eban.

03

Familia bat, familia eduki ebela, eta auzoko andra bat joan zala bisitetan, ba ume-txua ikusten dan moduan ba, _____, eta gero ba meriendea edo emon eutsan eta, ogia gustau jakon ogi zuri ederra eduki ei eben, eta haxe ogia pentsau ei eban baze, etxekoei erakusteko, _____ probetako, gorde egin behar dauala polt-sikoan, eta gorde egin ei eban eta, zera, altzetan hasten ei zan eta ezin, etxera joateko sasoi danean, altzetan hasten ei zan eta, aulkitik eta, aulkitik altzau eta ezin altzau:

- Jesus! - Pentsetan ei eban, eta osteria be handik gerotxuago ba, kontuak esango zituan eta, eta _____ eta ezin altzau, eta gero halakoren baten esan ei eutsien baze eurak:
- Zuk be gure gauza eduki - Gauza bat daukazu ba gordeta _____:

- Eta horrexegaitik ezin zara joan etxera. - Eta:

- Bai - Esan eutsen:

- Hemen daukat - Esan ei eutsen, boltsikotik atara eta:

- Hemen daukat etxekoei erakusteko, hain da gozoa eta ederra eta probetako erakutsi - Eta:

- Bai, hori itxi hor eta guk emongo deutsugu hori baino handiagoa - Esan ei eutsien:

- Hori baino ederragoa _____ Eta gero esan eutsiengan gero ederto etxera.

04

Ez, _____, ba esaten dogu, _____ ba sermoietan, Errigoitin ba, esan ei eban, hau da Errigoititik Morgara joan ei zan eta sermoia egiten frailea Morgan, eta esan ei eban fraile horrek:

_____, Anbotoko mendia sartuko ete litzake? Errigoitiar zikinik badago _____ kanpora, e!

- Handia bada baten! – Errigoitiarrak _____ - Zaran baten!

05

Ba geurean lehengusu bateri pasau jakon hori, _____, aitak urteten deusola, behin ez dakit nondik etorri zanean, han, Goirebarri ondoan, urten eutsan eguno lehenengoan Juantxuri seguru bere, eta etorri zan, ikaratuta etxera, eta:

- Aita ikusi dot, aita ikusi dot! - Esaten eutsan eta amak esaten eutsan ze:

- Zagoz isilik Juan, _____?

- Bai ama _____ Eta hainbeste denporan ibili zan bakarrik ez eban gura izaten etorri inora be, eta hareri be lagundu egiten eutsien lagunak, eta, Sarreneko Diegito defuntuak eta, lagunduten eutsien eta hara, etxeko txarritoki ondora, hareek ez eben ikusten, berorrek bakarrik, berorrek bakarrik, hori segun traza ez dau ikusten, esaten dabe ze, _____ hori ikusteko, harek ez dakit ba ze estadu graziatzko eduki eban harek gixajoak ba, esaten eben eta, esaten eban ze, gero, geuk be esaten genduazan, beno egia izango da ba, gero esaten eutsien eta berak, _____ abadeari be kontau hori eta, abadeak esaten eutsen ze, orduan, orain ez dabe holakorik sinestuten hori hareek abadeak be, baina orduan esaten eutsen abadeak ze:

- Itaundu eiozu ia zer ofreziduten jakon - Eta ez dakit nortzukaz, behin, hara etxe ondora ailegau, eta esan eutsan ze:

- Aita! Aita zeren deseo daukazu ba? - Eta, orduan erantzun eutsala berak, eta inok ezin eban jakin familian, esan eutsan:

- Esaiostazue nire arrebeari, Begoñan prometidu eustan mezea atara deistala, ze hemen nabilala mundu guztiari korriduten.

06

Lehenago _____, goruetan eta gu egon ginan parajetik han, hurrengo, zu ibilita zagoz han, ez dakizu Leonardo eta?

- Bai, bai, Leonardo bai.

- Ba horixe, hara joan zan itxurea, goruetan andraren bat, neskaren bat, eta _____ - bidean, eta eukan kopetea, haretxean eskegita itxi, eta neskea _____, eta han kurtzetxu bat egon zan, orain arbolea botata egongo da, ez naz pasau _____ eta, baina lehen kurtze bat egon zan, eta han paretan ginan beti aitearen, usadioa, ezta?

Hantxe itxi bere kopetea eta neskea desagertu egin zan, geure auzotik haraxe doala goruetan gauetz, _____.

07

- Behi narrua, _____ hamentxe, San Migelen ei dago.

- Hemen San Migeleko...

- _____ esaten eben antxina esaten eben.

- _____ be bai, esaten dabe

- Haitik mendi guztietan.

_____.

- Idi narrua.

- Hementxe.

- Esan egiten dabe, horreek kontuak.

- Baina, Sarrikoleak esaten ei eban, beraren terrenoan ez dagoala _____, berak dana egin dauala aztertu eta, han ez dagoala.

08

_____ Otatza handian, _____ Aulestian, _____ mendian gure amama, erropak garbitzen errekan, eta _____ etorri jakon, eta berba egiten eutsan hamengo modu barik giputz antzera edo, eta gure amamak esan ei eutsan:

- Entzun dozu andratxua - Esan eutsan - Zer pasau dan? Aulestian? - Eta:

- Bai, entzun dot, hamaseiko gorria ostuten dabelakoan, zortzikoia izan, eta andragizonak, andrea eta gizona eta umea hil, hamaseiko gorria ostuten dabelakoan
- Eta gure amamak esan egin:

- Enei! Ha be _____ makala ez da izan, ha _____ eta andra-gizonak hilteko.
- Baina hamaseiko gorria dalakoan - Edo esan ei eutsan berak, eta beragaz berbetan eta gero _____ harrapau eben eta bera lapurra, Aulestiko plazan urkatu eben.

09

_____ gure ama defunteak esaten eban, fabrika zaharrera, fabrika zaharra _____ “talleres”ekoari Miraballesgoari, eta Arrankudiagatik etorten zala bat, eta tunelean, tunelean _____, holako, tigre moduko, _____, gehiengan, eta lagunduten eutsala tunela akabau arte, eta gero, _____, eta, gehiago, amaitu zala dana.

10

Holakoa ezagututa nago _____, zertu, bajatu herrira, eta joan etxera, baina gorantza ni be goikoa naz, eta hiru mutil joan, eta bat desagertu egiten jaken:

- Nondik ete ba? – Mutilok _____!
- Nora sartu da hori eta? Nora sartu da hori? – Eta, nok jakin ez eta, haretxaren ganean _____, seguru.
- Beno gu bagoaz, e? Ze kantsauta gagoz begira hemen eta, zetan igon dozu horra ba? – Eta:
- Ez dakit, sorginak ekarri nabe hona.
- Indar handia eduki dabe, e? - Besteak esaten eutsien seguru:
- Ba hor lotzen zara.

_____, ez naizue itxi. - Eta:

- Ez gu bagoaz - Eta martxau eutsen seguru besteak, eta gero atzean joaken, basaz hondatuta, orduan basarik ez zan ikusten eta, bera basaz hondatuta, eta:
- Non ibili zara ba?
- _____ Besteak ez eben jakin egia bada ez bada, eta gero ibili ezin, ibili ezin, eta besteak astoa kargauta etxera.

3.9. SINONIMOA EMAN

Beltzez datozen berben atzean hutsuneak agertzen dira. Bete itzazu, beltzez da-goenaren sinonimoa idatzirik.

01

Ba ikusiko dozu, nire amak, eta ez zan guzurra izan hori, e? Orain ez dakit nik neskatoak ikusiko baeban ez baeban, baina gure amak eduki eban, auzo baten, ba, amamak urteten eutsala, hil jakon amama eta amamak urteten eutsala, eta amamak urteten eutsala, eta neskatoak **jan gura** _____ ez eta **parau** _____ zan oso **makal** _____, eta egun baten aitak esan eutsala:

- Beno alabatxu! Joan behar dogu mendira gurdiagaz otearen bila - Nire aita asko joaten zan:
- Etorri neugaz ba, mendira, eta urteten deusunean Amabirjineak, neuri, oratuko deustazu eta estu estu egingo deustazu, eta esango deustazu ia zer deseaten jakon - Beno ba, joan zala baten eta esan **ezin esan** _____ eta desagertu egin jakola, beno ostera be barriz be joan zala eta ezin esan eta hirugarrenean esan eutsan seguru, ia zer deseaten jakon eta Amabirjinearen aurrean meza bat entzuteko, baina ja neskatoa ordurako galduta egon zala odolak eta **hil egin zan** _____, hori da egia, e?

Peruk eta Mariak eduki eben seme bat, ba **apur bat** _____ tontoa edo atzeratua zan, eta, Mariak gura eban ba, haxe, besteen moduan ezkondu eta ha ipini gura eban, eta ez eukan **moldarik** _____ ba mutil horrek, andragiaia topetako, eta, auzoan ba hil zan baten bat, eta gero gaubelea egiten zan, hori be egiten zan, gaubelea be, eta gaubelea egiten zan, eta gaubelara ba, neskak nahi mutilak nahi gizonak nahi, ahal dozuna joaten zan gaubelara, eta neska gazteak be bai, e? Hantxe gaua erdi **olgetan** _____ egiteagaitik be, eta, Mariak, e, esan eutsan ba ze:

- Joan zaitez, e, gaubelara, hain lekutan dago gaubelea eta.

Esan eutsan, semi, semeari eta.

- Hantxe, jo eizu, begiagaz, neska bat, zuri gustau jatzuna, jo eizu begiagaz, eta ba, haxe gero zeuretzako - Eta:

- Ama nik zelan joko dot ba begiagaz - Esan eutsan, eta:

- Bai, begiagaz josten da, gustetan dana, begiagaz josten da.

Amak esan eutsan, eta, gero, eta mutilak zer egin eban? Ardiak eduki zituen, eta joan **kortara** _____, eta ardiei begiak atara, eta, ardiei, danei ez, bateri atarako eutsan, bateri edo biri edo, bai behintzat, eta begiak eroan zituan, bat baino gehiago be, eta parau zan, zera, gaubela, ba hamen ezta? Eta, holako leku baten jarrita edo parau zan eta, haxe begiagaz ba neskea josten eban, eta, ea zer egiten dabilan eta, **agirika egiten eutsien** _____, eta gero beste bat be, hiru edo jo zituan, eta ba, neskak eta hasarratuta, eta batek be nahi ez, eta gero, etxera joanda esan deutso:

- Ama, zuk esan deustazu niri begiagaz jotea baina ez jake gustau, eta ez noa gehiago josten.

- Zelan jo dozuz ba begiagaz? - Eta, ba:

Ardiei atara deustadaz begiak, eta harexegaz begiagaz.

- Ai seme! Hori be egin dozu! - Esan eutsan - Hori be egin dozu!

Esan eutsan, Mariak eta, gero, ez dakit ba gehiago zer.

03

Hara! Esango deusut neure aitak **esane**koa _____ eta ikusikoa, han, hau bizi dan lekuan baino beheragoan etxe barria han Bizkarre badakizu zuk, han atauteak josten zituezan, atautek **arotz** _____ batek, eta ataute lau mutilek ekarri dabe, eta ha badakizu, Patxoren, ortuaren kontran, ha landatxua, intxaurra egon zanean egon nintzanean, ez dakit orain badago, eta, esan dabe mutilak, neure aitak ikusikoa da hori, e? Neure aita egon da bertan eta, aita solteru _____ egon zan, e? Txorieneko bat hil zan, eta:

- Bera barruan balego be, laster mogiduko joagu **enbriori** _____ eta. - Berba **txarto** _____ egin eben, beragaitik andreagaitik, ze oilo lapurra izan zala andrea eta, oilo lapurra eta:
- Bera barruan bajagok be laster eroango joagu eta - Berba gure aita defuntuak esan eban egin ebela beraren lagunak, oratu deusie atauteari, ezin mogidu, ezin mogidu! Altzau ezin, eta:
- Zer pasetan jakuk? - Eta mutilak txapela kenduta, triste eta errezetan hasi ei ziran:
- Ez jaroaguk, zer pasau da? - Eurek esan daben berbeagaitik, eta errezetan, gure aitak esaten eban errezetan:
- Neuk ikusi dot neure begiakaz hori, neure **lagunakaz** _____, auzo lagunakaz. - Eta errezetan hasi eta oratu geuntsan atauteari eta altzau egin genduan.

04

Peruk eukan gatzezko etxea, eta Mariak eukan oholezkoa, eta, hori, oholezko etxeduna, Maria joan jakon Peruri eskatuten gatz **piska** _____ bat emoteko ze gatzezko etxea eukan, esan eutsan ze:

- Ezetz - Eta esan eutsan harek Mariak nahaigo heuke ekarri euri zaparrada bat, eta dana urtu, madarikazinoa bota eutsan, eta orduan harek Peruk esan eutsan ze:

- Baita neuk **barriz** _____ nahiago neuke zuon etxea suak hartu eta dana erre.

Ekarri eban euri zaparrada handi bat eta dana urtu, ekarri eban su handi bat eta dana erre, eta gero zer egin eben joan ziran biak, eta arbola handi bat ikusi ei eben eta hantxe **arbola** _____ ganean, igo eben eta hantxe egoazan biak eta gero Peru **txizazia** _____ zan, eta lapurrak egin eben, hainenbeste gauza ostu hainbeste diru zaku bete diru eta egoazan bananduten behean lapurrak, eta gero egin eban txiza eta:

- Ai! Anisak dira, hara ederra zerutik datorrena.

Eta dana edan lapurrak eta gero kakazi hori Maria, eta egin eban kaka **moltzoa** _____ pastela dalakoan jan eben eta gero danak hil. Hori geure aitak kontauneko hori ene! Ehunda piku urte eukazan aitak eta begitu. Haorixe kontetan euskun beti, eta hori ahaztu be ez hain asko entzun dogu ze. Eta gero danak hil, eta orduan Peru eta Maria bajatu ziran, hartu ebezan diru guztiak joan ziran eta egin eben jauregi handi bat eta hantxe bizi ziran.

05

Antxina antxina _____ biderik be ez zan **kontaizu** _____, orain, berehun urte edo, nik ez dakit zer, eta joan behar bazan Bilbora, oinez joan behar zan, ezta? Eta menditik, mendirik mendian zehar eta, gero, gaua be nonbaiten egin egin behar zan, eta **arbola** _____ bat e, kukulua esaten jako, inausteko zera izan da, zera, halakoaren ganean geratu, eta ni entzunda nago ba, zera, sorginak etorri eta, zera, **alkarrerri** _____ eskutik helduta arbolearen bueltan:

- Lunes y martes y miércoles tres, jueves y viernes, viernes y sábado seis - Eta bueltaka hara, ezta? Eta harek arbola ganetik:

- Y el domingo siete! - Esan eutsela eta, danak **joan** _____ zirala.

Ba andra bat egon zan, esaten eben sorgina dala, jakina izan zan andrea ba, normala ez da, baina itxura bat eduki eban, beno, oraintxe be **akordetan** _____ naz neu be, atso zahartxua begi azulakaz eta, sorgina dala esaten eben, eta han egon zan, haren tailepean andra bat, oso txarto **gaixorik** _____, agonian, egunetan agonian, eta ezin hil ezelan be, eta lehenago egiten zan holan, agonia luzea daukanari, dirua batu, eleizan, eleizan edo dirua batu, meza bat atarateko, esate baterako, eta zenbat eta jente gehiagok emon hobeto, eta bakotxak emoten eban zentimo bat edo holan, zenbat eta jente gehiagok parte hartzen eban hobeto, esate baterako meza batek balio izan baeban ba, bost pezeta orduan esaterako, mezea **abadeari** _____ emoten bajakon estipendio lez, ba bost pezeta emoten bajakon, ba ha dirua, hareek bost pezeta **batzea** _____ komenidu izaten zan, hamar lagunen barik ba, mila lagunen artean hobeto eta horregaitik bakotxak zentimo bat edo, holan emoten eban, eta, hori mezea emoten zan eta orduan esaten eben nasai hiltzen zala, eta hor kasu horretan, orduan orain, ganera ezagutu neban hori, gaixorik egon zana ez neban ezagututen bestea bai, sorgintzat egon zana, eta don Juan hemen abade egon zan, abadea oso majoa zan, eta esan eutsan:

- Maritere mesedez joan urliagana - Leonardoren **amaxeagana** _____ izan behar zan, hil ezinik hainbeste denporan eta ezelan be hil ezin andrea, eta medikuak be ikaratuta, eta, joan zala, joan haregana:
- Eta hareri parkeske eskatu, ze zeure parkazinoaren begira dago ha - Eta ezek be ez dau balio harentzat, trankilduteko eta, eta joan zan eta parkeske eskatu eutsan eta, ensegida hil, eta antza artean esan eutsan horrek:
- Neuk kandela berdea erreko deusut, ba zeuk agonia luzea eduki daizun...- Badakizu holako gauzak, ezta? Ba lehenagoko hasarreak eta gora-beheretan, eta antza horixe.

Girrintzak eta dirala eta, nire osabeari pasau jakon, joan zan Gorkizera, eta han idiak **itxita** _____ etorri zan, idiakaz joan zan hara laietan, eta etorri zanean, gaua edo, ilundu egin jakon, baina farolagaz etorri zan, eta etorri zan, Gorkiztik, baina Gorkiztik hortik **goitik** _____, hortik goitik basora, Andrakara urteteko,

Andrakara etorteko, Andrakakoa izan zan eta, eta ez eban **topetan** _____ alanbradurak baino, alanbradurak baina danak pasetan ebazan, eta alanbradurak eta danak **pasau** _____, eta Lemoizera ailegau zan, eta Lemoizen kanpak egin eutsan, eta jo Lemoizen, esan ei eban, pentsau eizu zelan egongo zan:

- Niri sorginak ibili jataz, gauean. - Negar egiten eban, e? Eguno ez eban egingo, negar eta negar egiten eban.
- Sorginak gauean ibili jataz.
- Zer ba? - eta:
- Alanbradurarik alanbradurara ibili naz eta Lemoizeraino **ailegau** _____ naz. - Esaten eban.

08

- Urteten eben jentilak.
- Gurdian artoak hartuta **errotara** _____, bat harantza eta bestea honantza, eta topez egin eben eta biak **parau** _____ ziran teman, zeinek ea, pasoa itxi behar dauan, eta jentil hori handik pasau edo zertu zala eta, **teman** _____ dagozala:
- Zeri tema gizonak? Orain hemen ez dozue temarik behar - Ra! **Oratu** _____ gurdia, eta ra! Ipini ebala **alboan** _____, eta ra! Oratu idi buztarria eta ra! Alboan, eta pasau.

09

Antxina bere egon egiten ziran, gure aita bere ikara **itzela** _____ hartuta egoten zan, joaten zan, Armintzara ha bere joaten zan portura, portua egiten, ha egiten gure aita bere, eta goizean urteten eban, ba bostak **inguruan** _____ edo, oinez joaten zan eta, baina atzean nor edo nor, eta atzean **nor edo nor** _____.

- Gaur hartuko dodan **laseko** _____ ikararik! - Esaten, atzean sarra-sarra, sarra-sarra asmetan, eta atzera **adituten** _____ bildur, aurrera! Sarra-sarra, sarra-sarra!
- Ttio! oraintxe bizi edo hil! Oraintxe aditu behar dot - Eta aditu eta garrikoa narraz!

10

Hemen, ba solo baten, sugeari **buztan** _____ puntea kendu, eta gero joan zizkila Afrikara, eta, Gabon egun, entzunda daukazu? Gabon egun baten, etxera etortea, **Gabon gauean** _____ pentsau ebala, Afrikan:

- Enei! Gaur, ba, etxean egotearren ez dakit zer emongo neuken - Esan ebala, ba mutilak, eta:
- Etxera joatea gura dozu? - Esan eutsala baten batek eta:
- Bai joango nintzake.
- Ba neuk eroango zaitut - Gauean zertuteko afalduteko. - Parau **lepoan** _____ - Ez daukazu hori entzunda? - Ez - Ondo ondo ez dakit eta - Parau lepoan, etortzen ba, jausten eta, zarrapastadea egiten badot, esan arre diablo - Eta urten eben, lepoan hartu eta badatoz honantza, eta **laprast egiten** _____ ebanean:
- Arre diablo! Arre diablo! - Esaten ebala eta, ailegau zizkila eta ba etxera, Aldekoetxeko anaiak esaten eben, ez daukazu entzuterik Aldekoetxeko anaienik? Bai Patxi Ziarsolo eta..., eta ailegau zala eta:
- Beno ailegau gara. - Eta erakutsi eutsala atzamar txikia falta izan ebala, horrek ekarri ebanak arre diablo esateko esan eutsanak:
- Ikusten dozu hau atzamar txikia zelan daukadan falta? - Eta:
- Bai.

- Akordetan zara han Aldeiko soloan zelan suge bateri kendu zeuntsan, buztan puntea? - Eta:

- Bai.

- Ba hauxe da kendu zeustana niri.

Deabrua _____ izan zala edo nik ez dakit ba hori zer.

3.10. BERBA AUKERATU

Ipuin bakoitzean testuaren ordezkari zenbakia agertzen da. Zuk aukeratu azpiko berbetarik bat eta ordezkatu zenbakiduna.

01

Eta beste baten be Baltzola, badakizu Baltzola? - Bai, bai - __1__ egiten ziran orduan gauean, eta mutil bat Bargonditik, Bargondi badakizu non dagoan? Nire auzoa - Bai gitxi gora-behera - hementxe goian, hementxe goian eta ni horkoa naz, eta Bargonditik joaten zan Baltzolarara berbetaldia egiten, berbetaldian egiten ziran galtzerdiak, ba ardilanazkoak, kardau ardilaneak, txabilan egin __2__, gero galtzerdiak egin andrak, gizonak be egiten zituen orduan batzuk baina, eta batzuk goruetan be bai, eta gauean urteten eban orduan, Baltzolan, Bargondirako egiten ei eban ijiji! Gizonezko horrek eta, __3__ entzuten eban ijiji! Beste alderdi batetik eta:

- Jesus! Nor ete da? - Eta bidean, bide erdian __4__ ijiji! Eta, ostera bere kontestazioa, erantzun ijiji! Hurrago, etxera sarraidan balkoian ijiji! Egin ei eban eta atarian ijiji! Eta da! Ixten dau atea, eta hamar __5__ markau ei eutsazan atean.

1	2	3	4	5
kantaldiak	ogia	urrin	atzera	erantzunak
berbetaldiak	haria	bertan	agertu	atzamarrak
berbak	lodia	kanpoan	ostera bere	izarrak

02

Sorginak, sorginen __1__, haor, Kanalatik etxera ei etorren hamengo gizon bat Arteagako bat, eta hor, Argatxeko, kobearen __2__, Argatxeko zera egon zan, harextia egon zan han eta, dana ardia, txarrikumea, ku ku ku! eta, hara __3__ jaten, eta bat beraren aurretik, aurretik, aurretik:

- Hauxe etxera eroan behar dot __4__, inok be ez daki hau inok eroan dauana eta
- Beragaz luzaroan ekarri ei eban, txarritxu bat, eta, eskapetan hasi jakonean:
- Jesus! Zer pasetan da ba? - Eta desagertu jakon txarri hori, eta sorginak izan ziralara, antxina Jesusen izena, Jesus eta ba aitearen eta __5__ eta desagertu egiten ziran.

1	2	3	4	5
istorioa	aldamenean	ezkurrak	gauetz	egin ezker
kontua	ondoan	kuzkurrak	neugaz	egin gero
ipuina	ganean	egurrak	hegaz	ekin eta gero

03

Baina ipuinik, eta egiazkoa da hau, handiena Lekeition pasau zana zan, ez dakit zenbat urte dan hau, oraindik hori argituteko dago, hemen egoan familian, Motxunenekoa esaten eutsena, __1__, eta ziran Antolin eta Maria ziran, eta Pedro Mari eukien euren gurasoa aita, eta hau zana, arrantzaleak esaten dabenez euren aldiko egon zan seinerurik onena, ze seineruak igarri behar izaten eutsien itsaso ona edo txarra zer egingo eban, eta familia handia zan legez, __2__ ibiltzen ziran Gabonetan, aterik ate kantetan, kantau errezau, koitaduak eta, gero marea bitarteetan portuan lapatan eta bizitza gogorra eroaten eben, baina gauzak halantxe ziran orduan eta ba, halan hartzen ziran, pasau jakien ba matordua hiru bider egin behar dogu egunez, gitxienez gosala-

du, bazkaldu eta afaldu eta afaritarako, ba kabrak, itsasoko kabrak, ez lehorrekoak, itsasoko honeek arrain __3__ izaten diranak eta ekarri eben eta orduan ipinten zan, kabra patata pilo bategaz, asko dagoan lekuan ze kabrea gozoago da patatea baino biak ipini ezker, baina zeozez bete egin behar dozu, estopean zeozegaz emon egin behar deutzazu eta han egoan kurtzelu hori azkenez geratu zanean pobreenetara, ze behar eban orioa eta egiten zan izurdeen zainagaz, lehenago baleagaz egiten zana, zaina badakizu zen dan? Orioa. Berari egosita ataraten jakon orioa, haren azalagaz egiten zan, eta han San Juan Talegon egiten eben hartu eta ipini __4__ eta han urtuten zan, ba, usain bat botaten eban, eta honek kurtzelu hori biztuta eukien, eta han eutsen euren euron afaritxua jaten, eta azkenean geratu zan kabra bat, eta errespeto edo heziketea edo ez dakit ba zelan azaldu hori ba, ba alabeak esan eutsan aitari:

- Aita, jan eizu zuk.

- Ez, ez, jan daiala Juanek ze honeek koitaduak gitxiago jan dabe guk baino.

- Ez, ez, hartu eizu, hartu eizu.

Eta horretan ebiltzazala, orio gastau jakon kurtzeluari, eta geratu ziran ilunetan, gau ilunean geratu dira, topau behar zan potua non egoan bestea, eta bestea behar zan eta denpora hori be joan zan, eta halako baten egin ebenean bete eta biztu ebenean kurtzelua __5__ ez, eta atara deutzue manjujia esaten jakona hemen drogea hasarrea, bata zeu izan zara, katua izango zan, katua kanpoan ei egoan, katua kanpoan ei egoan, eta egin eben euren hasarre gogorra, eta oraindino gaur be, inok ez dau argitu nok jan eban ha kabrea, hau Motxuneko kabrea famadua da, eta oraintxe be Motxuneko kabrea, halan, hasarre sortzen danean ezin, konpondu, zaharrak:

- Ea berton pasetan dan Motxuneko kabrearena, e?

1	2	3	4	5
gaitzizena	ortozik	orritxuak	galderetan	kabrarik
abizena	oinutsik	gorritxuak	galdaretan	abarrik
ezizena	pozik	itsuak	alde haretan	bakarrik

Euren kontuak jakin egiten zirala kalean eta gero ba jakina! Eurak alkarregaz etxean ibili behar zituen __1__ eta danak eta kalean jakin. Eta hauxe:

- Inor ez da eta zerean eta - Eta, ba halako baten konturatu ziran katu bat etorten zala. - Gauean-gauean - Gauero, katua __2__ zala, eta egun baten ba, konturatu ziranez, katua sartzen zala, andreak, bere gona, gonapean, mazua eukan, mazua edo matrailua edo, egurra edo, zer edo zer - Gizona geratu zan, ezkaratzean gizona geratu zan - Nik, e, nik andreak atara ebala beraren gonapetik uste dot, eta katuak entzuten zituan kontu guztiak, eta handik konturatu ziran katua zala, ze, zera, kontuak eroaten zituana eta.

Orduan egin zan gau baten gizona geratu, andrearen erropekin.

Bai gorutan.

Gizona geratu zan __3__ andrearen erropekin.

Erropekin eta gorutan, bai!

Eta sartu zan katua bentanatik.

Eta esan eban katuak ze:

- Gizona eta __4__! - Besteak erantzun eutsan:
- Katua eta berbetan? - Eta dranba! Jo eban, eta urten eban harek, tipili-tapala-tapala baina ez ekien bizi edo hil edo zer, eta hurrengo egunean, kanpaiak, eta enterrua:
- __5__? - Eta:
- Bai ondo dakizu zuk zein hil dan eta zer. Eta, pentsetan eben kaleko jenteak, eurak jakin egin behar ebela ha katua zein zan edo, eurak hil ebana zana, haitik...

1	2	3	4	5
gainbehera	sartzen	ezkerrean	garaietan	zailena
gorabehera	sortzen	ezkaratzean	gorutan	zeinena
gai berak	zer zen	eskatzen	horretan	zuena

05

Amama zahar bat egon zan hemen, larogeita hamasei __1__ hil zan eta harek esaten eban, __2__ bideetan esate baterako, kaminoan kurtzea badago, hareetan orio __3__ barruntetan zala, eta laminak egoten zirala, laminak, eta burukoetan eta be, igual __4__ soltau, kontetan euskun guri, burukoa soltau eta han __5__ formatxuak eginda eta egoten zirala.

1	2	3	4	5
ekaz	kurutze	gordina	burukoa	oholezko
eskas	urten	usaina	bertaltoa	oilasko
urtegaz	bertan	lorrina	barrukoa	ulezko

06

Eta beno ba, Mundakako andra horregaz egon tabernan eta joan zan eta beno ba:

- Ikusiko dozu ba zelan __1__ jatzun ja, eta egizu horixe beharra eta ez dozu gehiago etorri beharrik edukiko, zuk trankil segidu horixe egiten eta osatuko jatzu.
- Eta, berak handik urten ebanean pozik dino ba:
- Oraintxe dominauko zaitut zu, zure gauzak esan deustazuzanak, ba neuk dominauko dodaz oraintxe - Ba pentsau eban aitak, pentsamentua bakarrik, esan ezer be ez! Urten ebalá dino tabernatik, eta Sollubeko, Sollubetik oinez orduan, Mundakatik edo, Mundakatik hona oinez, __2__ baso Arrietatik, eta ibili eta ibili, eta ibili eta ibili eta ibili eta ibili eta inoz ailegau ez etxera, eta ja, kantzau be ez! E? Eta ibili eta ibili esaten eban aitak, eta ibili eta ibili, baina non dagoanik ezin __3__, non dagoan, eta erreka ezkina baten, ura korrientetxua dagoan erreka ezkina baten, jesarrita parau zala, zigarro bat, erreten hantxe parau zala, eta

adi ezkina guztietara eta, inor eta ezer __4__ ez eta inok ez eutsan ezer egiten baina, ezin ailegau etxera eta ezin igarri non dagoan, eta esan eutsala hantxe erreka ezkinean zigarrotxua erretan dagoala esan eutsala:

- Niri, Jaungoikoak ez ete deust emongo entendimentua, non nagoan jakiteko?
- Holantxe gora adi parauta esan ebala:
- Ez ete deust emongo entendimentua non nagoan jakiteko! - Eta __5__ laino ilun bat pasetea moduan ra! Argitasuna etorten jakola, eta taka-taka-taka! Handik gora, etxera.

1	2	3	4	5
sendatuko	auzorik	aurkitu	agiri	ezin
osatuko	basorik	garbitu	argirik	zeinda
galduko	guztiori	argitu	biderik	hain

07

Lehenago goruetan egiten eben andrak, gauean, zera, __1__ linoa iruten egiten eben eta halan, andreari sutondoan __2__ gelditu eta, sorgina etorten jakola tximinia-tik behera, eta zera, gizon hori etxean eta gizona plantetan zan baina ez jakon etorten, eta halan, denporea, __3__ aurrera eta, egun baten bera plantau zan gizona, jantzi andrazkoaren gonak eta zerak eta, goruetan, eta, burduntzia sutan, gorituta eukan, eta, ez jakon agertzen baina, halako baten, etorri eta esan eutsan, __4__ behera etorrita:

- Bizarrak eta goruetan? - Eta hartu eban zer hori eta sartu eutsala, eta baina joan zala atzera gora:
- Katua izanda berbetan? - Esan eutsala atzera, eta gero __5__ auzoko atsoa da-goala gaixorik.

1	2	3	4	5
gurean	goruetan	ardurea	baratzean	aldamenean
zerean	orduetan	denporea	laratzean	biharamonean
zubian	lotan	itxurea	ertzean	berdegunean

Ez dakit ba zelan zan be baina bat __1__ entzunda, ei zan, hankabakarra edo, eta, ardi taldeagaz ibilten ei zan, eta gizonak jaten ei zituan ez eukan beste zer janik eta gizonak, eta engainauta ekarten ei zituan barrura, eta baten be ardi talde handiagaz ei egoan eta edurra egiten ei eban eta, esan ei eutsan lagunduteko barrura, ardiak gorde-ten, eta afaria emongo deutsalara, eta sua eginda ei eukan eta, beste horrek ikusi ei eban sutan, eukala pertsonaren hankea lapikoan sartuta __2__:

- A bai! - Pentsau ei eban:

- Lehenengo horrena janjo jok eta gero neurea jango jok horrek, baina ez jok jango ninerik - Pentsau eban, eta egin ei eban, ardiei atea zabaldu, eta ardi artean pasau bera, ba besteak igarri, eta ardiei danei holan __3__, eskuagaz pasetan ei eutsen, hankabakarra ala __4__ ez dakit zan hori, begibakarra pentsetan dot izan be, begibakarra, eta ardiei danei holan kolpe eta egin ei eutsen, bazterrean ei eben eskegita ardiaren narrua, eta bera harexegaz tapau, eta ardi taldean pasau ei zan, eta gero esan ei eutsan, zelakoa zan esan eutsana? __5__ ei zan esan eutsana ba, nik jakin izan banaioan hori, lehenago egin behar neban, eta sutan ei eukan, burduntzia esaten jakona, burdina, burdina berotzen, ei eukan, eta bera, gizon hori egoala, distraiduta, egin ei eutsan, begi bakararra zan horixe, egin ei eutsan burdina bero hori berari sartu, beste begian eta han geratu ei zan, itsututa eta ardiak hartu eta eskapau ei eutsan beste horrek.

1	2	3	4	5
badaukat	gogortzen	lepoan	akerra	zelebrea
badot	egosten	alboan	bagibakarra	zeharbidea
bakarra	zertzen	kolkoan	aldebakarra	sarbidea

Ba beherainoko ulea edukiten eben eta txikiak ei ziran botilaren beste ingurukoak edo ez dakit ba __1__ izan ziran, ni txikitxu izan nintzan eta, eta han iturrian orraztu, eta bertan itxi orrazia ahaztuta, eta ha izan zan legez, herri bidea albotik, __2__ es- tratzea esaten jakona, __3__ aldian ba gizon bat joan ganaduakaz gurdiagaz, eta ura

edaten joan eta ha orrazia topau han, han ikusi, eta gixajoak __4__ koiu eta etxera eroan, eta gero barrian joan zanean urten ei eutsan lamineak, esan eutsan:

- Niri ekarten ez badeustazu intzuzko orrazia, neuk kenduko deutsut aurrean daroazun behi txikia. - Eta __5__ egin eutsala, orrazia.

1	2	3	4	5
zelakoak	pasoetarako	barrengo	orrazia	ahoan
zulakoak	basoetarako	zaharren	harresia	eroan
ze lekuak	bi eratako	hurrengo	berezia	buruan

10

Beste bat kontetan eban, __1__ egon zirala hamen Ogoñon, pentsau zelako urteetako gauzak! Laminak egoten ziran, laminea zeri esaten eutsien? Bertan basoan hazinekoak edo jaio edo hazinekoak edo, kobetan edo, ba holakoxe __2__, eta han, orain Karmen eta bizi diran lekuan, Karmen Altza bizi dana, han behean bizi ei zan, izena esaten eban berak andrearena, eta egon ei zan, __3__ ipinita, txorizoa erreten, eta etorri ei jakon laminea eta, barea, makilan berak be barea ipini:

- Zuk koipetsu eta nik akatsu, zuk koipetsu eta nik akatsu. Eta halako baten, ernegau eragin eutsanean, zer egin eutsan andreak? Burduntzia begitik sartu, horretarako esan ei eutsan lehenengo:

- Zelan daukazu zuk izena?

- Nik neuk. - Eta harek andreak nik neuk, eta joan ei zan begitik sartu burruntzia eta negarrez joan ei zan lamina hori etxera, eta ze:

- Nok egin deutsu ba? - Eta:

- Nik neuk.

- Heuk egin badon heuk osatu eina! - Egiten ei eutsan:

- Nok egin deutsu? - Eta:

- Nik neuk - Ze nik neuk esan eutsan izena eta:

- Zuk __4__ eta nik akatsu - Eta ernegau eragin eutsanean besteak burrunzia sartu __5__, eta negarrez joan zanean eta:

- Nok egin deitsu? - Eta:

- Nik.

- Heuk egin badon heuk osatu eina!

1	2	3	4	5
burdinak	zer edo zer	zotzean	gogotsu	behetik
laminak	zerez	hotzean	koipetsu	begitik
mihinak	sugertez	ezkatzean	beheko su	beti

4.
ERANSKINA

Eranskin honetan testuen ulermena oztopa dezaketen berbak paratu ditugu euron esangurekin. Hiztegi antzera agertuko dira, kategoria gramatikalak, adiera desberdinak, erabilpenaren oharrekin eta kasu askotan dagozkien sinonimoekin.

A

abiadaka: 1 adond. zerbait presaz, arineketan egin. 2 adond. oinez abiadura handiz ibili: abiadaka joan da. Sin. Lasterka, arineketan, arrapaladan. Ant. Astiro, geldiro

abiatu: da/du ad. 1 norabait joateko bidean jarri: zer ordutan abiatu da mendirantz?. Sin. Atera, irten. Ant. Geratu. 2 zerbaiti hasiera eman: euria abiau du. Sin. Hasi, ekin. Ant. Amaitu

aditu: du ad. 1 norbaiten erregu, eskari edo oharretara adi, arretaz egon. Sin. Entzun, begiratu. 2 esaten denaz jabetu: ez entzun egin badu ere, ongi aditu du. Sin. Entzun, sumatu, ulertu. 3 zerbait ziur jakitera heldu ez arren, aurretiaz antzeman. Sin. Sumatu

agiraka egin: dio ad. ondo ez dena egiteagatik edo, garratz hitz egin, lotsak eman. Sin. Erasi, haserre egin, errieta egin. Ant. Txalotu, laudatu, goratu

aguazil: iz. [ar. al-wazîr, ministroa] udal-ordena eta aginduak betearazten dituen. Sin. Udaltzain, txinel

ahausi: iz. txakurraren hotsa: txakur txikitxo baten ahausia entzuten da. Sin. Zaunka

ahausika: adlag. behin eta berriro zaunka eginez. Sin. Adausika, zaunkaka

ahunzkuma: iz. (Zool.) ahuntzaren kumea, arra nahiz emea. Sin. Ahuñe, antxume, ahume

aitearen egin: du ad. Gurutze Santuaren ezaugarria egin eskuaz

akabuan: adlag. 1 halakoren batean, denbora luzea igaro eta gero: itxaron eta itxaron, azkenean heldu zen. Sin. Azkenik. 2 zerbait amaituz doanean, zerbaiten bukaeran: mende honen akabuan. Sin. Hondarrean, amaieran, bukaeran. Ant. Hasieran

akaburengo: izlag. dagokion izenaren aurre-aurrean jarri, hark ez duela bere ondoren ezer nahiz inor adierazten du: jaietako akaburengo eguna dugu. Akaburengo lasterkaria heldu da helmugara. Sin. Azken. Ant. Lehen, lehenengo, aurreneko

akordau: da/du ad. 1 pertsonen artean erabaki bateratsua hartu. Sin. Berbatu, adostu, hitzartu. 2 korde gabe lotan egon ondoren esnatu. Sin. Iratzartu, itzartu, itzarri. Ant. Loak hartu. 3 zerbait burura etorri. Sin. Oroitu, gogoratu, bururatu. Ant. Ahaztu, ahantzi

akulu: iz. puntan ezten edo ziria duen makila luzea, abereak ibilarazteko dena: probetan akulu zorrotzez ziztatzen dituzte idiak edo zaldiak. Sin. Pertika

alanbradura: iz. alanbre-sarez nahiz arantzadunez egindako hesia: soroetan abereak sar ez daitezten eta gerratean arerioei bidea eragozteko alanbradurak jarri ohi dira

albako: iz. eguna argitzean jotzen izan den kanpaiaren izena

albandorraz: albaintzeko (albanduteko) erabiltzen den jostorraz

aldea: iz. 1 kaletik bakartuta aurkitzen den etxebizitza. 2 herrigunetik edo elizaldetik berezirik dagoen lekunea, mendi barnea: aldean bizi gara. Sin. Baserri, aldea-etxe

alogereko: iz. 1 alogera irabazteko behar egiten duen pertsona 2 ugazabaren esanera lan egiteagatik jasotzen den honenbestekoa. Sin. Lansari, soldata, alokairu.

amantal: 1 iz. arropak ez zikintzearren, idunetik zintzilik eta atzealdean lotuz, belaun ingururaino iristen den gaineko jantzi arina. Sin. Amantal, mandar

amaxe: iz. ezkontidearen ama bestearentzat: senarraren ama da emaztearen amaxea, eta emaztearen ama senarraren amaxea. Sin. Amaginarreba, aube

anda: iz. 1 (Pl.) lauren artean zenbait zama sorbaldez sorbalda garraiatu ahal izateko, bi haga luze ertzetan paraleloki ezarriarik dituen zurezko egitura: Olentzaro andetan erabili zuten kalez kale. 2 (Pl.) eri, elbarri nahiz zauritua erabiltzeko kamaina: lau gizonen elbarri bat zeramaten andetan, Jesusi erakusteko asmoz. 3 hila garraiatu eta ehorzteko hilkutxa: orain dela gutxi bizi-bizi eta osasuntsu zen mutil gaztea, andan dugu gorpu. Sin. Zerraldo

anega: iz. labore eta lurreko beste zenbait emaitza pisatzen erabili ohi den neurri zaharra (50 kilo inguru ditu, baina toki batetik bestera badu alderik): bi anega arto eraman ditu bolu edo errotara

aingeru: 1 iz. espiritu hutsezko izakia: aingeru jagolea. 2 izond. ingurukoentzat atsegingarri den pertsona zintzo eta ona denaz esan ohi da

angeru: ikus aingeru

antxina: adond. orain dela urte asko: Santimamiñeko marrazkietan ageri denez, antxina bisontek bizi ziren Euskal Herrian. Sin.

argiontzi: iz. argia babesean edukitzeko tresna: antzina olioeko argiontziak erabiltzen ziren. Sin. Kriseilu, lanpara, farol

arima egun: iz. eliza katolikoan hildakoen alde otoitz egiteko egun berezia, azaroaren bira

aringa: adond. presaz, bizkor, abiada bizian (moduzko aditzondoa da): aringa aritzeak okerra ekarri ohi du sarri. Sin. Lasterka, arineketan, presaka, arrapaladan, arin-arin. Ant. Astiro, geldiro, poliki

armozu: iz. goizean hartzen den lehen janaria: armozutan, fruta eta kafesnea hartzen ditudan bitartean, "Berria" irakurtzen dut

aro: iz. atmosferak duen egoera: kaletarrentzat aro ona dena, txarra izan daiteke baserritarrentzat. Sin. Aro

arrapaladan: adlag. zerbait arin-arinka, abiadura handiz egiteari deitzen zaio: arrapaladan etorri da. Sin. Presaka, arineketan, lasterka, karraderan, galapan. Ant. Astiro, geldiro

askazi: iz. 1 elkarren artean odol erlazioa duten pertsonak. Sin. Senide, ahaide. 2 familia bateko jatorria edo arbaso berberengandik datozen belaunaldien segida: ‘Andre Garazi, Andre Garazi/ ekarzu nire orrazi/ bestela galduko dizut zure ondorengo askazi’. Sin. Leinu, sortzapan, etorki.

ataute: iz. hila garraiatzeko eta lurperatzeko hilkutxa. Sin. Zerraldo, katabut

atzen: 1 adond. eta izond. aldiz nahiz tokiz, beste guztiak baino atzerago edo atzeko muturrean dagoena, heldu dena...: lehenak atea zabaldu, erdikoak iragan baino ez eta atzenak atea itxi. Aretotik atzenengo irteten denak itzal dezala argia. 2 iz. zerbaiten amaierako aldia nahiz amaiera bera: hitzaldi aspergarri horrek ez du atzenik. Sin. Bukaera, amaiera, akabu. Ant. Hasiera, hastapen. 3 dagokion izenaren aurre-aurrean jarririk, hark ez duela bere ondoren ezer nahiz inor adierazten du: jaietako atzenengo eguna dugu. Atzenengo lasterkaria heldu da

aube: iz. ezkontidearen ama bestearentzat: senarraren ama da emaztearen aubea, eta emaztearen ama senarraren aubea. Sin. Amaginarreba, amaxea.

aurki: adond. esaten dena gerta litekeena edo zatekeena dela adierazten du, bereziki gerta dadin beldur bagara: etorriko da aurki, ez du ezer esan baina. Sin. Agian, hurrean, apika. Ant. Ziur

azpi: iz. 1 kortan ganaduari behearen ganean egiten zaion ohe antzekoa 2 zerbaiten beheko lekua adierazten duen hitza: pozik egoten da txakurra mahai azpian etzanik. Itsasoak badu gaina, baina ez azpirik, hondo baizik. Sin. Behe. Ant. Goi. 2 (Gram.) posposizio bezala honela jokatzen du: oinetakoaren azpian zapalduta ezkutatu zuen milakoa. Ohe (aren) azpian gorde zuen. Esaldi horren azpiko egitura jakin nahi nuke. Zubi (aren) azpiko korrontea. Lur (raren) azpira sartu ziren. ‘Hodei guztien azpitik, sasi guztien gainetik’

azpigarri: iz. (Bot.) abereei etzaten diren tokian, bigungarritzat, jartzen zaien belar ihar, ira, orbel eta abarrez osatutakoa: lasto edo galtzua eta zerrautsa dira azpigarririk erabilienak. Sin. Inaurkin

azpira: iz. oreka egiteko aska antzekoa: azpirako irinetara ur pixka bat isuri eta nahasiz egiten da oreka. Sin. Ore-mahaia, oraska

B

baino: junt. 1 Jatabeko testu baten agertzen den moduan eta Txorierrin eta Uribe Kostan arrunta den moduan “baizen”en baliokidea da berdintasuna adierazten duten moduzko gonbaratiboetan: “Inoren ama ama ona da, baina norberarena dan baino ona ez”; “Iretargia argia da baina eguzkia baino argia ez” 2 desberdintasunezko perpaus konparatiboetan ‘(-en) baino...-ago’ egituraz erabiltzen den juntagailua: esan duen baino zailagoa da. 3 perpaus koordinatu adbertsatiboetan, lehen perpausean ezeztatutakoa bigarreanean baieztatzeko honen azkenean jartzen den hitza: balea ez da arraina, itsas ugaztuna baino. Sin. Baizik

- bariku:** iz. astearen bosgarren nahiz seigarren eguna, ohitura eta lekuaren arabera. Sin. Ostiral
- barrian:** adlag. ostera ere, beste behin ere: irakur ezazu barrian!. Sin. Berriro, ostera (ere), atzera (ere). Ant. Inoiz ez, sekula ez.
- barruntau:** du ad. gauzak ondo jakin gabe, itxurak soilik kontuan izanik, iritzia gauzatu edo eta juzkuren bat egin: etxetik irten orduko barruntau nuen zerbait txarra. Sin. Sumatu
- bartzun:** iz. beheko suan txingarrak eta hautsak batzeko erabiltzen den burdinazko tresna
- bedarleku:** iz. bedarra hasten den landa. Sin. Belartza, larre, zelai
- behingoan:** adlag. noiz galderari, oraintxe bertan kontzeptuaz erantzuten dioenez esaten da. Sin. Berehala, atoan, sastakoan, supituki. Ant. Geldiro, astiro
- behintxa:** iz. behi gaztea oraindino umerik egin ez duena. Sin. Biga, bigantxa
- bendeja:** iz. plazara saltzeko eroaten den jeneroa
- berbetaldi:** iz. berriketa, denbora-pasako hizketaldia: berbetaldi atseginak egiten genituen elkar ikusten genuenean: berbetaldi gozoa izan zuen amonarekin. Sin. Jardun, jardunaldi, hizketaldi, barriketaldi
- beresi:** iz. berez sortutako zuhaitz, zuhaixka eta sastrakaz osatutako lekua: beresian sartu eta irteera aurkitu ezinik estu eta larri zebiltzan mutikoak. Sin. Berroa, txara
- bestaldeko:** iz. bizitza biko etxeetan alboko auzoa
- boskotx:** iz. landara rutazeoa: urdailena kentzeko enplastua gauza askogaz egiten da: urdel-bedar, boskotx eta erromerua haustuta. (B) Azkue.
- bukoi:** iz. 200 litroko upela
- burduntzi:** 1 iz. okelak, arrainak suaren gainean erretzeko erabiltzen den tresna: jokoa ez da errenta, hobe oilaskoa burduntzian erreta. Sin. Gerren. 2 iz. tarteren batetik tantaka erortzen den ura izoztean gelditzen den izotz-puska luze eta zorrotza: kanpandorretik luzaro zintzilik egon ondoren, izotz-burduntziak urtu eta erortzen hasi ziren. Sin. Kandalu, leikandela. 3 iz. (Zool.) ibai eta aintziretan hegazka ibili ohi den abdomen luze eta zorrotzeko intsektu arkipteroa. Sin. Mariorratz, sorgin(-)orratz. 4 iz. eta izond. ekin eta ekin nekagarri, gogaikarri gertatzen denaz edo patxadarik gabe aritzen denaz esaten da: ez hadi burduntzia izan
- buruko:** iz. ohean burua ipintzeko erabiltzen den kuxin luzanga

D

- dandarrez:** adlag. lurretik jaiki nahiz jaso gabe, zorua igurtziz: amona gaixoa han dago negarrez, katuak eraman baitio taloa dandarrez. Sin. Herrestan, tatarrez, dandarrez, narras
- droga:** behar ez denean jolasten duen haur nahiz neska-mutilen egintzari edo okerkeriak egiten dituenari buruz esaten da: gure etxean hamabi neba-arreba gara, ez da droga faltarik inoiz izan. Sin. Istilu, liskar. Ant. Bake

E

eguen guren: iz. Aste Sainduko osteguna. Sin. Eguen santu

egundo: 1 adond. ezezko perpausetan inoiz ere ez: egundo ez dut sinetsi horoskopoetan. Sin. Sekula, egundaino. 2 interj. harridurazko hitza. Sin. Arraioa!, arranopola!

ei: partik. (Gram.) hiztunak gauza baten ziurtasunik ez duenean, baina jendeak hala dioela adierazteko, aditz trinkoaren edo laguntzailearen aurre-aurrean jarririk, erabiltzen den hitza: garai batean sorginak biltzen ei ziren koba hartan. Sin. Bide, omen

eixa: ikus exa

enbra: iz. sexuz femeninoa den pertsona: enbra ugari ikusi dut kaian sareak konpontzen. Sin. Emakumezko, emakume. Ant. Gizonezko

ermita: iz. (Erl.) auzoetan eta sarritan bakardadean egon ohi den eliza txikia. Sin. Baseliza

ernegau: da/du ad. sutan, haserre bizitan jarri: iturgina ez zetorrela jakitean, zeharo ernegau da. Sin. Sumindu, sutan jarri. Ant. Baretu, lasaitu

erpe: iz. (Zool.) zenbait ugaztun, narrasti eta hegaztiren atzapar zorrotza; hedaduraz, zuhaitzaren sustraia. Sin. Atzapar

erregular: adlag. dirudienez, beharbada, aurki, hurrean (ziurtasunik gabe baieztatzeko erabiltzen da): etorriko da erregular. Sin. Ausaz, agian

erreskada: iz. pertsona, animalia nahiz gauzak elkarren segidan jarriz osatzen duten lerroa: soldaduak erreskadan jarri ziren, elkarren jarraian. Sin. Ilara, lerro. Ant. Multzo, pilo

eske: iz postposizio bezala, ´ibili´, ´joan´, ´etorri´, ´jarraiki´ eta antzeko aditzekin, eskatzen, galdetzen... esangura adierazten du, edo eta, zenbait tokitan, -en bila: eguerdian perrexil eske eta arratsaldean gatz eske etorri zaigu atera. Laguntasun eske datorkizun eskalari, duzunaren ereduza emaiotzu. Itsasoa nahiko eskas dago baina arrain eske atera dira. Eskubide berrien eske dihardute

espil: 1 iz. abere batzuek bekokian edukitzen duten osterantzeko koloreko unea. 2 lohiune 3 iretargiak edukitzen dituen beltzuneak

etarte: iz. etxeetako ate inguruan izan ohi den aterpea: sar zaitetz larrainetik etartera, euria hasi du eta. Sin. Atarte, atari, ataurre, ateta

etxeandera: iz. etxeke ugazaba edo etxeke jaunarekin ezkondata dagoen emakumea, eta etxeke zereginen ardura duena. Sin. Ugazabandre, etxekeandre

exa: iz. lurra lantzeko erabiltzen den hego bakarreko tresna.

exabar: iz. exarekin egiten zen ildo

exatu: du ad. exarekin lurra landu

ezizen: iz. pertsona bati jatorrizko izenaren ordeza jartzen zaion ordezeko izena. Sin. Izengoiti, goitizen, gaitzizen

F

familia: iz. [lat. familiam, pertsona baten otsein edo zerbitzari multzo, famulum-etik, otseina] 1 etxe berean bizi diren aita, ama eta seme-alabek osatzen duten elkartea. Sin. Sendi. 2 euren artean antza duten animalia, landare, mineral eta pertsonen multzoa

fradu: iz. (Geogr.) abereak bazkatzeko edo haiei janarazteko erabiltzen den landu gabeko belardia. Sin. Belardi, zelai, larre, lantzar

frantsesa: iz. Euskal Herrian ere ereiten zen belar loredua

G

galdara: iz. [lat. caldarium] (Indus.) edozer berotzeko balio duen metalezko ontzi handia: txahalak galdara bete esne edaten du. Sin. Pertza, pertz

galtzu: iz. 1 (Bot.) gari-landareari garaua kendu ondoren geratzen den lastoa. 2 (Geogr.) aldi batean landu gabe uzten den lursaila. Sin. Lugorri

garaiteko: izlag. gainerako

garia jo: du ad. galtzua eta alea banantzeko beharrezko den egintza burutu: egintza honen izena galburuak harrian kolpatuz galtzutik aleak banantzen ziren garaikoa dirudi, baina gaur egun makinaren bidez egiten da. Sin. Ogia jo

gaubela: iz. 1 hildakoari lagun egiten gaia pasatzea. Sin. Beila, hilbeila. 2 gaia zerbait egiten, loak hartu gabe iragatea

girrintza: iz. txerriek, basurdeek eta kidekoek egiten duten hotsa: txerriak, hiltzen dutenean, indartsu egiten du girrintza. Sin. Kurrinka

gizongai: iz. ezkontzeko hitza emanik duen gizona. Sin. Senargai, mutil lagun

goritu: du ad. suaren edo berotasunaren eraginez gori bihurtu edo bizi-bizi jarri

goru: iz. haria egiteko erabiltzen den gailua. Sin. Kilo, linai

guardasol: iz. nahiz eta jatorriz eguzkiaren izpietatik jagotekoa denaren izena izan, euritakoari deitzeko erabili izan da

H

hagingorri: iz. urrezko hagin ordea

halaseko: izlag. zerbaitek tamaina handiko tasunak dituela aditzera emateko konparaziozko perpausetan erabiltzen den hitza.

hamaseiko gorri: iz. lehenagoko diru mota

harribola: iz. forma esferikoa duen harria

harrikoa egin: du ad. (Sukald.) baxera eta sukaldean janaria prestatzeko erabili ohi diren tresnen garbi-ikuzia egin: senar-emazteek txandaka egiten dute harrikoa; aste honetan gizonari dagokio

hatx: iz. naturak sortu duen erara agertzen den landu gabeko arrokozko masa handia. Sin. Harkaitz, arroka

herri bide: iz. auzokoena edo herritarrena den bidea, jabego pribatua ez duena. Sin. Auzobide

herri oilar: martxoan jaiotako oilaskoetatik hazitako hegazia

hondatu: da/du ad. 1 urpera joan nahiz bota: itsasontzia hondatu zaigu. Sin. Hondoratu. 2 norbait diru eta ezertxorik gabe gelditu: Koldo jokoan hondatu egin zaigu, hau da, dena galdu du. Sin. Suntsitu. 3 zerbaitek bere erabilgarritasuna nahiz beste tasunen bat alferrikaldu: hondatu duzu auto berria. Lantegi hura hondatu egin da

hurreean: adlag. antza, dirudienez, beharbada (ziurtasunik gabe baieztatzeko erabiltzen da): etorriko da hurreean. Sin. Ausaz, agian

hutsitu: da/du ad. 1 zerbaiten barruan dagoena kendu nahiz galdu, ezer gabe edo hutsik geratu nahiz utzi: huts dezagun pitxarra. Martxa honetan itsasoa ere hutsituko dute. 2 barneko sentimenduak askatuz kanpora irteten utzi, gehienetan lasaitasun-sentsazioa izaten delarik. Sin. Asaskatu, lasaitu

I

ibiltau: 1 batetik bestera maiz ibiltzen dena: ibiltzea maite duena: asko dira gizon eta emakumeen artean ergelak, ibiltauak, alferrak. Sin. Ibiltaria, ibilkaria. 2 bizi izateko egoitza edo leku finkorik ez duena: ijito ibiltauak ezagutu izan ditugu beti eta nekez ekanduko dira etxeetan lasai bizi izatera. Sin. Nomada. 3 bazterrak ikusi eta ezagutzeko bidaiak egitea gogoko duena: gure itsasbazterrak eta mendiak ikustera etortzen diren ibiltauak ugari dira. Sin. Ibiltaria

idi-buztarri: iz. idi bikotea solo beharretan nahiz gurdiari tiraka jarduteko dena

iguzi: du ad. norbaiti maitasunezko zirriak edo igurzketak leunak egin: neska-mutilak ikusi ditugu egun argiz elkarri iguzi egiten. Sin. Laztandu, xerak egin. Ant. Jo, jipoitu.

ilunde: iz. ilundu aurreko egunaren azken orduetako denbora: goizean lanera, ilundean tabernara... noiz itzuliko ote da etxera?. Sin. Ilunabar, arrastiri, arrats. Ant. Egunsenti, egunabar, goiztiri

iritxo: iz. (Lit.) herriko sineskeren arabera, etxe batzuetan, bereziki gaztelu eta etxetzarretan, bizi den eta gauz durundiak, zaparradak eta kalteak sortzen dituen pertsonaia mitologikoa; zenbait tokitan, kalte nabarmenik sortu gabe, etxekoei baketan uzten ez dien eta hauek ikaratzen aritzen den deabrutxo bihurri nekagarritzat hartzen da. Sin. Inguma

itaun: iz. gauza, pertsona nahiz berriren bati buruz zerbait jakin nahi dugunean egiten den esaldia: haurrek itaun zorrotzak egiten dituzte. Sin. Galdera

izar buztandun: iz. (Fis.) trinkoa ez den ardatz edo nukleoa eta, eguzkiarekiko egoeraren arabera, aurretik, inguruan nahiz atzetik atmosfera argitsua dituen astro higikorra. Sin. Kometa

izurde: iz. (Zool.) lepo beltz, azpi zuri, buru handi, begi txiki betiletsu, aho oso handi, bi matelezu-urretan hortz koniko, mutur luze eta sudurzulo bakarreko arrain itxurako ugaztuna (gizakiaren adiskidetzat hartu izan da eta itsas zooetan saltoka ikusi izan ohi da)

J

jantzan egin: du ad. gorputza doinu baten erritmoz artistikoki mugitu. Sin. Dantzatu, dantza egin

jaurti: du ad. zerbait toki batetik beste batera indartsu, abiadura handiz bota. Sin. Iraitzi, bota

jazki: iz. 1 pertsonak gorputza estaltzen erabiltzen duen oro. Sin. Jantzi. 2 oihal berdinez bi ataletan egina delarik, gorputzaren goialdea eta behealdea estaltzeko gainerako arropen gainetik jartzen den jantzi dotorea

jenero: iz. dendetan edo azokan eskaini ohi den salgaia

K

kabra: iz. (Zool.) bizkarraldean adar antzeko irtenuneak dituelako, ahuntzaren irudikotzat jotzen den arraina

kanpa: iz. [lat. campana, kalitaterik oneneko brontzea ematen zuen Campania lurraldearen izenetik] eliza dorreetan egon ohi diren brontzezko tresnak, alderantzizko koparen itxura eta barruan doinua ateratzen duen mihia dutenak. Sin. Ezkila

kantarila: iz. euri-urak nahiz komunetako hondakinak bideratzeko lurrazpiko isurbide edo hodia. Sin. Errestali, isurbide, estolda

karabi: iz. (Kim.) karea egiteko erabiltzen den labe berezia

kardau: du ad. edozein ehun-gai iruteko prestatu

karraderan egin: du ad. oinez abiadura handiz ibili. Sin. Lasterka egin, arineketan egin, korrika egin. Ant. Geldi egon, astiro ibili

karro: iz. (Nekaz.) nekazarien eta meatzarien artean zamak garraiatzeko erabiltzen den ohiko ibilgailua: karroa zaldiaren aitzinean jarri. Sin. Gurdi, orga

koipetsu: 1 izond. koipe ugari duena: txerrikoa oso koipetsua izan ohi da. Sin. Urintsu, gantzatsu. 2 izond. eskuarki interes jakin batzuk direla eta berba gozoak esaten edo laudoriotan aritzeko joera duena: ez jaramonik egin horri koipetsu hutsa da eta. Sin. Losintxari, lausengari. Ant. Latz, zakar. 3 izond. garbitzeke, ugerrez eta zikinkeriaz beterik ibiltzen den pertsona nahiz horrela dagoen gauza: bere txapel koipetsua eskuetan zuela etorri zen. Ijito koipetsua. 4 iz. frijitutako gai ezberdinez egindako janaria: 'Maritxu, Maritxu, gozozale zara zu!/' Maritxu, Maritxu, bizitzen badakizu./ Goizean-goizean txokolatea/ arratsaldean koipetsu'

koitadu: izond. adore gutxikoa izan eta gupida sortzen duen pertsonaz esaten da. Sin. Errukarri, gizagaixo, gajo. Ant. Zorioneko

koiu: du ad. 1 mugimenduan ari den abere nahiz pertsonari oratu, ihes egin ez dezan: katuak sagua koiu du. Sin. Atzeman, harrapatu, heldu, oratu. Ant. Askatu, jaregin. 2 ikus ostu, lapurtu

kopeta: iz. 1 aurpegiaren goialdean ilearen hasiera eta bekainen arteko aldea: kopetatik izerdia zerion Koldori. Sin. Motots, bekoki. 2 zerbaiti nahiz norbaiti aurre emateko adore, kemen edo ausardia (ezezko eta harridurazko perpausetan erabiltzen da batez ere): hark ez du horrelakorik inori egiteko kopetarik. Sin. Aurpegi. 3 idi nahiz behiak uztartzerakoan bekokian, uztarri azpian ezartzen zaien larru zabalezko babesgarria

kopletan: iz. funts edo garrantzirik gabeko gauzez denbora-pasako hizketaldi luze samarrean jardun. Sin. Barriketan

korrian: da ad. oinez abiadura handiz ibili: korrian ibili ondoren, bihotzaren taupadak azkarragoak izan ohi dira. Sin. Korrika egin, lasterka egin, arineketan egin

kriada: iz. inoren etxean, soldata jasoz, etxeko lanak egiten jarduten duen emakumea. Sin. Neskame mirabe, sehi

kriadu: iz. ordainketa bidez, inoren zerbitzutan, eskuarki ugazabaren etxean bizi izanik, lan egiten duena: oso zaila da gaur egun kriadurik aurkitzea. Sin. Sehi, otsein, otseina, sehia. Ant. Jabe, ugazaba

kukulu: iz. inausi bako arbola

kukurruku egin: du ad. oilarrak jo

kuma: iz. 1 ume txikerrentzako ohe txikia. Sin. Sehaska. 2 iz. (Zool.) abereen umeaz esaten da (gehienetan hitz konposatueta bigarren osagaitzat erabiltzen da): usakumea, txerrikumea.... Sin. Ume

kurtze: iz. [lat. cruce] 1 (Erl.) lehenago gaizkileak iltzez josirik heriotzara eramateko bi hagaz eginiko oinazegailua. 2 (Erl.) kristauen ezaugarri nagusia. 3 bide edo kale desberdinak elkarren artean zeharkatzen diren unea

kurtzelu: iz. oliozko argiontzi arrunta. Sin. Kriseilu

kuzkur: izond. 1 adore handirik gabea, kikila, beldurtia. 2 iz. ogi muturra, bedeinkatu ostean mantalpean gordetzen dena txakurraren amorruren aurka erabiltzeko. 3 iz. (Bot.) zuhaitz batzuen fruitua: haritz, pago eta arteek kuzkurra edukitzen dute

L

labrantza: iz. (Nekaz.) lurak lantzeari esaten zaio. Sin. Lugintza, nekazaritza, lur-lantze, labrantza

labrau: du ad. zerbait ereiteko lurak egokitu edo prestatu. Sin. Landu.

laiau: du ad. (Nekaz.) lurra laiaz laboratu eta irauli

lakio: iz. [lat. laqueum, tranpa] 1 txoriak harrapatzeko sare edo tranpa. 2 artzainen zorroa

lantzar: iz. aspaldian landutako lur saila, orain bertan behera datzana. Ant. Lanbarri

lantzean behin: adond. sarri gertatzen ez dela: hau ere lantzean behin haserretzen da. Sin. Noiz-behinka

laprast egin: du ad. 1 gainazal batean oreka galdu. Sin. Labaindu, irristatu. 2 gauza bat beste bat delakotzat jo. Sin. Erratu, tronpatu, huts egin

laratz: iz. (Mek.) beheko sutako tximiniatik zintzilika egoten den katea, amaieran galdara esekitzeko gakoa duena: hori nolakoa den laratzak esango du

laseko: izlag. neur daitekeen ezaugarri bat beste zerbaiten edo norbaiten mailakoa duena: idi honek gureak laseko indarra du

lotu: ad. 1 du; kordel edo antzeko zerbaitez bi gorputz batean jarri. Sin. Estekatu, korapilatu. Ant. Askatu, jarein. 2 da; toki batean ibiltzeari utzi. Sin. Gelditu, geratu. Ant. Joan, alde egin

luki: iz. 1 (Zool.) [Vulpes vulpes] buztan iletsua eta mutur zorrotza dituen ugaztun haragijalea, hegazti eta ugaztun txikien hondatzailea. Sin. Azeri. 2 (Irud.) pertsona maltzurra; trikimailuetan trebea, zakur zaharra. Sin. Maltzur, makur. Ant. Zintzo, leial, ondradu

M

makal: 1 izond. indar edo sendotasun eskasa duena. Sin. Ahul, indarge, mirrin. Ant. Sendo, gogor. 2 iz. (Bot.) lurralde epel urtsuetan hazten den zuhaitza, zur arin zuria duena; uretan iraunkortasun handia izaten du eta azal ilunekoa da. Sin. Zurzuri. 3 izond. adorerik edo ausardiarik ez duena. Sin. Koldar, beldurti. Ant. Ausart, adoretu

mamin: iz. hainbat gauzaren barrualdeko gai biguna; hezurrez osatua ez den zatia: horrek mamina jan eta hezurra utzi egiten du. Ogi-mamina, haragi-mamina, hortz-mamina, zur-mamina. Sin. Okela, muin, funts. Ant. Azal.

manjuja: iz. janaria, jatekoa.

marti: iz. [martiz: antzinako erromatarren gerraren jainkoa] urtearen hirugarren hilabetea

martxau: da/du ad. 1 norabait joateko bidean jarri: zer ordutan martxau da mendirantz?. Sin. Atera, irten. Ant. Geratu. 2 da; hiztunarengandik urrunago dagoen toki batera alde egin. Sin. Joan

mentu: iz. zerbaiti balioa, handitasuna edo estimua ematea: mentu handikoa da elkarrekin giza harreman onak izatea. Sin. Axola, garrantzi, inportantzia

molda: iz. [lat. modulum] zerbaitetarako esku ona, trebetasuna: horrek ez du lanerako molderik. Sin. Trebetasun

mustur: iz. (Anat.) gizakiaren eta animalia batzuen buru aurrean izan ohi den aho-ezpainen irtene biribil antzekoa: basurdeak mustur luzea du. Sin. Mutur

N

nabar: izond. orban ilunak edo arreak dituena; kolore argi eta ilunen nahasteaz osatua, kolore askotakoa

narraz: adb. herrestan, arrastaka

O

opil: iz. egitura biribileko ogi txikiaz esaten da bereziki

orraztoki: iz. orratzak gordetzeko ontzia, gehienetan tutu txiki baten formakoa dena. Sin. Orratzontzi

ortozik: adond. oinetakorik gabe: ijito txikiak ortozik dabilta. Sin. Oinutsik

ota: iz. oiloak gaez lo egitera joaten diren haga gurutzatuzko tokia: oiloak iluntzero, biltzen dira otan, hanka baten gainean lo egitekotan. Arratsean oiloak otara eta haurrak lotara

otso: iz. (Zool.) zakur handi baten antzekoa den ugaztun haragijale basatia: kanpoan uso eta etxean otso

otxa: interj. txakurra xaxatzeko erabiltzen den berba

otxa egin: ad. txakurra xaxatzeko erabili ohi dena

P

paraje: 1 adond. aipatzen den lekutik tarte txikira: Mungiatik Gatika paraje dago. Sin. Hur, hurbil. 2 ikus leku 3, lurralde 2

parkeske: adlag. barkatzeko eskaria egiten, barkamen bila nahiz barka eskatzen: Mikel parkeske etorri zait, atzo sasieskola egin zuela eta

patin: iz. putzu artifiziala

plantau: du ad. landare, kimu eta abar lurean sartu sustrai dadin. Sin. Landatu

poto: iz. zeregin desberdinetarako erabiltzen den ontzia. Sin. Tanga, ontzi.

S

sail: iz. 1 (Geogr.) (berba honek Bizkaiko bariedade askotan “a” itsasia dauka: “saila bat”) ereiteko nahiz zerbait landatzeko egokitu eta prestatzen den lur zatia: sagarrondoak landaturiko bi sail ditugu. Sin. Partzela. 2 (Adm.) Administrazioan nahiz bestelako edozein erakunderen antolamendutan bereizten diren arloetarako bakoitza: hau, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila da. Sin. Departamentu, arlo, esparru. 3 erreskadan edo hurrenez hurren dauden izakien multzoa: ETBn telesailak ematen dituzte astez aste. 4 izaki bi baino gehiagoz osatutako multzoa: ikasle sail handi bat aurrean duela ari da irakaslea. Sin. Talde, aldra

sain: iz. arrain gantza: antzina kriseiluek saina behar izaten zuten argi egiteko. Sin. Koipea

sarraida: iz. 1 norbait sartzearen egintza: irabazleek hirian egin zuten sarraida gogoangarria izan zen. 2 nonbait sartzeko ate edo lekunea. Sin. Sargu, sarrera, aho, sarbide. Ant. Irteera. 3 (Lud.) ikuskizun batean sartzeko eskubidea ematen duen txartela: ea! non duzu sarraida? Sin. Txartel. 4 (Lit.) obra idatzi baten hasieran, aurkezpen gisa, jarri ohi den azalpena. Sin. Hitzaurre, aitzinsolas. Ant. Hitz-atze, gibel solas

segun traza: esap. itxura denez, ematen duenez: segun traza, erdaraz ari den hori ere euskalduna da. Sin. Dirudienez, seguru bere

seguru: esap. itxura denez, ematen duenez: erdaraz ari den hori ere euskalduna da, seguru. Sin. Dirudienez, seguru bere, segun traza

seguru bere: esap. itxura denez, ematen duenez: seguru bere, erdaraz ari den hori ere euskalduna da. Sin. Dirudienez, seguru, segun traza, antza denez

seineru: iz. itsasoaren egoera iragartzera ematen zuena

solo arlo: iz. lursail edo zatia

sorgintzua: iz. (Mit.) sorginei, gauekoei nahiz parte txarrekoiei dagokien egintza, gehienetan harigarria

T

tema: iz. zernahi arazo dela eta, gehienetan era gogorrean, bakoitzak bere iritziak azalduz egiten den hizketaldia. Sin. Eztabaida, matraka, diskusio, ika-mika. Ant. Akordio, bake

teman parau: ad. zernahi arazo dela eta eztabaidan jartzea, gehienetan era gogorrean, bakoitzak bere iritziak azalduz. Sin. Matrakan hasi, eztabaidan jarri. Ant. Akordio, bake

tratante: iz. (Ekon.) saltzen eta erosten, tratuan aritzen den pertsona: hari ez dio inork ziririk sartuko, tratante aparta da eta. Sin. Tratulari, merkatari

TX

txabila: iz. haria bihurritu eta biltzeko txirrikaz hornituriko ehogailu txiki baten antzeko tresna

txakur txiki: iz. bost zentimotako txanpona. Sin. Xemaikoa

txarrantxa: iz. 1 lihoa garbitzeko burdinazko hortzak dituen orrazi gisako tresna. Sin. Kardama. 2 ganaduak garbitzeko burdinazko eskuila. 3 mandarrak buru gainean, ez aho barruan, eraman ohi duen balazta antzeko gailua. 4 presa-txakurrei lepo inguruan ezartzen zaien burdinazko horzdun idunekoa: txarrantxa txakurra otsoetatik gordetzeko tresna egokia da. Sin. Garranga

txepetx: iz. (Zool.) moko zorrotza, isatsa tentea, kolorea bizkar aldetik arrea eta sabel aldetik zurixka duen Euskal Herriko txoririk txikienetarikoa, geldiezina eta urduria

txilibiteru: iz. txilibitu jolea. Sin. Txilibitari

txindor: iz. 1 (Zool.) lumak olio kolorekoak, baina betondoa, iduna eta paparra gorriak dituen txoritxo kantaria. Sin. Txantxangorri, papargorri. 2 (Med.) betazal ertzean agertu ohi den pikortxo. Sin. Begitxindor. 3 ikus txintxorta

txitxakar egin: du ad. norbait nahiz zerbait barregarri jartzeko egintza egin edo hitzak esan: bertsolariak bere buruari ere burla egingo lioke. Sin. Trufatu, iseka egin, burla egin, burlezar hartu. Ant. Goretsi, laudatu

txizalarri: iz. txiza egiteko premia edo gogo bizia. Sin. Txizagura, txizazi, pixagale, pixagura

U

ugazabandra: iz. ugazabaren emaztea edo eta zerbaiten jabea den andrazkoa: izatez ugazaba zen jabea, baina ugazabandreaki lotsa handiagoa genion

urregorri: iz. (Bitxig.) beste ezereen nahasketarik gabe urre huts-hutsa (zenbait tokitan urre izen orokorra izanik, urregorri eta urrezuri erabiltzen dira bereizgarritzat): 'errekaldea lizarra/ hari begira izarra/ etxe honetako nagusi jaunak/ urregorritzko bizarra' (herri kanta)

usadio: iz. (Zuz.) herri edo gizarte batean ohikoa den jarduera, edo eta gauza bera eginaren eginez lortzen den jokalegea, ohitura: Euskal Herriko Lege Zaharra usadioetan oinarritzen zen. Sin. Aztura, usantza, ekandu

Z

zaran: iz. belarra eta beste zenbait gauza ekartzeko lepoan erabiltzen den nahiz zamariei alde batean eta bestean ezartzen zaizkien zare handietarikoak: zaran bete belar ekar ezazu behientzat

zarrapastada: onom. kolpea adierazteko erabiltzen da. Sin. Tarraskada

zer da kasua: esap. lokailu moduan erabiltzen da azalpenak mukurutzeko, edo arteragoko hariari atzera oratzeko

zerrin: iz. zerra bidez zura ebakitzean ateratzen den hondar fina edo hauts antzekoa: egun zerrina azpigarri modura erabiltzen dute zenbait tokitan. Sin. Zerrakin, zerrauts

zopak: iz. gehienetan pl. esnetan, kafesnetan, saldaren batean bustitako ogi zati nahiko txikerrak. Esne-zopak

zoru: iz. 1 beheko lurrazal solidoa: neguan zenbait bidetan zoru irristakorra izaten da. 2 gorputz baten behe aldea edo euskarria

zotzarda: iz. zotzezko sarda, nekazaritzan erabiltzen izan den tresna

zuhur: izond. 1 ongi pentsatu edo hausnartuz nahiz arriskuak eta hutsegiteak aldenduz, sotiltasun edo arreta handiz jarduten duena. Sin. Umo, gurbil, zentzudun. Ant. Baldres. 2 zerbaitetan aditasun zorrotza duela jokatzeko duena. Sin. Ernai, zoli. Ant. Motel. 3 (Ekon.) dirua aurrezteari buru eta bihotz emana edo eta dirura joera nabarmena duena: zuhurra zen gizon hura. Sin. Zeken, zikoitz. Ant. Eskuzabal

zutunik: adond. pertsona nahiz gauza zuzen gorantz egotea adierazteko hitza: nekaturik gaude futbol partidu osoan zutunik egon behar izan dugu eta

BIBLIOGRAFIA

- ARANA, Anuntzi, 2004, *Mitoen bilakatzea. Akabera eta iraupena*, Gatuzain, Baiona.
- AZKUE, Resurrección Maria, 1966, *Euskalerrriaren Jakintza*, Espasa-Calpe, S.A. Madrid.
- AZURMENDI, Mikel, 1993, *Nombrar, Embrujar*, Alberdania, Irun.
- BARANDIARAN, Jose Miguel, 1984, *Diccionario de Mitología Vasca*, Txerto, Donostia.
- CARO BAROJA, Julio, 1982, *Brujería Vasca*, Txertoa, Donostia
- DELUMEAU, Jean, 1978, *Le peur en Occident, XIVème XVIIIème siècles*, Fayard.
- ERKOREKA, Anton, 1995, *Begizkoa Mal de ojo*, Ekain, Bilbao
- HARTSUAGA, J. Ignazio, 1987, *Euskal Mitologia konparatua*, Kriselu, Donostia.
- KALTZAKORTA, Xabier, 1997, *Lamia, Sorgin eta Tartaroen Erresuma ezkutua*, Labayru Ikastegia, Bilbo.
- LANCRE, Pierre, 2004, *Tratado de Brujería Vasca*, Txaiaparta, Tafalla.
- OTEIZA, Jorge, 1994, *Quousque tandem...!*, (V. argitalpena), Pamiela, Iruña.
- SATRUSTEGI, Jose Maria, 2000, *Izena duena, bada*, Ikastolen Elkartea, Donostia



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



Bizkaiko Foru
Aldundia

Diputación Foral
de Bizkaia



Sig.: 811.361'282 GAM biz
Tit.: Bizkaian zehar kontetan ; gida l
Aut.: Gaminde, Iñaki
Cód.: 1011254



ISBN 84-457-2350-2



9 788454 723508


Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Salneurria: 15 €



BIZKAIAN ZEHAR KONTETAN CD





BIZKAIAN ZEHAR KONTETAN



I.S.B.N.: 84-457-2350-2
L.G.: VI-308/05

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2005

Bilduma honetan, euskaldunok, jende harrigarriaren ipuinak -sorginenak-eta, lamienak-eta, Peru eta Marirenak-eta- eskaintzen ditugu. Ez denak, ezta gutxiagorik ere, baina bai bikainak, urteetako bilketa lanetik aukeratutako sorta eder esanguratsua.

Gure gogoia da, Euskal Herri euskaldunaren ondare kultural galkorra teknologiari esker euskaraz bizi direnentzat iraunkor bihurtzea, amama-aitaiten ahotiko jakituria formatuz aldatuta herritarrei itzultzea.

“Gaua gauezkoentzat eta eguna egunezkoentzat” errepikatu izan den gure gizartean, arrazoiaren argiaz gaua garbitu dugunean, sorginak eurak ere erratzak eraman dizkigu, mundu magikoa galzorian jarririk.

Horregatik, guk eskolara jo dugu curriculum material hau eskainiz, iraganeko aberastasunak oraingo hezkuntzaren bidez ikaslearengana daitezen.

CDa erabiltzeko:

Internet Explorer moduko nabigatzailea behar da.



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN




Bizkaiko Foru
Aldundia

Diputación Foral
de Bizkaia



mendebalde
kultur alkartea

ISBN 84-457-2350-2



9 788454 723508

Salneurria: 15 €